

ESCUAL-HERRICO
HAURRENTZAT ETA JENDI LARRIENTZAT

ERLISIONEAREN

ICHTORIA

LABURZKI



BAIONAN
LASSERRE BAITHAN IMPRIMATUA

1890

ERLISIONEAREN

ICHTORIOA

DROITS DE PROPRIÉTÉ RÉSERVÉS

Traduction autorisée :

COMPANT,
Chan. hon. de Reims



N- 245709

ZRV
3417

ERLISIONEAREN ICHTORIOA

LABURZKI

Benoît-Marie LANGÉNIEUX

Frantzia Reimseco cardinale jaunac egina

ETA FRANTSESETIC ESCUARARA

L. DIHARASSARRY, CAMBOCO ERRETORAC

ITZULIA



Baionan, LASSERRE liburu-egilearen baithan moldatua
Gambetta carrican

—
1890^{er} an

BAIMENA

Gogotic onesten dugu argitarat emana izan dadien, M. Diharassarry, Camboco jaun erretorac, escuaraz ezarri duen *Erlisionearen ichtoria*. Liburutto horren iracurtzea eta gogoz ikhastea anhitz probetchoz baititake ez cholki haurrentzat, baina giristino guzientzat.

Baionan emana otsailaren 13^{an} 1890^{ean}.

INCHAUPE, *Bicari gen.*

ESCUAL-HERRICO HAURRERI

Liburu hau, haur maiteac, zuentzat egina da bereziki, nahiz jende larriec ere hunen iracurtzea on luketen, arras on.

Liburu huntan icusico duzue eta icasico *Erli-sionearen Ichtorioa*. Ez da ichterioric hain ederric, ez da hain jakin beharric.

Ichtorio hortaz, ondicotz, ez duzue mintzatzen aditzen zuen escoletan, gehienetan bedere. Zuen escoletan zer nahi iracasten dautzue, bainan ez Jaincoac zer egin duen sei mila urthe huntan gizonentzat amodioz, eta gizonec nola ihardetsi dioten Jaincoaren ongi eginerri. Ez, haur gai-choac, zazpi urthez, egunean sei orenez, egon behar duzen escola hetan, nihore ez du aiphatzen Jaincoa, nihore Jaincoaren Seme gizon egina, Jesu-Christo gure Salbatzailea, nihore Eliza Catholico gure ama saindua. Eta bizkitartean zer dakigu eta zer hari gare, ez balin-badugu Jesu-Christo ezagutzen, maitatzen eta zerbitzatzzen!

Zuetaz urricalduric, haur maiteac, zueri erli-sionearen ezagutzeco errechtasuna emaita gatic, asco aphez lagunec ere othoiztu nautelacotz, egin dut liburu hau. Edo, hobeki erran dezadan, liburu hau ez da nic egina. Gutiz gehiena egina da Jaun Cardinale jakintsun eta khartsu batec, Murde

LANGENIEUX, Frantzia *Reimseco* archapezpicuac. Nie ez dut frantsesetic escuararat itzuli baizic; eta jaun Cardinaleari zin zinez eskerrac diozcat, lan horren egiteco hain gogotic eman dautan baiarentzat (1).

Haurrec liburu laburrac nahi dituzte. Hau laburra da; eta bizkitartean hemen aurkhitzen dire erlisionearen ichtorioco gauza premiatsuen guziaz.

Haurrerik laketa zaizcote galde-ihardesca icasten diren gauzac. Liburu hau galde-ihardesca egina da.

Haurrec ichtorioac eta sainduac maite dituzte. Liburu huntan bada hainitz ichtorio pullit eta hainitz saindu.

ESCUAL-HERRICO HAUR MAITEAC,

Har zazue beraz liburutto hau, eta maiz escuetan ibilzazue, maiz artharekin iracur. Liburu huni esker, segur, hobeki ezagutuco duzue eta maitatuco gure erlisione saindua.

Hala gerta bedi, haur maiteac, Jaincoaren oho-retan, zuen eta nere onetan.

L. DIHARASSARRY,
Camboco erretora.

(1) Egia dena den erraiteco, plamen zolan, hitz hauc diren tokian, causituco ditutzuen chehetasunac, guziaz nere baitharic emanac ditut; ez da bihibat jaun cardinalearen liburuan aurkhitzen.

ERLISIONEAREN ICHTORIOA

Cer iracasten daucu erlisionearen ichtorioac?

Erlisionearen ichtorioac iracasten daucu, Jaincoac zer egin duen gizonentzat, eta gizonec zer egin duten Jaincoarentzat.

Zoin liburutan causitzen da ichtorio hori?

Ichtorio hori causitzen da gehienic *Testament zaharreco* eta *Testament berrico* liburuetan.

Norc eginac dire liburu hec?

Asco gizonec; bainan gizon hec guziec ez dute liburu hetan eman Izpiritu Sainduac emaiteco manatu diotena baizic. Beraz, funtsera gan eta, Izpiritu Sainduac eginac dire liburu hec guziac; guziac dire Izpiritu Sainduaren, Jaincoaren beraren hitza; hartacotz deitzen dire *Liburu Sainduac*.

Izpiritu Sainduac erran edo erranaraz othe dezake hala ez denic?

Ez, segurki; eta horra zertaco, ala *Testament zaharrean*, ala *Testament berrian*, ez den egiaric baizic.

Zoin dembora hartzen ditu Testament zahar-rac?

Testament zaharrac hartzen ditu munduaren hastapenetic eta Jesu-Christoren sortzeraino iragan diren demborac; gerozticaco demborac *Testament berricoac* dire.

*Noiz artio iraunen dute Testament berrico dem-
borec?*

Iraunen dute munduaren acabantzaraino.



TESTAMENT ZAHARRA

Munduaren hastetic eta Jesu-Christoren sortzeraino

(4000 urtheren heina).

Testament zaharreco demborez egin ditazke
lau zati edo parte :

1^a Munduaren hastetic, eta Jaincoac Abraham
bere populuaren aintzindaritzat hautatu zuen ar-
teraino ; — (2000 urtheren heina).

2^a Jaincoac Abraham bere populuaren aintzin-
daritzat hautatu zuenetic, eta populu hura Ejip-
toco lurretarie athera zen arteraino ; — (500 ur-
theren heina).

3^a Jaincoaren populua Ejiptoco lurretarie athera
zenetic, eta erregeac buruzagitzat izan zituen ar-
teraino ; — (420 urtheren heina).

4^a Jaincoaren populuac erregeac buruzagitzat
izan zituenetic, eta Jesu-Christoren sortzeraino ;
— (1080 urtheren heina).



LEHEN ZATIA

Munduaren hastetic eta Jaincoac Abraham bere popularen aintzindaritzat hautatu zuen arteraino.

(2000 urtheren heina).

1^a Icusten dugun mundu hau beti-danic izatu othe da?

Ez, icusten dugun mundu hau ez da beti-danic izatu. Hastapen bat izan dute zeruac, lur-rac, itsasoac eta hetan aurkitzen diren gauza guziet; guziet izanen dute halaber acabantza. Jaincoa da bakharric hasteric izan ez duena, izanen ez duena acabantzari. Jaincoac zerbeit creatu baino lehen, jeus ez zen Jaincoaz beraz campo.

2. Nola Jaincoac creatu ditu gauza guziet?

Jaincoac gauza guziet creatu ditu bere hitz choilaz, sei egunen edo sei egun aralderen bar-



nean. Mintzatu zen, eta guziac eginac izan ziren : argia, zerua, iguzkia, hilargia, izarrac, lurra, itsasoa, landareac, animaleac, eta azkenean gizona.

3. *Gizona creatu aintzinean, Jaincoac ez zuena creatu bertze zerbeit gizonaz gainecoric ?*

Bai, gizona creatu aintzinean, Jaincoac creatu zituen *aingeruac*. Aingeruac izpiritu huts batzu dire. Jaincoac, creatzean berean, grazia edo bate-tara dohana, saindutasuna eman zioten. Batzuec, gehienec, saindutasun hura begiratu zuten, eta Jaincoac sariztatu zituen, betiereco zeruco zorionean sarraraziz. Hec dire aingeru onac, edo choilki



aingeruac ; hec zaintzen gaituzte eta ongirat ekhartzen. Bertze aingeru batzuec aldiz beren grazia edo saindutasuna galdu zuten, Jaincoaren contra urguiluz alchaturic ; Jaincoac beticotz ifernurat artiki zituen. Hec dire aingeru gaichtoac edo debruac, beti guri gaizkia eginarazi nahiz hari direnac.

4. *Nola Jaincoac creatu zituen lehen gizona eta lehen emaztea ?*

Lehen gizonaren eta lehen emaztearen creatzeco, Jaincoari ez zitzaion aski zela, bertze gauzentzat bezala, choilki mintzatzea, manatzea. Bainan berac nahi izan zuen gizonaren gorphutza lurretic egin, eta gero eman zion arima, erran

nahi da, hil behar ez zuen izpiritu bat; lehen gizona deitzen zen *Adam*. Gizonaren bakharric ez uzteco, Jaincoac Adami lo gogor bat igorri zion, eta, lo zagolaric sahets hechur bat khenduric, hartaric egin zuen lehen emaztea; deitzen zen *Eba*.

5. *Zertaco Jaincoac creatu du gizona?*

Jaincoac gizona creatu du harren ezagutzeco, maitatzeco, zerbitzatzeco, eta bide hortaz betiereco bizitzearen ardiesteco.

6. *Zoin estatutan Jaincoac creatu zituen Adam eta Eba?*

Jaincoac Adami eta Ebari, creatzean berean, eman zioten grazia. Grazia saindu egiten zituen eta Jaincoaren adichkide. Hala egon izan balire, zerua izanen zuten saritzat. Jaincoac ezarri zituen *lurreco Parabisua* deitu zen tokieder batean. Han egiazco zoriona bazuten : bazakizcaten jakin behar zituzten guziac; errechtasun handienarekin jarraikitzen ziren Jaincoaren nahiari; animale guziac beren escuco zituzten; gaitzie ez zuten pairatu behar, eta egun batez, hil gabe, zerurat gan behar zuten, Jaincoarekin eta aingeruekin betiereco batasunean bizitzeco.

7. *Nola galdu zuten Adamec eta Ebac zorion hori?*

Adamec eta Ebac zorion hori galdu zuten, Jaincoaren grazia galduz beren desobedientziaz.

8. *Erraguzu nola desobeditu zuten Adamec eta Ebac?*

Lurreco parabisuaren erdian bazen arbola bat, deitua *ongiaren eta gaizkiaren ezagutzeco arbola*.

Jaincoac Adam eta Eba gure lehen burhasoeri debecatu zioten arbola harren fruitutic jatea, bai iracusteco oroz gaineco nausia zela, bai eta ere jakiteco heia obedituco zioten : « Jaten balin-baduzue, zioten erran Jaincoac, hilen zarete. » Ez dakigu chuchen zembat dembora Adam eta Eba egon ziren Jaincoaren debecua hautsi gabe. Bainan, egun batez, Eba parabisuan zabilalaric, debruac, sugearen itchura harturic, desobeditzerat bildu zuen. « Ez zarete hilen, zion erran, bainan bertze Jainco batzu bezala izanen zarete; ongia eta gaizkia ezagutuco ditutzue. » Hitz horiec choraturic, Ebac fruitua hartu zuen eta jan; gero Adami eman zion, eta hunec ere jan zuen.

9. *Zer gaztigu izan zuten Adamec eta Ebac?*

Adam eta Eba, beren desobedientziaren gatic, parabisutic campo igorriac izan ziren. Bertzalde, desobedientzia harrec ekharri ditu, bai lehen burhasoentzat, bai hekien ondocoentzat, arimaco eta gorphutzeco gaitzac, nola : graziaren galtzea, gaizkiraco jaidurac, eritasunac, heriotzea eta ifernua.

10. *Jaincoac gizona arbuiatu othe zuen bere bekhatuaren ondotic?*

Ez, Jaincoac ez zuen gizona arbuiatu bere bekhatuaren ondotic; bainan agindu zion *Erosle* edo *Salbatzaile* bat, MESIAS izendatua izan dena. Lau mila urthez munduac iguricatu izan du Mesias, eta duela hemeretzi mende Jaincoac eman dio munduari; *Mesias da Jesu-Christo* gure Jauna.

11. *Zer bilhacatu ziren Adam eta Eba?*

Lurreco parabisutic atheratu ondoan, Adamec eta Ebac behar izan zuten lanean nekhatu, eta

beren ogia ederki izerdituz irabazi. Bazakiten hil behar zutela; bainan sinhesten zuten ethorrico zela Salbatzailea. Mesias ethorrico zela sinhestearekin, eta haren merezimendueri esker, salbatzen ahal ziren bai Adam eta Eba, bai hekien ondocoac. Adam eta Eba zeruan dire.

12. *Zoin izan ziren Adamen eta Ebaren haurrac?*

Adamec eta Ebac haurra frango izan zuten; ezagutuenac edo aiphatuenac dire *Cain* eta *Abel*. Cain, gaichtoa, lur lanetan hari zen; Abel, ona eta prestua, artzaingoan.

ICTORIA

Cainec Abel hiltzen du

Cainec Jaincoari sacrificiotzat escaintzen ziozcan lurreco bere lehen fruituac, eta Abelec bere artaldeco lehembizico bildotch e. Jaincoac onhartu zituen Abelen escaintzac, ez ordean Cainenac, zeren hunen bihotza ez baitzen garbi.



Cain hainitz bekhaiz'u eta hasarretu zen, eta egun batez erran zion Abel bere anaiari: « Gazen campo horietarat » Gan ziren; eta baztertu zirenean, Cain lotu zitzaion bere anaiari eta hil zuen. Jaincoa agertu zitzaion Caini, eta erran zion: « Non da Abel, hire anaia? » Ihardetsi zion: « Ez dakit, niri othe dago nere anaiaren zaintzea? » Eta Jaincoac bihurtzen dio: « Zer egin due? Hire anaiaren odolaren oihua lurretie ene ganaraino heldu due. Ma laticatua izanen haiz, eta beti bidez bide ibilico haiz ihesca. » Caine or luan: « Nere bekhatua sopra handia da barkhamenduric ardiesteco », eta badoha ihesi.

Irascapena (1) — Jaincoac ez zion barkhatu Caini, zeren ez baitzuen nahi izan bere hutsa aithortu, eta hartaz urrikitu.

13. *Adamen eta Ebaren ondocoac jarraiki ziren-a Jaincoaren legeari?*

Ez, gero eta gehiago gaichtatuz gan ziren. Emeki emeki beren Creatzailea ahantzi zuten; ez zuten gehiago Jaincoa othoizten, ez ziren gehiago agindu Salbatzaileaz orhoitzen.

Bazter guzietan leher egin zuen tzarkeriac. Jaincoaren maitatzeco eta zerbitzatzeco orde, gizonec, beren hitzez eta beren egintzez, ez zuten laidoztatzen baizic.

14. *Zer egin zuen Jaincoac, gizonac hain gaichto icusiric?*

Jaincoac behin baino gehiagotan mehatchatu zituen hambat hobendun ziren gizonac; baina hauc are gehiago gaichtatzen hari ziren. Jaincoac hartu zuen orduan gizon guziac uhalde latean ithotzeco chedea. Familia bat bizkitartean, *Noeren* familia, ez zuen galdu nahi izan. *Noe* gizon

(1) Testament zahar guzia Testament berriaren itzala bezala da; eta nola gauza baten itzaletie ageri baita, nolatsucoa den gauza hura, halaber Testament zaharreco gertacariec *iracasten* zuten zer gertatu behar zen Testament berrian.

zuzen bat zen, beti bere Jaincoaren alderaco egimbideri jarraiki zena. Jaincoaren manuz, Noe ehun urthez haritu zen arca edo untzi handi baten egiten : han, uhaldea heldu zenean, izan behar zuen bere ihes lecua. Noe lan hortan icusiz, jendec errechki ezagut zezaketen, Jaincoaren mehatchuaczin-zinezcoac zitazkela ; halaric ere, ez ziren beren baithan sartu, bannan are gehiago lohian orhatu.

15. *Errandiezaguzu uhalde handi, mundu guzia hartu zuen harren ichtorioa.*

Beraz, Jaincoaren manuz, Noec egin zuen untzi handi bat, *Arca* deitua. Arca hartan sarrarazi zituen bere emaztea, bere hiru semeac, *Sem*,



Kham eta *Japhet*, beren emaztekin, eta animale mota guzietarie pare bat. Jaincoac orduan arca hetsi zuen campoco aldetie, eta gero, berehala, lurra rengainerat jautsarazi zituen zeruetaco uhar-

rac. Berrogoi egunez eta berrogoi gauez, uria jautsahala haritu zuen; azkenecotz ura igan zen mendi gorenac baino puscaz gorago, eta jende guziac itho ziren, arcan zirenac salbu.

Iracaspena. — Nola *arcan* zirenac baizic ez baitziren uhalde tic sa batu, hala ez direifer nutic salbatuco *Eli-zan* direnac baizic.

ICHTORIOA

Noe eta usoa

Ehun eta berrogoi eta hamar egunen buruan, hasi ziren urac behititzen. Noec Arcaco leihoa ideki zuen, eta bele bat camporat igorri; bainan ez zen belea gibelat itzuli. Handic zazpi egunen buruan uso bat igorri zuen, jakiteco lurra oraino urez estalia othe zen. Usoa, ezin atzemanez zangoaren ezartzeco leihorric, itzuli zen arcarat. Bertze zazpi egun iguricatu ondoan, Noec berritz ere airetan utzi zuen usoa; eta ethorri zitzaion arrats irian, olio-arbol a aldachca bat, hosto hezez bethea, mocoan. Hortaric ezagutu zuen Noec, urac lehengo heinerat aphalduac zitzakela. Berritz ere, zazpi egunen buruan, usoa camporat eman zuen, bainan aldi huntan ez zen gehiago ethorri. Orduan Noec arca ideki zuen gainetic, eta icusiric lurra idortua zela, athera zen bere familiarekin, eta atherarazi zituen han ziren animale guziac.

16. *Zer egin zuen Jaincoac uhalde izigarri horren ondotic?*

Jaincoa, uhalde izigarri horren ondotic, agertu zitzaion Noeri; zeruan iracutsi zion hortz-adar bat, eta erran: « Adichkide jartzen nauc hirekin eta hire ethorkiarekin; ez duc gehiago uhalderic izanen gizonen galtzeco. Hortz-adar hau zeruan icusten duzuenean, orhoit zaitezte zuekilaco ene adichkidantzaz. »

Uhaldearen ondotic jendea ez zen aintcinean bezen luze bizi izan. Adam bizi izan zen 930 urthe; adinic handi na jo izan duen gizona, Mathusalen, bizi izan zen 969 urthe. Noe 950 urthetan hil zen. Bainan geroztic laburtuz gan zen gizonaren bizia, eta laster jautsi zen orai irauten duen heintsuraino.

HITORIOA

Khamen ethorkia madaricatu da

Noe bazituen hiru seme : Sem, Kham eta Japhet. Lur laneri emana, mahastia landatu zuen, eta arnoa egin. Edan ere zuen ausarki, ez zakielacotz oraino arnoaren indarra-
ren berri. Hala uste gabea mocheorturie, casie biluza etzin zen eta lokhartu. Khamec icusi zuen nola zagon, eta hartaz trufatzeco, gan zen bere anaien bilha ; bainan hauc, irri eta trufa egiteco orle, gibelca ganie, capa batekin estali zuten beren aita. Noe, atzarri zenean, jakinie zer egin zioten bere haurrec, madaricatu zuen Khamen ethorkia ; Sem eta Japhet al liz bene licatu zituen.

17. Uhaldearen ondotic, gizonec hobeki obeditu othe zioten Jaincoari ?

Hastetic bai ; Noeren ondocoac, uhaldetic salbatu zituen Jaincoari eskerrac bihurtu nahiz, haren legeari jarraiki ziren. Bainan gero, gaztigu



izigarri hura ahanztirie, zer nahi tzarkerietan pulmpatu ziren. Gehiago dena, elgarretarie urrun munduaren lau bazterretarat gan baino lehen, be-

ren urguilu zoroan, *gu zer gare* iracusteco, nahi izan zituzten egin hiri handi bat, eta dorre bat, zerua bezen gora altchatuco zena. Jaincoac gazingatu zituen, hekien mintzaira osoki nahasiz, eta ez zuten gehiago elgar aditu ahal izan. Orduan barraiatu ziren escualde guzietarat, beren lana hala hala acabatu gabe utzirik. Dorre hura izendatua izan zen *Babel*, erran nahi da *nahasmen-dua*. Bainan horieci guziac hola, ez ziren gizonac Jaincoaren ganat itzuli; aitzitik, hasi ziren harritzco eta zurezco Jainco orde batzuen adoratzeko, eta bilhacatu ziren uhalde aintzineco jendeac bezen tzar.

18. *Ahantzi zuten beraz egiazco erlisionea?*

Bai berritz ere, uhalde aintzinean bezala, guzieci ahantzi zuten egiazco erlisionea. Hargatic, Jaincoac ez zuen nahi izan erlisionea osoki galzadien munduan.

BIGARREN ZATIA

Jaincoac Abraham bere populuaren aintzindaritzat hautatu zuenetic, eta populu hura Ejiptoco lurretaric athera zen arteraino.

(500 urtheren heina).

1. *Zer egin zuen Jaincoac egiazco erlisionea munduan biziric atchikitzeco?*

Jaincoac, mundu deboilatuaren erdian egiazco erlisionea biziric atchikitzeco, populu bat hautatu zuen bere populutzat; eta bertze nazione guziataric berech ezarri zuen, nahiz eta populu harrec bederen ahantzi gabe begira zetzan, bai Salbatzailearen agintza, bai Adamec Jaincoaren beraren ganic icasi zituen, eta bere ondocoeri utzi ziozcaten erlisionecc egia.

2. *Nor izan zen populu harren aita?*

Populu harren aita izan zen *Abraham*, gizon zuzen eta Jaincotiarra, Sem Noeren semearen ethorkitic sortua. Jaincoac bere adichkidetzat hartu zuen Abraham, eta erran zion: « Utzatzic
« hire sor-lecua eta hire aitaren etchea, eta athor
« nie iracutsico daroiatan tokirat; populu handi
« baten aita izanen haiz; eta lurreco nazione gu-
« ziac benedicatuac izanen dituc hire ethorkitic
« sortuco denaren baithan. »

Iracaspena. — Nola Jaincoa Abrahamen adichkide egin baitzen, hala da gure adichkide egin Jesu-Christoren bidez. Eta nola Abrahamec ondoco hainitz eta hainitz izan baitzuen, hala Jesusen haurrac, giristinoac, osteca dire mundu guzian

3. *Zoin escualdetara gan zen Abraham?*

Jaincoaren manuaren arabera, Abrahamec utzi

zuen bere sor lecuia, eta gan zen *Khanaango* es-
cualdera. *Lur saindua* deitzen dugu orai escualde
hura. Han Jaincoa berritz agertu zitzaion, eta hitz-
eman zion inguru hetaco eremu guziac emanen
ziozcatela haren ondocoeri; hitzeman zion ere
haren ethorkitic sortuco zela munduaren salba-
tzailea, zoinari esker lurreco nazione guziec, luzez
gal-bidetan ibili ondoan, egun batez itzuli behar
baitzuten egiazco Jaincoaren ganat, eta sartu ze-
ruco bidean.

4. *Adami bezala, Jaincoac Abrahami ere gal-
detu othe zion bere amodioaren eta obedientziaren
zerbeit froga berezi?*

Bai segurki, eta huna zer : Jaincoac Abrahami
manatu zion, berac, Jaincoaren ohoretan, *Isaac*
bere seme bakharra hil zezan. Abrahamec ez zuen
den gutieneco dudacic izan; bainan, bihotza er-
diratua bere semearen sacrificatzerat zohalaric,
Jaincoac adiarazi zion aski zitzaiola obeditzeco
iracusten zuen lehia khartsua.

ICHTORIOA

Abrahamen sacrificioa

Abrahamec, Jaincoac manatua egiteco, deitzen du Isaac
bere semea, eta bizcarrean emaiten dio sacrificioco behar
den egurra. Berac hartzen ditu sua eta espata, eta bidean
abiatzen dire mendia gora. Badohatzilaric, Isaakec errai-
ten dio bere aitari : « Aita, huna egurra eta sua, bainan
non dugu sacrificioarentzat behar den bictima (1. »

« Ene haurra, Jaincoac emanen du behar dena, « ihar-
desten dio Abrahamec. » Heltzen denean Jaincoac iracutsi
tokirat, Abrahamec, aldare bat eginic, han emaiten du
egurra, gero semea lotzen du eta ezartzen egurraren gai-
nean. Isaaken hiltzeco hartzen du ezpata, eta colpearen

(1) Bictimac deitzen ziren Jaincoari sacrificiotzat escaintzen edo ofrei-
tzen zitzaizcon gauzac, bereziki haren ohoretan hil behar ziren gauza
biziac, nola baitie bildotchac, migac, ahuntchac eta gaineratecoac.

emaiteco besoa hedatzen Baiman huna non Jaincoaren aingeru batec oihu egiten dion zerutic : « Abraham, Abraham!! » Abrahamec ihardesten du : « Hemen naiz. » Eta aingeruac orduan : « Ez zazula haur hori uki; ez zozula den gutieneco minic egin; ezen badakit orai Jaincoaren beldurra baduzula, Jaincoari atsegin egiteco zure semeaz gabetzera zinohacinaz geroz. » Abrahamec begiac altchatzen ditu, eta bere gibelcan icusten du ahari bat, elhorri batzuetan adarretaric lotua. Ahari hura hartzen du, eta bere Semearen orde, Jaincoaren ohoratzeco, aldare gainean hiltzen du eta erretzen.

Iracaspena. — Isaakec, hil eta erre behar zuen tokirat, berac eremian zuen erretzeco egurra; halaber Jesu-Christo gure Jaunac bere gurutzea garraiatu du Galbarioco bidean.

5. Zoin izan ziren Abrahamen ondocoac?

Isaac, Abrahamen semeac, emaztetzat hartu zuen *Rebecca*, eta izan zituen bi seme : *Esau* eta *Jacob*. Jaincoac Jacob izendatu zuen *Israel*, eta eman ziozcan hamabi haur. Hauc deitzen dire hamabi *patriarcac*, izan zirelacotz Israeldar populuaren lehen aitac, eta hamabi *tribuen* buruzagiac. Israeldar populuan, alainan bada, egin ziren hamabi *tribu* edo jende-aralde; eta tribu bacotchac hartu zuen patriarca baten izena. Huna hamabi patriarken izenac : *Ruben, Simeon, Levi, Juda, Isakhar, Zabulon, Dan, Nephtali, Gad, Azer, Joseph* eta *Benjamin*.


6. Nola bizi ziren patriarcac?

Patriarkec bizi arrunt bat zaramaten, nekhatzaile bizi bat. Bazituzten artalde handiac, eta hekien alhatceco bazohatzin orai hunat, gero harat, nihon aldera gelditu gabe. Jaincoac benedictzen zuen hekien lana, zeren baitziren haren nahiari jarraikiac; eta iragaiten ziren toki guzietaco jendec, ala chehec ala larriec, begi onez icusten zituzten.

ICHTORIOA

Joseph saltzen dute bere anaiee

Jacobee bertze seme guziac baino maiteago zuen Joseph; anaiee aldiz, aitaac hala maite zuelacotz, higuin zuten, eta harrentzat ez zuten solas garratzic baizic. Gertatu ere zitzaiou Josephi, egin zuen amets baten bere anaieri erraitea, eta horree are gehiago sumindu zuen hekien herra. Erran zioten beraz : « Iduri zitzaitan phal lotzen hari ginelanda batean; ene phala alchaturic chutic zagon, eta zuenac macurturic etzinac nerearen aintzinean. » Anaiee ihardetsi zioten : « Gure erregea izanen othe haiz bada? hire azpico behar othe diagu? » Bertze amets bat ere erran zioten. Huna zer : « Iduritu zait icusten nituela iguzkia, hilargia, eta hameca izar nere adorutzen. » Aitaac gaizki hartu zion hori, eta erran : « Zer dioke amets hori? Nie eta zure amac, eta zure anaiee, adonatu behar zaitugula? » Egun batez, bertze haurrac artaldearen al-



hatzerat urrun ganac zituelaric, Jacobee erran zion Josephi. « Zohazi zure anaien icusterat, eta ekhar dazkidatzu hekien berriac » Joseph berehala bideari eman zen. Anaiee, urrundanic icus'ric, egin zuten beren artean : « Huna non heldu zaicun gure amets-egilea; hil dezagun eta zipu (1) handi batetarat artic; erranen dugu gero zerbeit basa ihizic jan duela, eta icusico du orduan zer baliatuco zaizcon bere ametsac. »

(1) Putzua edo ur biltzeco ziloa.

Bizkitartean Ruben, anaia zaharrena, Joseph bertzen escuetarie athera nahiz hari zen, gero aitari bihurtzeco esperantzan, eta erraiten zioten : « Ez zazuela hil, ez zazuela haren odolic ichur, bainan bizirie artic zazue horteco zipu hortarat, eta atchie zatzue zuen escuac garbi. » Oro Rubenen erranerat erori ziren, eta Joseph hetarat heldu izan zen bezen sarri, gaineco soinecoac khenduric, zipurat jautsi zuten. Handic laster ethorri ziren Ismaeldar tratulari batzu, Ejiptorat zohatzinac. Judac erran zioten bere anaieri : « Hobe dugu Joseph gizon hoiki salduric; gure anaia da, gure odol berecoa. » Saldu zuten beraz hogoi diru pusketan, eta Ismaeldarrec ereman zuten Ejiptorat. Arte hartan Jacoberen haurrec hartu zuten Josephen soinecoa, eta pittica baten odolean sartu ondoan, aitari igorri zioten, erranarazten ziotelarie : « Soineco hau atzeman dugu, icus zazu ez othe den zure semearena. » Bai hala zen; Jacobec ez igutu zuen, eta, ustez semea hila zuen, hainitz dembora nigarretan bizi izan zen.

Iracaspena. — Nola Joseph saldu baitzuten bere anaiee, hala Jesus Jauna saldu zuen Judas bere Apostoluac, erran ditake bere anaia.

7. Jacob, bere semekin, beti Khanaango lurretan egon zen-a?

Ez Jacob, bere semekin, ez zen beti Khanaango lurretan egon. Gosete handi batec bortchatu ziotuen Ejiptorat gatera, eta geroztic han fincatu zuten beren egoitza.

ICHTORIA

Josephec salbatcen ditu Ejiptoco populua eta bere familia

Bazuen jadanic urthe multchu bat Joseph Ejiptoan zela. Ismaeldar tratulariee saldu zuten Ejiptoco harmadaren aintzindari, *Putiphar* deitzen zen bati. Putipharec, icusirie Jaincoa Josephekin zela, bere etche guzia harren gain utzi zuen. Putipharen emazteari aldiz prestuegi zitzaion, ez ziolacotz gaizki ziren gauzetan obeditu nahi. Egun batez beraz, bere senharrari gezurrez sinhetsarazi zion, Joseph behar ez zen urratsetan ibili zela. Putipharec preso harrazazi zuen. Handic laster presondegi berean emanac izan ziren bi gizon, batec erregearen mahaineco ogiaz, eta bertzeac arnoaz artha hartzen ohi zutenac. Eta Josephec bere bi laguneri erran zioten, zer gertatuco zitzaioten; ogi arthatzaileari erran zion, hilarazico zutela, eta arno arthatzaileari, erregeac barkhatuco ziola. Hare erran bezala

gertatu zen. Handic bi urtheren buruan, erregeac egin zuen amets bat, nihore churi ez zezakena. Ustez ur handiaren hegian zagolaric, icusi zituen uretic atheratzen zazpi behi gizen eta eder, eta hekien ondotic bertze zazpi itsusi eta mehe acabatu; eta mehec gizenac iretsi zituzten. Arno arthatzaileac erregeri erraiten dio, nola preson-



degian Josephec ethorkizuna ezagutarazi zioten; erregeac ekharrarazten du, eta huna Josephec zer argitasun emaiten dion bere ametsaz : « Zazpi urthez zer nahi ekharrico dute Ejiptoco lurrec, eta bertze zazpi urthez deus ; gosateac orduan bazter guziac chahutuco ditu. Josephen sariztatzeco, erregeac, bere erheztuna emanic, beraren ondotic lehen ezarri zuen erresuma guzico, eta harren gain utzi zuen lehen zazpi urthetan ahal bezembat bihiren biltzea. bihi hartaz jendearen hazteco urthe tcharretan. Josephec erran bezala gertatu ziren guziac : zazpi urthe nasaien ondotic gosetea hedatu zen Khanaango escualdetaraino. Orduan gan zen Jacob bere semekin Ejiptorat bihi-ketara. Josephec ezagutu zituen ; bihotz onez barkhatu zioten bere anaieri, eta familia guzia dohainez gainditu ondoan, eman ziozcan, han egoiteco, Jessen aldeco lurrac. Han bizi izan zen Jacob hil artio.

Iracaspenac. — Josephec, gosete demboran, biziarazi zituen Ejiptoarrac, biziarazi han gaizki ibili zuten bere anaiac. Halaber Jesus Jaunac, gurutzean hilez, bizitze eternala ardietsi diote gizon guziari, Juduac berac barne, gurutzeari itzatu zuten Juduac.

8. *Zer gertatuco zela erran zuen Jacobec, hil baino lehen?*

Hiltzera zohalaric, Jacobec bere ondorat bildu zituen bere haur guziac : bakharca benedicatu zituen, eta gero erran zioten, egun batez Jaincoac segur berritz eremanen zituela beren arbasoen tokietarat ; erran zioten oraino, Juda izanen zela anaia guzietaric aiphatuena. Judaren ariaz, Khanaango herriac hartu behar zuen egungo egunean oraino dakharken izena : *Judea* ; Judaren ariaz, Israeldar jendeac deituac izan behar ziren egun batez *Juduac*. Jacobec, Juda benedicatzen zuelaric, erran zion zoin ethorki loriosa izanen zuen, erran zion haren ethorkitie sortuoc zela munduaren Salbatzailea.

9. *Jacob hil eta, zer egin zuen haren familiac?*

Jacob hil eta, hainitz emendatu zen haren familia ; bilhacatu zen populu handi bat Ejiptoarren erdian. Populu hura atchikia egon zen patriarken sinhesteari ; agerian zerbitzatzen zuen Ejiptoarrec ezagutzen ez zuten Abrahamen, Isaaken eta Jacoben Jaincoa. Joseph hil zenean, bertze errege bat zen Ejiptoan ; hunec acholaric ez zuen Josephec eginicaco ongiaz, eta hasi zen behar zituela Israeldarrac suntsitu.

ICTORIA

Moïse ithotzetic begiratua

Jacoben ethorkiaren suntsitzeco, errege berriac manatu zuen, *Nil* deitua zen ur handirat artikitzei sortzen ziren Israeldar muthico guziac. Leviren tribuco emazte batec gorde ahal izan zuen bere semea hiru hilabetez ; baina beldurturic, azkenean atzemanen ziotela haur ihizin zabil-tzan Ejiptoarrec, ihizco saskitto batean ezarriric, ereman zuen ur hegirat, eta han canaberen artean utzi. Handic hurbil egon zen haurraren arreba, jakiteco zer gertatuco

zen. Bada, nola erregeren alaba heldu baitzen ur handian mainatzera, saskittoa icusi zuen, ideki, eta haur ttikia nigarrez baitzagon, urricaldtu zitzaion. Hurbildu zen orduan haurraren arreba, eta erran zion erregeren alabari : « Nahi baduzu, ekharrarazico dautzut haur horrentzat « Israeldar amaño bat. » « Bai, zohazi bilha », dio ihardesten errege alabac. Nechca badoha, eta ekharrarazten du bere ama. Eta errege alabac erraiten dio amari : « Har « zazu haur hau eta haz, emanen dautzut beharco dena. » Haur hura bere seme ordetzat atchiki zuen errege alabac, eta izendatu zuen *Moise*, erran nahi da *uretic salbatua*. *Moise*, handitu zenean, erregeren gortean bizi izatu zen, bainan ez luzez. Icusten zituen Israeldar bere anaiac laidoztatuac, joac, lehertuac ; aditzen zituen hekien auhenac, aditzen Jaincoari, Ejiptoarren escuetarie libratuac izaiteco egiten ziozeaten othoitz khartsuac. *Moise* hazcarki jazarri zen bere anaien alde, eta ihesi gan behar izan zuen morturat.

10. *Nola salbatuac izan ziren Israeldarrac?*

Jaincoa agertu zitzaion Moisi, eta erran zion : « Oha erregeren ganat, eta erroc utz dezan ene populua Ejiptotic atheratzera. » Bainan errege ez zuen holacoric aditzen. Moise orduan Ejiptoan jo zuen *Ejiptoco hamar zauriac* deituac diren hamar zigorrada izigarritz. Errege ikharatu zen, eta utzi zituen Israeldarrac gatera.

ICHTORIOA

Bazcoa

Hamargarren zigor-aldiaz Ejiptoarrac jo baino lehen, Moise Jaincoaren manuz erran zioten Israeldarrerri : « Zuetarie bacotchac har beza urtheco bildotch bat, tatcha-
« ric gabecoa, eta hil arrats irian. Haren odolarekin busti
« zatzue zuen etchetaco atheac. Gero, chutic, gerria lotua,
« ometacoac zangoetan eta makila bat escuan, janen du-
« zue bildotcharen haragia.

« Ahalic lasterrena hartuco duzue janari hori, *Bazcoa*
« delacotz, erran nahi da *Jaincoaren iragaitea*. » Zerutic manatuac egin zituzten Israeldarrec. Gau erditsutan, Jaincoaren aingeruac hil zituen Ejiptoarren muthico zaharren guziac ; nihori ez zioten barkhatu, salbo beren athetan bildotcharen odola zuten etchetaco jenderi. Hori izan zen hamargarren zigorrada edo zauria. Orduan errege, ikharaturic, utzi zituen *Moise* eta Israeldar populua Ejiptotic atheratzera.

11. *Zer gertatu zitzaioten Israeldarrerri, Ejiptotic athera zireneco?*

Ejiptoco erregea laster urrikitu zen Israeldar-
rac urruntzera utziric, eta abiatu zitzaioten on-
dotic, harmada handi batekin. Israeldarrac *itsaso*
gorriaren hegirat helduac ziren. Moisee, Jaincoa-
ren manuz, escua hedatzen du, eta itsasoco ura
urratuz bezala idekitzen da, eta urezco bi pareten
erdian, Israeldarrac leihorrez badohatzi bertze
alderaino. Ejiptoarrac ere sartzen dire bide be-
rean; bainan Moisee berritz ere escua hedatzen
du, eta bi aldetaric ura biltzen da, bateratzen,



eta Ejiptoar guziac urpean ehortziac dire. Israel-
darrec, zuzen zen bezala, Jaincoa laudatu zuten
eta benedicatu, cantaz eskerrac bihurtu ziozcaten.

Iracuspina — Israeldarrac Ejiptoarren esclabo ziren
bezala. Satanen e clabo egiten gaitu bekatuac. Moisee
Israeldarrac Ejiptotic libratu z-tuen bezala, Jesu-Christo
gizon guziac bekhatutic ditu libratu; eta nola Ejipto-
r guziac itho baitziren itsaso gorriaco urean, hala bathaio
urean, erran behar bada, ithotcen dire bekhatu guziac.

HIRUGARREN ZATIA

Jaincoaren populua Ejiptoco lurretaric athera zenetic, eta erregeac buruzagitzat izan zituen arteraino.

(420 urtheren heina)

1. *Zertaco Israeldarrac athera ziren Ejiptotic?*

Bi chedez athera ziren Israeldarrac Ejiptotic : lehembizicoric, hambat pairarazten zioten Ejiptoarren azpico gehiago ez egoiteco ; bigarrenecoric, Jaincoac Abrahami, Isaaki, Jacobi eta hunen ethorkiari hitzeman zioten Khanaango herrirat gateco, eta hartaz jabetzeco.

ICTORIA

Job Saindua

Beraz, Israeldarrac bertze populu guzietaric berech bizi ziren; hec bakharric zuten egiazco erlisioneac begiratu. Bertze populu guziec jainco faltsoac, urhezco, harrizeco edo zurezco jaincoac zituzten adoratzten; osoki deboilatuae eta galduac ziren. Han hemenca bizkitartean, populu itsutu eta galdu hekien artean ere, jende banaca batzuec egiazco Jaincoa ezagutzen zuten eta zerbitzatzten; hala nola Job sainduac. Job *Idumean* Hec escualdean bizi zen. Jaincoaren beldurra bazacarken bihotzean; gaizkiric ez zuen egiten, eta etsemoluric hoberena ematen zioten bere zuzen seme eta hiru alaberi. Hainitz aberatsa zen, eta alde hetao jende guziec jaun handi bezala zuten ohoratzen. Joben bertutearen frogatzeco, Jaincoac utzi zion debruari gizon saindu harren jotzeco escua. Egun batez beraz, Jobec galdu zituen bere ontasun guziac, eta egun hartan berean haur guziac, beren etcheac gainerat eroriric, lehertu zitzaizcon eta hil. Desmasia horiec jakin zituenean, Job ahnspez eman zen Jaincoaren oinetan, ziolaric : « Guziac Jaincoac eman nituen, Jaincoac dauzkit guziac ereman; bene- » dicatua izan bedi Jaincoaren izen saindua. » Ontasun bat bizkitartean gelditzen zutzaion oraino; osasuna. Bai-

nan zauri izigarri batec oinetarie buru gorphutz guzia hartu zion, eta bizi zen ongarriaren gainean etzina. Orduan bere alichkideac eta bere emaztea bera trufatzen zitzaiz on; irriz zagozkion haren pazientziari eta Jaincoaren baithan zuen fidantziari. Bainan Jobec ichilarazten zituen, erranez: « Guziac Jaincoaren ganic heldu dire; « Jaincoac eman ontasunac gogotic hartzen ditugu; zer- « taco ez ditugu hartu behar igorri nahi dauskigun gai- « tzac? » Horra zer humiltasun eta pazientziarekin onhartzen zuen Jobec Jaincoaren nahia. Azkenean Jaincoa urricaldtu zen bere zerbitzariaz, eta eman ziozcan osasuna, umeac eta lehen baino bi aldi: ontasun gehiago.

Iracaspena. — Joben ichtorioac iracasten daucu behar dela, zer nahi gerta, Jaincoa zerbitzatu; iracasten daucu Jaincoac gaitzac eta atsegabeac igortzen daukigula, gure bertutearen sustatzeco, eta gero gure sarizatzeeco.

2. *Zer gertatu zitzaioten Israeldarrereri, Jaincoac agindu herrirat zohatzilaric?*

Itsaso gorritic iragan ondoan, Israeldarrac, Moise aintzindari, abiatu ziren Khanaango herri alderat, mortuan barna. Jaincoac, aita on batec bezala, hetaz artha zuen. Bidearen iracusteco, hedoi iduri bat igorri zioten, beti hekien aintzinean zabilana, egunaz ilhun eta gauaz argi-argia; goiz guziez zerutic erortzen zitzaioten *mana* deitzen zen hazcurri bat, ahotic ezin utzia; Moise, ur escasia zutelacotz, harroca bat jo zuen bere makilarekin, eta ura ethorri zen ausarki.

3. *Jaincoac ez zion-a lege berezi bat eman bere populuari?*

Bai Jaincoac lege berezi bat eman zion bere populuari. *Sinaco* mendian, chimichta chimichtaren gainean hari zelarie, eta ihurtzuria ihurtzuriaren gainean, Jaincoac harrizco bi mahainen gainean iscribatu zituen hamar manamendu. Bertalde Moisi ezagutarazi ziozcan Jaincoac, Jesu-

Christo gure Jauna ethorri arteraino Israelgo populuac segitu behar zituen legeac.



4. *Jaincoac Moisi eman zion legean, baten beraz manamendu aralde bat baino gehiago?*

Bai, Jaincoac Moisi Sinaco mendian eman zion legean baziren bi manamendu aralde : alde batetik, harrizco bi mahainetan iscribatuac ziren hamar manamenduac ; bertze aldetik, Israeldarrec Jaincoaren agerian ohoratzeco segitu behar zituztenac.

5. *Zoin dire harrizco mahainetaco hamar manamenduac?*

Huna Jaincoaren hamar manamendu hec :

1. Ez duzu nitaz bertze Jaincoric adoratuco.
2. Ez duzu Jaincoaren izena beharrie gabe aiphatuco.
3. Jaunaren eguna begiratuco duzu sainduki.

4. Aita amac ohoratuco ditutzu, bizi zaiten luzeki.

5. Ez duzu nihor hilen.

6. Ez duzu bertzen emazteric gaizki bilhatuco.

7. Ez duzu ohointzaric eginen.

8. Ez duzu lagunaren contra lecucotasunic emanen gezurrez.

9. Ez duzu bertzen emazteric gutiziatuco.

10. Ez duzu zuzenic gabe bertzen etcheric, idiric, astoric, ez berze deusic gutiziatuco.

6. *Zeregin behar izan zuten Israeldarrec, Jaincoaren agerian ohoratzeco?*

Jaincoac Israeldarrereri iracatsi ziozcaten eta manatu, harren ohoratzeco egin beharco zituzten zeremoniac. Eginarazi zuen *Tabernaclea*; establitu zituen *sacrifizioac* eta besta multchu bat.

7. *Zer zen Tabernaclea?*

Tabernaclea zen bizcarca ibil zitaken etchetto bat, hainitz aberaski berregindua. Gainetic behe-



reraino jausten zen oihal eder batec bi barne egiten ziozcan. Lehembizico barnea deitua zen : *Toki saindua*; bigarrena, *Sainduen saindua*. Sainduen sainduan aurkitzen zen *alien-tziaco* (adichkidetasuneco) *arca*. Hura zen cutcha aberats bat dena urhe; eta cutcha hartan ezarriac ziren Jaincoaren legea zakharcaten harrizco bi mahainac, eta untzi bat manaz bethea.

8. *Zer ziren sacrificzioac?*

Sacrifizioac ziren Jaincoari egiten zitzaizcon escaintzac edo emaitzac. Escaintzen zitzaizcon

bai fruituac, bai animaleac; animaleac hiltzen ziren, eta aldare gainean erretzen.

Iracaspena. — Lege zaharreco sacrificio guziac ez ziren Jesus Jaunac, gurutzean, bere buruaz egin duen sacrificioaren seinaleac baizic

9. *Zoin ziren Israeldarrentzat erlisioneeco besta handienac?*

Israeldarrec bazituzten urthean erlisioneeco lau besta handi : *Bazco*, Ejiptoarren escuetaric nola libratuac izan ziren orhoitarazteco;

Mendecoste, nola Sinaco mendiaren gainean Jaincoac bere legea eman zioten orhoitarazteco;

Tabernaclen besta, orhoitarazteco nola Israelgo populuac mortuan tabernacleac (1) zituen egoitzatzat;

Penitentziazco besta, populuac egin huts guziez barkhamendu galdetzeco;

Bertzalde, aste bacotchean, Israeldarrec *Sabataren* eguna (gure igandea) begiratu behar zuten, eta sailduki iragan.

10. *Zoin aphezec egin behar zituzten Israel-darren zeremoniac?*

Israeldarren zeremoniac egin behar zituzten aphez guziac *Leviren tributic* ziren. Jaincoac berac hautatu zituen. Lehembizico aphez handia edo nausia izan zen *Aaron*.

Iracaspena. — Gristinoen bilcura deitzen da *Eliza*; Israeldarren Eliza deitzen zen *Sinagoga*.

11. *Zer egin zuten Israeldarrec, Moisece ekharri ziotenean Jaincoac eman legea?*

Moisece ekharri ziotenean legea Jaincoaren ga-

(1) Tabernacleac ziren, orai soldaduec gerlan dituzten bezalaco, oihalezco etche edo etchola ttiki batzu.

nic, Israeldarrec hitzeman zuten lege hura begiratuco zutela beren bizi guzian; eta gero berritz ere abiatu ziren Khanaango herriari buruz. Bainan maiz eta ardura, nahiz Jaincoac haimbertze miracuilu egiten zuen hekien onetan, erasiaca hari ziren, eta Jaincoari jazartzen zitzaizcon, ziotelaric : « Ez bagine bederen Ejiptotic athera ! » Jaincoa hasarretu zen hekien eskergabetasunaz, eta gaztigutzat eman zioten, mortuan berrogoi urthez itzulica ibiltzea, agindua zioten Khanaango lurrean sartu baino lehen.

Iracaspena. — Israeldarrerri Khanaango lurra agindu zioten bezala, Jaincoac zerua agintzen diote giristino on guzieri, eta nola Israeldarrac mortuan ibili baitziren, hala gue ere ibili behar dugu mundu biguin huntan barna, zerurat, gure egon lecu gochorat, heldu baino lehen.

ICHTORIOA

Heren-Sugea

Behin, Israeldarren gaztigatzeco, Jaincoac igorri zioten sugez leher; suge heien asikiec erretzen zuten, eta hainitz jende hiltzen zen oinazeric minenen erdian. Populua bildu zen orduan Moisen gana, eta erran zion : « Hobe bendun gare Jaincoaren eta zure aldera; othoitz zazu Jaincoa suge hautaric libra gaitzan. » Othoitz egin zuen Moise; gero, Jaincoaren manuz, heren suge bat ezarri zuen haga baten puntan, eta suge harri behatzen zioten guziac sendatzen ziren.

Iracaspena. — Heren-sugea hagaren puntan bezala, izan da Jesus Jauna gurutzearen gainean alchatua. Norc ere fede bizi batekin eta amodiorekin behatzen baitio Jesus gurutzeficatuari, eta harri sendatzen zaizco arimaco gaitzac, debruac eginicaco asikiac.

12. Noiz hil izan zen Moise?

Moise ehun eta hogoi urthetan hil izan zen, Khanaango lurrean sartu ahal izan gabe. Zorion hortaz gabetua izan zen, Jaincoaren hitzaren gainean behin fede escas bat izan zuelacotz. Hil baino lehen Moise, Jaincoaren nahiaren berri jakinic, bere ondocotzat hautatu zuen Josue.

13. *Zer egin zuen Josuec?*

Josue Moisen ondorio jarri zenean, acabatzera zohan Israeldarrec mortuan egin behar zuten berrogoi urtheren penitentzia. Jaincoac Josueri eman zion Khanaango lurraren escuratzeco baia, eta lan hortan lagundu zuen zer nahi miracuiluz : behin, Israelgo populua *Jourdaine*co ibaiaren alde batetic bertzera gan zen zangoric busti gabe ; bertze behin, etsaiac beren ustez osoki gerizan eta segurean zagotzilarie *Jericoco* hirian, hiri hartaco paretac, oihuca eta trompeta soinuuz, leherrarazi zituzten Josueren soldaduec, eta hirian alde guzietarie sartu ziren errechki ; bertze behin oraino, Josuec iguzkia geldiarazi zuen, erran nahi da, Josueren othoitza entzunic, Jaincoac eguna luzatu zuela Israeldarrec beren etsaiac suntsitu arterainocoan. Dembora laburren barnean, Israeldarrae jabetu ziren Jaincoac agindu



Khanaango escualde guziaz. Erran dugu jadanie Israelgo populuaren bazirela hamabi tribu edo jendearalde, guziac Jacoberen ethorkitic zirenac. Hamabi tribu hekieri zatitu zioten Josuec Khanaango herria. Hil izan zen ehun eta hamar urthetan, populuari juramentu eginarazi ondoan, beti jarraikico zela Jaincoaren legeari.

14. *Josue hil eta, zoin buruzagi izan zituzten Israeldarrec?*

Josue hil eta, ez zioten Jaincoac Israeldarrereri buruzagirik eman; bera izan zen bere populuaren buruzagi. Jaincoaren nahia egiten zuten bada Israeldarrec, Jaincoac bereziki laguntzen zituen eta ontasunez gainditzen. Hala hala Jaincoaren ganie urruntzen zirenean, Jaincoac ere ez zituen gehiago laguntzen, eta etsaieci garhaitzen zituzten eta beren azpico ezartzen. Bainan urrikitzen zirenean, barkhamendu galdetzen zutenean, Jaincoac berritz ere urricari izaiten zituen, eta norbeiti emaiten zion etsaien escutic hekien libratzeco lehia eta indarra. Israelgo populuaren libratzaile edo salbatzaile hec deitzen dire *jujeac*. Izan zen asco juje; aiphatuenac dire: *Gedeon, Jephthe, Santson, Heli eta Samuel*. Samuelec, populuac othoizturic, gantzutu zuen eta contsecratu *Saul*, Israelgo lehen erregea.

ICTORIA

Santson

Israelgo populua, Jaincoaren manuac hantsiric, *Philistindarren* azpico eta meneco zen. Santson hasi zen bere populua libratu nahiz. Izigarri hazearra zen. Hemezortzi urthetan, escuan phitsic gabe, jocatzen zitzaion lehoin gazte bati lotu zitzaion, eta zaticatu zuen. Gerochago, nola etsaieci hiri batean hetsi baitzuten, hiri hartaco atheac bizcarrean harturic beren burdineriarekin, ereman zituen mendi casco batetara; bertze behin, asto matraila batekin

hil zituen mila Philistindar. Nihore ez zakien nondie heldu zitzaion haimbertzetarainoco indarra. Bainan berac egun batez erran zion *Dalila* deitzen zen emazteki bati, ileac picatzen balin-baziozcaten, ez zuela bertzec baino indar gehiago izanen. Emazteki harrec enganatu zuen eta saldu Santson; lo zigolarie, ileac picatu ziozcan, eta etsaiez harrarazi zuen. Philistindarrec begiac lehertu ziozcaten, eta burdin gathez loturic eman zuten preso. Ileac luzatzearekin, indarrac ere berretcen hari zitzaizcon Santsoni. Egun batez, besta handi bat bazuten Philistindarrec, *Dagon* beren jainco faltsoaren ohoretan. Trufatzeco, ekharraraz-



ten dute Santson beren templorat. Baziren han hiru mila arima, gizon eta emazte. Santson itsua zelacotz, haur batec zabilcan escotie; haur harri erraiten dio, ereman dezan temploa chutic zaucaten bi pilarren erdirat. Harat denean, Jaincoa othoizten du, galdetzen dio lehengo indar bera, eta gero, pilarrerri loturic, egin-ahala iharrosten ditu. Temploa lurrera badoha, eta bere azpian lehertzen ditu Philistindar guziac, eta Santson era ere heiekin.



LAUGARREN ZATIA

Jaincoaren populuac erregeac buruzagitza izan zituenetic eta Jesu-Christoren sortzeraino.

(1080 urtheren heina)

1. *Zoin izan ziren Israeldarren erregeric handienac?*

Israeldarren erregeric handienac izan ziren *Dabid* eta *Salomon*.

2. *Erran diezaguzu zer egin zuen Dabidec?*

Dabid Judaren tribuoa zen. Tribu hartaric, Jacoben erranaren arabera, sortu behar zuen Salbatzaileac Gauzaric aiphagarrienac egin zituen Dabidec. Hartu zuen Jerusalemeco hiria, eta harat eremanarazi *alientziaco arca*. Inguruetaco es-cualde guziez jabetu zen. Nahi izan zuen *Templo* bat egin Jaincoaren ohoretan; bainan Jaincoac garbiki erran zion, haren semeac egin beharra zela lan eder eta saindu hura. Erran zion ere, haren ethorkitic sortuco zela munduaren hastapenetic agindua zen Mesias edo Salbatzailea. Handic aintzina Israeldarrec Mesias deitu zuten: *Dabiden Seme Erregea*. Ez zen secular icusi Dabid bezen errege botheretsuric. Bainan, hoimbertz zorionenerdian, galdu zen, itsuskeria eta tzarkeria batzu egin zituen, eta Jaincoac gaztigatu zuen garrazki. Dabid urrikitu zen bere hutsez, eta zer nahi nigar hekientzat eginic, bihotza Jaincoarekin baketua hil izan zen hiruetan hogoi eta hameca urthetan. Dabidec eginac dire egungo egunean ere gure elizetan cantatzen diren *psalmu* gehienac.

ICTORIOA

Absalon

Huna -bere bekatuen gatic, Dabidec jasan behar izan zuen bihotz minic zorrotzena eta khiretsena : Absalon bere semea contra altchatu zitzaion. Haur eskergabe harrec harmada handi bat bildu zuen, bere aitari erregetasuna khendu nahiz. Aitac guducatu behar izan zuen bere semearen contra. Absalonen tropac chehacatu zituzten Dabiden tropec ; seme dohacabea ihesari eman zen. Bainan haitz baten azpitic iragaiten zelaric, buruco ile luzeac nolazpeit adarrerri lotu zitzaizcon ; azpian zuen mandoa aintzina gan zen, eta bera han iletaric dilindan gelditu. Norbeitec



ieusi zuen, eta ethorri zen Joab deitzen zen, Dabiden tropetaco aintzindari bati erraitera. Nahiz Dabidec debecatu zuen Absalonen hiltzea, Joabec bihotza erdiratu zion. Hori jakin zuenean, Dabid marrazcaz abitu zen, eta ez ziren berehalac an agortu haren nigarrac.

3. *Erran diezaguzu zer egin zuen Sa'omonec?*

Salomon Dabiden semea zen. Zuhurtzia berezi bat iracutsi zuen bere erresumaco harat-hunat guzietan ; bazuen lehia handi bat bacotchari bere zuzenaren emaiteco eta emanarazteco : Salomonec

egin zuen Dabidec egin gogo izan zuen temploa; lan hartan hiru ehun mila langile baino gehiago haritu ziren zazpi urthez. Acabatu zenean, jendea ihaurrica bildu zen alde guzietaric, eta Salomonec Jaincoari contsecratu zion templo miragarri hura. Othoitz eder luze bat egin zion Jaincoari, eta gero chutituric benedicatu zuen bere populua. Dabidec baino are zorion gehiago izan zuen Salomonec; bainan hunec ere bekatu handiac egin zituen, eta handiena, jainco faltsoen adoratzea. Jaincoac Salomonen gaztigatzeco, erran zion hura hil eta haren erresuma ez zela osoric geldituco, bainan izanen zela zatitua.

ICTORIOA

Nola hauzi bat churitu zuen Salomonec

Behin, etche berean zagotzin bi emazteki gan zitzaizcon Salomoni, eta batec erran zion: Baginuen bacotchac haur « bana; emazte huri hil zaio bere semea, eta lo mindagolaric ethorri zait, eta ene semea harturic, haren orde



« bere semearen gorphutza utzi daut. » Bertze emazteac ihardesten zuen : « Hori ez da egia ; nere haurra bizi da, « eta zurea da hila » Eta biac casaila gorrian hari ziren, eta lecucoric ez zen. Salomonec aditzen ditu bien erranac : gero, jakiteco zoinena zen haur bizi, ekhararazten du ez-pata bat, eta erraiten diote bere zerbituarieri : « Pica za-
« zue erditic haur bizi, eta erdi bana eman emazte ba-
« cotchari. »

Ama ez zenac dio orduan : « Bai, ongi hori ; parti deza-
« tela bien artean ; hala ez da ez batena, ez bertzearena
« izanen. » Bainan egiazco ama casicaldi-tchartzen da, eta nigarra begian erraiten d'o erregeri : « Jauna, ereman beza hunec haur bizi ; bainan, othoi, ez hil » Bazakien orai Salomonec jakin nahi zuena, eta erraiten du : « Emo-zue haur bizi emazte huri ; ezen hau da egiazco ama. » Israelgo populuaren artean laster hedatu zen gertacari horren berria, eta guziac miresten zuten, zer zuhurtzia handiaz Jainoac dohatu zuen Salomon, zuzenari bere bi-dearen emaiteco.

4. *Nola zatitua izan zen Salomonen erresuma ?*

Salomon hil eta laster, hamabi tributaric hamarrec ez zuten *Roboan* haren semea erregetzat nahi izatu, eta *Jeroboam* buruzagitza hautaturic, egin zuten berech *Israelgo erresuma*. Bertze bi tribuac aldiz, Judarena eta Benjaminena, egon ziren Roboamen azpico, eta egin zuten *Judaco erresuma*.

5. *Bi erresuma horietan zointaric sortu behar zuen Mesiasec ?*

Mesiasec sortu behar zuen Judaco erresumatic, Jacobec bere semeri hiltzeracoan erran ziotenaren arabera.

6. *Erran diezaguzu laburzki Israelgo eta Judaco erresumen ichtorioa.*

Judaco eta Israelgo erresumec, biac iraun zuten bat bertzearen aldean, Israelgoac 244 urthe, Judacoac 375 urthe. Nahiz Judaco erresuman ez ziren bi tribu baizic, Israelgoa baino hazcarra-

goa zen ; jende gehiago zuen, eta lurra ere hobeac zituen. Judaco hiri nausia zen *Jerusalem*, Israelgoa *Samaria*. Israelgo erregetasuna ez zen familia berean egon, bederatzi familiec ardietsi zuten aldizca ; Judaco errege guziac aldiz Dabiden familiatic izan ziren. Israelec ez zuen casic errege tzarrie baizic izan ; erresuma hori, Jainco egiazcoa ahanziric, zer nahi itsumendutan pulumpatu zen. Judaco erregetan aldiz izan zen asco jaincotiar, eta populua ez zen secular bide onetic osoki eta alde bat zeihartu. Judaco erregeric hoberenac izan ziren *Josaphat* eta *Ezechias* : Israelgo tzarrena *Achab*.

ICTORIA

Judithec bere populua libratzen du

Frangotan Judaco eta Israelgo erresumeri jazarri zitzaizcoten hauzoco nazioneac, eta calte hainitz egin zioten. Behin, *Holoferne* deitzen zen *Asiriarren* jeneral batec, setiatu zuen *Bethuliaco* hiria. Hirico jendeac, jatecoric ez izanez, hersturarie izigarrienean gertatzen ziren ; eta hitzeman zuten, baldin bortz egunen barnean laguntzaric heldu ez bazitzaioten, atheac idekico zituztela. Icusiric laguntzaric ez zela ageri, alarguntsa saindu bat, *Judith*, hiritic atheratu zen, eta, choil choila bere nescatoarekin, ganzen Holofernen soldaduen artera. Emazte ederra zen, eta ederki aphaindua. Soldaduec hartu zuten eta Holoferni ereman. Huni, Judithen solasetaric, iduritu zitzaion *Bethuliat*ic urrundua zela hango herstura ezin jasanez. Bertzalde gustatu zitzaion ; manatu zuen beraz utz zezaten nahi zuen bidetan ibiltzera, eta berac bere mahainean jarrarazi zuen. Aphairu nasaia zen ; mochcortu zen *Holoferne*, eta bere soldaduec ohe gainerat ereman behar izan zuten. Soldaduac ilki zirenean, ez ziren *Holofernekin* gelditu *Judith* eta bere nescatoa baizic. Judithec orduan Jaincoari othoitz khartsu bat egiten dio ; gero hartzen du *Holofernen* ezpata, burua picatzen dio, ezartzen du zacu baten barnean, eta etsai guzien artetic itzultzen da *Bethuliarat*. Nore erran hirico jenden bozcarioa ? Berehala atheratzen dire *Asiriarren* contra. *Asiriarrac*, ohartzen direnean jenerala hil diotela, harritzen dire eta ikharatzen ; badohatzi ihesi, zituzten guziac han utziric.

Iracaspena. — Judithec *Holoferne* bere populuaren

etsaiari burua picatu zion; halaber Maria Birjina Sainduac burua lehertu dio ifernuco sugeari, gizon guzien etsaiari.

7. *Zoin izan zen Israeldarren azken gaztigua?*

Judaco erresumaz bezembatean, *Nabukhodonosor*, Asiriaco erregeac, Jerusalemeco hiria funditu zuen eta suntsitu; temploa erre zuen, eta populu guzia preso ereman *Babiloneco* escualdera. Israelgo erresuma 130 urthe lehenago desegin zen eta acabatu; *Ose*, Israelgo azken erregea, bere populuarekin preso ereman zuten *Ninibeco* escualdera.

ICTORIOA

Tobias

Judaco erresumatic Niniberat preso ereman zituzten jendetan bazen gizon saindu bat, *Tobias* deitua. Haur haurretie prestua izana zen; secular ez zituen jainco faltsoac adoratu nahi izan, eta behar zen tenoretan gaten zen Jerusalemec, egiazco Jaincoaren bere temploan adoratzeco. Niniben ere urrats bereri jarraikia zen. Bazabilan beti bertze Judatarren icusten eta consolatzen; nasaiki laguntzen zituen bere ahalaren arabera; eta, nahiz erregeac debeatua zen, hilac ehorzten zituen. Egun batez, pareta baten aldean lo zagolaric, chori ongarria erori zitzaion ohatze batetic begietara, eta itsutu zen; bainan horren gatic ez zuen gutiago Jaincoa maitatzen eta benedikatzen. Ustez laster hil behar zuen, bere semea ondorat ekharrarazi zuen, eta eman ziozcan sainduki bizitzeco iracaspenic hoberenac. Erran zion gero, bazuela hunembertze diru demboraz prestamuz emana *Gabelus*, *Rageseco* hirian zagon Israeldar bati, eta zohacola diru harren galdetzera. « Aita, dio ihar lesten gizon « gazteac, ekharria naiz zuc erran guzien egitera; bainan « ez dut ezagutzen ez *Gabelus* ez *Rageseco* bidea. — Zohazi « beraz, dio aitac, bidea iracutsico dautzun norbeiten bil- « ha. » Ilkitzen da gizon gaztea; eta buruz buru egiten du iduriz bideari lotzera dohan bertze gizon gazte batekin; aingeru bat zen. Galdegiten dio Tobias semec, badakien-ez *Rageseco* bidea. « Bai, du ihardesten aingeruac, eta *Gabelus* ere ezagutzen dut. » Lorietan sarrarazten du Tobias gazteac bere etchean. Aingeruac hitzemaiten dio Tobias zaharrari ongi zainduco diola semea, eta gibelat ekharrico. Eta ahalic lasterrena bideco behar zituztenac harturic, badohatzi bi gizon gazteac. Hainitz ongi egin zuten berenjoanjina. Egun batez, Tobias gaztea *Tigreco* ur handian zan-

goen garbitzen hari zelaric, arrain izigarri bat athera zitzaien eta iresterat abiatu; oihuca hasi zen Tobias. Aingeruac erran zion orduan : « Har zazu arrain hori hegatsen » taric, eta ekhar ur hegirat. Khen-zotzu bihotza, hera eta « mina, eta altcha zatzu; on dire begietaco gaitzen senda- » tzeco. »

Etcherat itzuli zirenean, Gabelusec zor zuen dirua harturic, Tobias semec aitari begiac gantzutu ziozcan arrainaren minarekin, eta berehala sendatu zitzaizcon. Tobiasec orduan nahi izan ziozcan aingeruari bere ontasunen erdiac eman, harrentzat eta haren semearentzat egin zituenen sari. Bainan ihardetsi zion : « Ni *Raphael* aingerua naiz; « Jaincoac zure gana igorri nau, zure bizi guzian ongi zer- » bitzatu duzulacotz. » Eta hitz horiec erraitearekin, bichtatic gan zitzaioten.

Iracaspena. — Ochala baginu Tobiasen confidantzia Jaincoaren aldera, haren caritatea lagunaren aldera! Tobiasen ichtorioac iracasten daucu, Jaincoac bere zerbitzari onac beti sarriztatzen dituela.

8. *Zer egin zuten Israeldarrec, Babiloneco es- cualdean preso zagotzilaric?*

Israeldarrec ezagutu zuten eta aithortu Jaincoa ofentsatu zutela, eta hartacotz zirela hala gaztigatuac. Barkhamendu galdegin zioten, eta geroztic Salbatzailearen beha zagotzin; Salbatzailea deitzen zuten ahal bezen khartsuki, eta heien bihotzetan ez zen bertze gutziaric. Bizi ziren Jaincoaren legeari osoki jarraikiac, othoitzari emanac; beren hitzez eta egintzez, toki hetaco jende sinheste gabecoari ezagutarazi zioten egiazco Jaincoa; eta hekieri esker, hainitz bazterretan hedatu zen munduaren Salbatzailea laster sortu beharra zelaco sinhestea.

ICHTORIA

Daniel eta haren hiru lagunac

Babilonen preso zauden Israeldarretan ziren *Daniel* eta haren hiru lagun. Nabukodonosor erregeac eginarazi zuen bere potret bat, urhezcoa, eta nahi zuen jende guziec ahuspez emanic adora zezaten. Danielec eta haren lagunec ez zuten holacoric onhetsi, ziotelaric, ez zela egiazco Jain-

coa baizic adoratu behar. Erregea hasarretu zen, eta hiru gizon gazteac articularazi zituen sutan zen labe batetara. Bainan ordu berean aingeru bat jautzi zitzaioten zerutic, eta su lamac bazterreraturic, gorri zioten ha ze gocho bat eta ihintz ezti bat. Suac ez ziozcaten soinecoac berac den gutienecoric ukitu; hala hala erre eta suntsitu zituen gizon gazteac loturic zauzcaten soeac; eta hiruac han zabiltzan bozie kharrarenerdian, Jaincoa laudatzen eta benedicatzen



zutela. Icusgarri horren berria jakin zuenean, erregeac gizon gazteac labetic atherarazi zituen, eta debecatu zuen handic harat Israeldarren Jaincoaren contra mintzatzea.

Gauza bertsua gertatu zitzaiion Danieli. Erregeac hainitz maite zuelacotz, bekhaizti zituen erregeren ondoco gizonac.

Egun batez beraz, gezurrez hobendatu edo acusatu zuten, eta erregeac, nahiz ongi gogoaren contra, condenatu zuen lehoinec jatera, eta lehoinac zauzcaten zilo handi batera articularazi. Bainan Jaincoac miracuilu batez salbatu zuen bere zerbitzaria. Lehoinec ez zioten den gutieneco minic egin Danieli; hantchet zagon gozo-gozoa hekien erdian jarria. Gauza miragarri hori jakin zuenean, errege oihuca hasi zen: « Zoin handia zaren Danielen Jainco Jauna! zoin handia zaren! » Daniel lehoin zilotic atherarazi zuen, eta haren orde harat articularazi zituen haren etsaiac. Hauc, agertu bezen laster, jan zituzten lehoinec.

9. Jaincoac onhartu zuen-a bere populuaren urrikia?

Bai, Jaincoac onhartu zuen bere populuaren

urrikia. Hiruetan hogoi eta hamar urtheren buruan, Jerusalemerat itzularazi zituen Israeldarrac, eta han berritz egin zituzten beren hiria eta beren temploa.

ICTORIOA

Esther

Ez ziren bizkitartean Judu guziac Jerusalemerat itzuli; zombait familia gelditu ziren Asirian, hala nola *Mardoche-ren* familia. Mardoche bazuen iloba bat *Esther* deitua, hainitz ederra eta prestua. *Asuerus* erregeac hartu zuen andretzat. Erregeren lehen ministroa, *Aman*, barne tzarreco gizona zen; bere baithan egin zuen, behar zituela Asirian gelditu Judu guziac hilarazi. Nihore ez zakien *Esther* Judua zela. Hurec jakin zuenean *Amanen* chedea, berehala *Asuerusen* mintzatzera abiatu zen. Bainan nihor ez zitaken biziaren penan, deitua izan gabe, erregeren aintzinean ager. Halaric ere badoha *Esther*; erregeren aintzinean ahuspez emaiten da, eta bizia galdetzen dio bere nazioneco jendentzat. Erregeac altcharazten du, eta hitz-emaiten dio escatzen duena.

Jakiten du orduan zer hisian zagon *Aman* Judueri buruz; jakiten du *Mardoche*, *Estherren* osaba, urkharazi nahi zuela; eta suminduric, *Aman* bera urkharazten du *Mardoche* rentzat eginicaco urkhabea.

Iracaspena. — *Esther* erreginac galdegin eta ardietsi zuen bere populuaren bizia; halaber *Maria*, zeru lurretaco erreginac, bere haurrentzat galdegiten du eta ardie ten bekhatuen barkhamendua, eta betiereco bizitzea.

10. *Nola bizi izan ziren Israeldarrac, Jerusalemerat itzuliz geroztic?*

Jerusalemerat itzuliz geroztic, Israeldarrac deituac izan ziren *Juduac*; ez zioten bertze izenic emaiten. Israeldar populua ez zen gehiago bere jabe, bere escuco; bainan beti geroztic bizi izan zen bertze nazionen azpico, ala *Persen*, ala *Greken*, ala azkenean *Erromanoen*.

ICTORIOA

Eleazar

Juduec, egiazco erlisioneari atchikiac egoiteco, hainitz pairatu behar izan zuten. Bazen laueta hogoi eta hamar

urtheco gizon saindu bat, *Eleazar* deitua. Bil-lu nahi izan zuten Moisen legeac debecatzen zituen zombait haragiren jatera; bainan holacoric ez zuen aditzen. Baitezpada janarazi behar ziozcatela, ahoraino bortchaz sartzen ziozcaten, bainan alferretan; ahamenic ere ez zuen iretsi. Bazakien bada behar zuela edo jan edo hil. Haren adich-kidec, heriotzetic begiratzeco, etsaiec jakin gabe khendu zituzten haragi debecatuac, eta hekien orde ezarri sori zirenac. Bainan Eleazarec erraiten diote: « Ez, ez, holaco
« amarruac ez dire nere adineco gizonarentzat on eta gisa;
« etsemplu tzarra liteke bertzentzat, uste balute erregeren
« manua bethe dutala. Nereac laster egin du; ez ditut nere
« azken egunac zikhindu nahi eta desohoratu. Bertzalde,
« gizonen escuetaric libraturic ere, ez nindake Jaincoaren
« escuetaric libra. » Hiltzerat ereman zuten orduan, eta ehotzen hari zutelaric, huna haren othoitza: « Gauza
« guziac dakizcatzun Jainco Jauna, icusten duzu izigarriki
« pairatzen duela nere gorphutzac, bainan nere arima boz-
« cariotan dagola, zure amorea-gatic pairatzen dutala-
« cotz. » Hola hil izan zen Eleazar saindua, etsempluric ederrena ez choilki gazteriari, bainan oraino populu guziari uzten ziolaric.

11. *Jaincoac bere populuari maiz igortzen ziozcan-a profetac?*

Bai Jaincoac bere populuari maiz igortzen ziozcan profetac; igortzen ziozcan, eman zion legeaz orhoitarazteco, lege harren contra egiten zituen hutsentzat gaizkien adiarazteco, eta hetaz urrikitan sarrarazteco; igortzen ziozcan bereziki, ethorri behar zuen Salbatzaileaz mintzatzeco. Profeten begien aintzinean, alainanbada, Jaincoac ethorkizuna zabaltzen zuen eta agertzen, eta iracusten ziozcaten handie ehunca urtheren buruan gertatu beharrac ziren gauzac. Profetac, laburzki erraiteco, ziren beraz: ethorkizuna ezagutzen eta ezagutarazten zuten gizon batzu.

12. *Zer argi eta chehetasun eman zuten profetec Salbatzaileari buruz?*

Profetec luzaz aintzineti erran zuten noiz ethorrico zen Mesias; erran zuten Judaren tributic iza-

nen zela, sortuco zela *Bethleemen*, pairatuco zuela, hilen zela eta piztuko, Juduac arbuiatuco zituela beren bihotz gogortasunaren eta itsumenduaren gatic, eta populu paganoac (1) egiazco erlisionerat ekharrico. Erran zuten Jaincoac, Mesiasen bidez, bere populuarekin eginen zuela adichkidetasun edo batasun berri bat, lehengoa baino hertsiagoa; eta bere zerbitzura deituco zituela, ez choilki Juduac, bainan oraino lurreco nazione guziac.

12. *Zoin izan ziren profeta aiphatuenac?*

Izan ziren hamasei profeta bereziki aiphatuac : lau handi eta hamabi ttiki. Lau handiac dire : *Isaias, Jeremias, Ezechiel* eta *Daniel*. Bertze hamabiac profeta ttikiac deituac dire, zeren ez baitire bertze lauac bezembat ethorkizunaz mintzatu. Hamabi profeta horien izenac liburu sainduetan aurkitzen dire.

ICTORIOA

Elia eta Elisea, Jonas.

Bertze hainitz profetec, nola *Eliac* eta *Eliseac*, ez dituzte beren erranac iscribuz utzi; populuari ez ziren hitzez baizic mintzatu. Asco miracuilu egin zuen Eliac, bai eta haren dizipulu Eliseac.

Behin, *Sareptaco* hiriaren ondoan, Eliac causitu zuen alharguntsa gaicho bat, egur biltzen hari zena. Oihu egin zion eta galdetu ur chorta bat, eta ogi asiki bat. Goseteac toki hura chahutua zaucan. Alharguntsac ihardesten dio : « Ez zait gelditzen olio ikhin bat eta ahur bat irin baizic; » zombeit chichtapurren biltzen nabila nere azken ogi « ophilaren erretzeco; hura janez geroz, nere semearentzat » eta neretzat ez da hiltzea baizic. — Ez beldurric izan, dio « Eliac; zohazi, eta duzun irinarekin egin diezadazu ogi » bat, eta hautspean errearaz; aspaldian jan gabea naiz. » Alharguntsac, galdegin bezala, ogia egin zuen, eta Eliac jan. Eta Jaincoac sariztatu zuen emazte harren caritatea;

(1) Paganoac deitzen dire egiazco Jaincoa ezagutzen ez dutenac, eta, egiazco Jaincoaren orde, debrua zerbeit creaturaren itchuran adoratzen dutenac.

irinac eta olioac iraun zioten gosetea acabatu artio, eta aski izan zuen beretzat, here semearentzat eta Eliarentzat. Gerchago eritu zen alharguntza gaichoaren semea, eta hil. Amac, marrascas, hartu zuen bere haurraren gorphutza, eta ereman zion profetari. Eliac othoitz khartsu bat egin zion Jaincoari, eta haurra piztu zen

Holatsuco miracuilu batzu egin zituen Eliseac ere : *Samariaco* alharguntsa bat zorretan zen; eta, ez baitzuen pagatzecoric, haren haithan hartzeco zuenac ereman nahi ziozcan bi semeac. Emazte gaichoa badohaco profetari, eta erraiten dio : « Ez dut untzi bat olio baizic, eta Jaincoac ez « banau laguntzen, khenduco dauzkitet nere haurrac. » Eliseac erraiten dio, bilha detzala bertze zombeit untzi, hutsac, eta hetarat ichur dezala duen olioac. Emazteac egin du profetac errana. Hasten da untzi hutsen bethetzen;



guziac bethetzen ditu, eta beti badario lehenbizico untziari Emazte zorionecoa! saldu zuen oliotic, bere zorrac pagatu ondoan, izan zuen bizitzecoa.

Elia, Elisearen begien bichtan, lurretie zerurat altchatua izan zen suzco carrosa batean.

Jonas zen hamabi profeta ttikiatarie bat. Jaincoac Nini-beco hirirat igorri zuen, hango jende gaichtoa bere predi-cuez penitentzia egiterat ekhartzeco. Jonas, Jaincoaren errana egiteco orde, sartu zen bertze norapeit zohan untzi batean. Bainan untzi hura itsaso handirat zeneco, haize chirimbola izigarri bat altchatu zen, eta guziac galtzera

zohazin. Orduan Jonasec bere laguneri ezagutarazi zioten harren gatic, Jaincoaren errana ez zuelacotz egin, zela calerna hura, eta erran zioten : « Artic nazazue itsasora, eta « itsasoa eztituco da. » Artiki zuten, eta erran bezala, ematu zen itsasoa. Jaincoaren nahiaz han barna zabilan arrain handi batec Jonas iretsi zuen, eta, hiru egunez eta hiru gauez bere sabelean iduki ondoan, leihorrerat eman zuen bi ziric. Han, berritz ere, Jaincoac manatu zion Jonasi Niniberat gan zadien. Gan zen, eta egun oso hatez caricaz carica ibili zen oihuca, ziolaric : « Oraino berrogoi egun, « eta Ninibe desegina eta suntsitua izanen da. » Iztu ziren Ninibetarrac, penitentziari zin-zinez lotu ziren, eta, urrikitan sartu zirelacotz, Jaincoac barkhatu zioten.

Iracaspena. — Jonas, hiru egun egonic arrainaren sabelean, biziric ilki zen ur bazterrera; halaber, hiru egunen buruan, biziric eta lorios ilki da hobitic Jesu-Christo gure Jauna.

13. *Zoin dire Mesiasen ethortzeaz, biziaz, eta heriotzeaz, chehetasun gehienekin mintzatu izan diren profetac?*

Mesiasen ethortzeaz, biziaz eta heriotzeaz, chehetasun gehienekin mintzatu izan diren profetac dire : *Daniel, Jeremia, Michea, Zakharia eta Isaia.*

14. *Zer erran izan zuen Daniel profetac?*

Danielec, Israeldarrac Babilonan preso zirelaric, bortz ehun urthe aintzinetic, chuchen chuchena erran zuen noiz sortuco zen eta noiz hilen Mesias.

15. *Zer erran zuen Jeremiac?*

Jeremiac erran zuen, Salbatzailea sortzearekin, hilarazico zituztela haur ttiki hainitz, *inozent sainduac*; bertzalde ezagutarazi zituen Salbatzailearen pasioneco asco chehetasun.

16. *Zer erran zuen Micheac?*

Micheac erran zuen Mesias Bethleemen sortuco zela, eta hil ondoan lorios piztuco.

17. *Zer erran zuen Zakhariac?*

Zakhariac erran zuen Mesias erromes izanen zela, Jerusalem sartuco zela astaina baten gainean, eta Judueri salduco zutela hogoi eta hamar diru puskentzat.

18. *Zer erran zuen Isaiac?*

Profeta guzietaric hobekiena Isaiac ezagutarazi zuen Salbatzailea, 700 urthe aintzinetic. Erran zuen, Mesias sortuco zela Dabiden ethorkico Birjina baten ganic, eginen zuela miracuilu hainitz, eta hilen zela oinazeric garratzenetan. « Zango
« zolatic eta buru cascoraino ez da deus sendoric
« harren baithan. — Bildotch bat bezala ereman
« dute hiltzera, eta bildotcha bezala ichil ichila
« egon da ahoric ideki gabe. » Bainan ez du bere bekhatuen gatic pairatu, ez da bere bekhatuen gatic hil. « Pairatu du, dio oraino Isaiac, eta hil
« da, gure bekhatu eta tzarkeria guziac bere gain
« hartu dituelacotz. »

19. *Jaincoac zertaco hola aintzinetic ezagutarazi zituen Salbatzailearen bizia eta heriotzea?*

Huna zertaco Jaincoac hola aintzinetic ezagutarazi zituen Salbatzailearen bizia eta heriotzea : Nahi zuen, Salbatzailea ethortzen zenean, munduac errechki ezagut zezan, eta errechki onhar zezan haren hitza.

20. *Egi-guzu laburzki Testament zaharreco ichtorioaren bilduma?*

Haste hastetic, Jaincoac zeru lurrac creatu zituen sei egunez. Lehen gizona izan zen Adam, lehen emaztea Eba. Jaincoac ezarri zituen lurreco parabisuan, eta hitzeman zioten, baldin haren

manueri jarraikitzen baziren, dohatsu izanenez zirela mundu huntan eta bertzean. Hekien zorionic handiena zen, Jaincoarekin bat egiten zituen grazia beren baithan izaitea. Bainan Adamec eta Ebac Jaincoari desobeditu zioten, fruitu debecatutic janez. Orduan galdu zuten grazia, parabisutic campo emanac izan ziren, eta Jaincoac condenatu zituen, hec eta hekien ondocoac, bizi huntaco gaitzen jasaitera, hiltzera eta seculaco ifernuan erretzera. Bizkitartean Jaincoacez zituen osoki arbuiatu. Hitzeman zioten, hekien eta gizon guzien bekhatuen ezeztatzeco, eta zeruco athearen idukitzeco, lurraren gainera igorrico zuela Salbatzaile bat. Adamen eta Ebaren ondocoac gaichtatu ziren eta bekhatuan pulumpatu. Jaincoac gaztigatu zituen uhalde baten bidez, eta guziac itho ziren, salbo Noe eta haren familia. Berritz ere jendez estali zen lurra; bainan berritz ere gizonec, Noeren ondocoec, agindu Salbatzailea ahanzi zuten, eta eman ziren zer nahi tzarkeriari. Egiazco erlisionearen osoki galtzerat ez uzteco, eta gizonen artean Mesiasen esperantza biziric idukitzeco, Jaincoac populu bat hautatu zuen, bere populutzat hartu zuena, eta bertze populu guzietaric berechi. Populu harrec behar zituen oso osoa begiratu Jaincoac Adami, Noeri, eta Abrahami iracatsi ziozcaten erlisioneco egia. Populu hura deitua izan zen lehenic *Hebreo* populua, gero *Israel-dar* populua, eta azkenecotz *Judu* populua. Populu hura Ejiptoarren aztaparretaric Moise libratu zuen miracuiluzki. Populu harri Jaincoac eman ziozcan bere hamar manamenduac Sinaco mendian, eta gero jarri zuen Khanaango escualdean. Escualde hura deitzen dugu *Lur Saindua*, *Judea* edo *Palestina*. Populu hartan baziren ha-

mabi tribu edo jende aralde; Judaren tributic athera behar zuen Salbatzaileac. Populu harren erregiric handienac izan ziren Dabid eta Salomon; Jerusalem zen hekien hiri nausia. Maiz eta ardura Jaincoac profetac igorri ziozcan populu harri, Mesias ez mintzatzeco; eta, zembatenaz ere gehiago hurbiltzen hari baitzen Mesiasen sortzea, hambatenaz ere nasaikiago eta garbikiago mintzo ziren profetac. Azkenean, Adamen creatzeac 4,000 urtheren heina zuelaric, Bethleemen, Maria Birjina guziz Sainduaren ganic sortu zen Salbatzailea, Jesu-Christo Jaincoaren Semea.



TESTAMENT BERRIA

(Jesu-Christoren sortzetic eta munduaren
acabantzaraino).

Testament berrico ichtorioa eman diteke bortz
zati edo capitulutan. Icusico dugu :

1^{ean} Jesu-Christo gure Jaunaren bizia eta Eli-
zaren hastapena ;

2^{ean} Nola Elizac garhaitu zituen pertsecuzioneac ;

3^{ean} Nola Elizac garhaitu zituen hereticoac ;

4^{ean} Nola Elizac argitu zituen populuac eta bide
chuchenetan sarrarazi ;

5^{ean} Zer egin duen Elizac azken mende hautan.



LEHEN ZATIA

Jesu-Christo gure Jaunaren bizia eta Elizaren hastapena

(33 urthe)

1. *Zoin demboretan ethorri zen mundurat Jesu-Christo gure Jauna?*

Jesu-Christo gure Jauna mundurat ethorri zen profetec aiphatu demboretan : orduan, Jacobec bere haurrerri erran ziotenaren arabera, ez zen gehiago Judaren erresumaric, eta *Herodesec* matzen zuen Judean Erromanoen conduco.

2. *Zombat dembora bizi izan zen Jesu-Christo lurraren gainean, eta zombat parte berech ditezke haren bizian?*

Jesu-Christo gure Jauna lurraren gainean bizi izan da hogoi eta hamahiru urtheren ingurua. Haren bizian berech ditazke hiru parte : *bizitze gordea, bizitze publicoa* edo *agericoa, bizitze loriosa.*

§ I

JESU-CHRISTO GURE JAUNAREN BIZITZE GORDEA

3. *Zombat dembora iraun zuen Jesu-Christo gure Jaunaren bizitze gordeac, eta zertaco gordea deitzen da bizitze hura?*

Jesu-Christo gure Jaunaren bizitze gordeac iraun zuen hogoi eta hamar urtheren heina. Bizitze hura gordea deitzen da, zeren hogoi eta hamar urthez Jesus Jauna gizonen begietaric urrun egotu baitzen.

4. *Zoin dire Jesusen bizitze gordeari dohazcon gertacariric handienac?*

Jesusen bizitze gordeari dohazcon gertacariric handienac dire :

Andre-dena Mariàren Anontziazionea;

Andre-dena Mariaren Bisitazioea;

Jesu-Christoren Sortzea;

Artzainen eta Errege Magoen adorazioea;

Jesu-Christoren Zirconcizioea;

Jesu-Christoren temploan Presentatzea edo Ofrendatzea;

Ejiptorat ihes egitea;

Jesus haurraren Jerusalemeco piaja;

Azkenecotz, Jesusen Nazaretheco bizitzea hogoi eta hamar urtheac artio.

5. *Conda zatzu bai Anontziazionea, bai Birjina Mariac bere cusi Elisabethi egin zion bisita.*

Herodes Judeaco errege zelaric, Nazarethen bizi zen Birjina bat, Dabiden ethorkicoa; MARIA zuen izena, eta haren aita amac ziren *San Joakin* eta *Santa Anna*. Maria ezcontzaz hitzemanen zen Josep deitzen zen gizon zuzen eta jaincotiar bati. Egun batez, Gabriel aingerua agertu zitzaion, eta ezagutarazi zion Jaincoaren ama izanen zela, erranez : « Agur darotzut, o zu graziaz bethea zarena ;
« Jauna da zurekin, benedicatua zare emazte gu-
« zien artean. » Hitz horiec ahalkez asaldaturic ezarri zuten Maria ; bainan aingeruac erran zion :
« Ez zaitezela batere izi ; ezen grazia ardietsi duzu
« Jaincoaren aintzinean. Mundurat emanen duzu
« seme bat, Jesus izendatuco duzuna ; handia iza-
« nen da, eta deituko dute guziez gaineco *Jauna-*
« *ren Semea.* » Mariac ihardetsi zuen : « Jain-

« coaren zerbitzaria naiz ; egina izán bekit zuc
« erran duzuna. »

Eta orduantchet berean, Izpiritu Sainduaren
obraz, Jaincoaren Semeac, Trinitate, Sainduco
bigarren presunac, gorphutz bat hartu zuen Bir-
jina Mariaren erraïetan.

Gerochago, Andre-dena Maria gan zen bere



cusi *Elisabe-*
then icuste-
rat, eta et-
chean sartu
zitzaioneco,
Elisabeth e
erran zion :
« Benedica-
« tua zare e-
« mazte gu-
« zien artean.

« Eta niri nondic heldu zait zorion hau ? nola
« daiteke nere Jainco Jaunaren ama ethor dadin
« nere icusterat ? » Mariac ihardetsi zuen *Magni-*
ficat erranez Jaincoari eskerren bihurtzeco.

Mariaren bihotzetic sortua da beraz, eta Mariaren ez-
paineac dute lehembizicoric adiarazi guziec dakigun,
guziec cantatzen dugun othoitz eder eta gozo hori : *Ma-*
gnificat anima mea Dominum : Nere arimac laudatzen
eta goresten du Jainco Jauna.

6. Conda zaguzu Jesu-Christoren sortzea.

Maria bere cusi Elisabethen icusten izan zenetic
aski laster, Erromaco emperadoreac nahi izan
zuen jakin, zombat jende zuken denetarat bere
azpico, eta hortaracotzat, manatu zuen bat bede-
rac bere izena eman zezan, nondic ere baitzuen
bere ethorkia, eta herri hartan berean. Maria eta
Josep gan ziren Bethlemerat. Bethlemen alainan-

bada sortu zen Dabid erregea, eta Maria eta Josep Dabiden ethorkitie edo familiatic ziren. Tokiric



ez atzemanic ostatuetan, gan behar izan zuten hiriz campo zen heia erdi ideki batetara. Han gauerdi gainera, Abendorearen 25^{ean}, mun-

durat ethorri zen Jesu-Christo gure Jauna. Andredena Mariac ahal bezala trochatu zuen zituen puchca tcharretan, eta othalaco (1) baten gainean ezarri.

7. Norc jakin zuen lehen lehenic Jesu-Christoren sortzea?

Jesu-Christoren sortzea lehen lehenic jakin zuten artzain batzuec eta *Magoec*. Artzaineri aingeruec jakinarazi zioten, Magoeri aldiz miracuiluzco izar batec. *Magoac* iguzkia sortzen den escualdetacoac ziren, eta gehienen ustez erregeac. Miracuiluzco izarrari jarraikiz, ethorri ziren Bethlemeco etcholarat Jesusen adoratzeco, eta escaini ziozcaten urhea, itsentsua eta mirha: urhea, errege zelacotz; itsentsua, Jainco zelacotz; mirha, gizon hil beharra zelacotz.

ICHTORIOA

Errege Magoac

Beraz, errege Magoac iguzki aldeco tokietan bizi ziren. Miracuiluzco izarra icusi zuten bezen laster, jarraiki zi-

(1) Menjatera edo asca.

tzaizcon, eta ekharri zituen Jerusalemeco hirirat. Han galdetu zuten : « Non da berriki sortu den Juduen erregea ? » Haren izarra icusi dugu iguzki aldeko tokietan, eta ethorriac gare harren adoratzera. » Herodes zen orduan Juduen erregea. Nola guzien bortcharat erregetua baitzuen bere burua, bertze errege batez mintzatzen aditzearekin, bere khoroa gal beldurrez osoki ikharatu zen, eta asaldatu. Berehala aphezac eta legeco nausiac bilarazirie, galdetu zioten non sortu beharra zen *Christo*. Ihardetsi zioten : Bethlemen behar da sortu, Jaincoac bere profetaren ahoz erran bezala Herodesec orduan Magoac bere ganat ekhararazi zituen ichilca eta gordeca ; galdegin zioten noiz agertu zitzaioten izarra, eta igorri zituen Bethlemera, zio-larie : « Zohazte ; jakin zatzue cheheki haurraren berriac, » eta causitzen duzuenean, jakintsun egin nazazue, ezen « nic ere, zuec bezala. Haur harren adoratzera gan nahi » dut. » Gezurtia ! Ez zuen ez Jesus Haurra adonatu nahi, baina bai hil ! Erregeac berritz bideari eman ziren ; Jesus Haurra aurkitu zuten bere othalacoan, eta adonatu. Bainan aingeru batec erran zioten, ez gehiago Herodesen ganat hurbiltzeco, eta bertze bide batetic itzuli ziren beren tokietarat.

8. *Salbatzaileac noiz jasan zuen Zirconcizioneco zeremonia garratza, eta noiz izan zen Temploan ofrendatua ?*

Sortu zenetic zortzigarren egunean, Salbatzaileac, Moisen legeac zakharken bezala, jasan zuen *zirconcizioneco* zeremonia garratza, eta orduan berean eman zioten bere izena : *Jesus ; Jesus*, erran nahi baita *Salbatzailea*.

Berrogoigarren egunean, hau ere legeari obeditzeco, Mariac bere semea Templorat ereman zuen, eta Aita Eternalari ofrendatu. Han, Izpiritu sainduac argituric, *Simeon* deitzen zen gizon zahar prestu batec, eta *Anna* deitzen zen alharguntsa saindu batec, ezagutu zuten Mariaren besoetan zen Haur hura munduarensalbatzaileazela, eta bozcarioz sustatuac, hasi ziren goraki Jaincoaren laudatzen. Gero Simeonec Mariari erran zion, dolorezco ezpata batec zilatuco ziola biho-

tza. Gizon saindua mintzo zen Mariac, Jesus bere semearen pasionean, pairatu beharco zituen oin-hazez.

9. *Sortu zenetic laster norat ereman zuten Jesus Haurra?*

Sortu zenetic laster, Mariac eta Josepec Jesus haurra ereman zuten Ejiptorat, Herodesen ihesi, errege tzar horrec hilarazi nahi zuelacotz.

ICHTORIA

Ejiptorat ihes egitea. — Inozenten hiltzea

Magoac beraz ez ziren Herodesen ganat itzuli. Icusiric ez zirela hel lu, sumindu zen erregea, eta bere gogoari eman zion, behar zituela hilarazi bi urthe iraganac ez zituzten Bethlemeco eta inguruetaco haur guziac. Uste zuen hola eginez hilarazico zuela Jesus Haurra; ezen Magoen solas-



sen arabera, bi urtheren heintsua izan behar zuen, agertu zela Jesusen sortzearen berria zakhar-ken izar miragarria. Baina sar-raski izigarri hori Herodesec egin baino lehen, aingeru bat agertu zitzaion Josepi, eta erran zion : « Har zatzu Haurra eta ama, ihes « egizue Ejiptorat, eta zaudezte « han nic itzultzeco erran artio; « ezen Herodesec Haurra bilha- « tzen du hilarazteco. » Josepec

aire berean hartu zituen Jesus eta Maria, eta hekiekin gan zen Ejiptorat. Laster Herodesen soldaduac ethorri ziren Bethlemerat eta inguruetarat, eta hango haur guziac hil zituzten. Haur ttiki hec dire deitzen : *inozentac*.

Herodes hil eta, berritz ere aingerua agertu zitzaion Josepi, eta manatu zion itzul zadin bere herrirat.

10. *Zer egin zuen Jesus-Haurrac, Ejiptotic Israelgo lurretarat ethorritz geroz?*

Ejiptotic Israelgo lurretarat ethorritz geroz, Jesus-Haurra Nazarethen egon zen bere burhasoe-kin ; hauc erran guziac egiten zituen ; handituago eta zuhurtzia eta saindutasun gehiago zuen ira-

custen. Hamabi urthe zituelaric, burhasoec ereman zuten Jerusalemerat; eta etcherateco dembora ethorri zenean, Jesus, burhasoen ohar ga-



bean, hiri hartan gelditu zen. Mariac eta Josepecas zutela ezagutu zuteneco, ahenca bilhatu zuten bazter gu-

zietan. Hiru egunen buruan, atzeman zuten Temploan, doctoren erdian; eta legeco nausi jakintsun hec miretsiac zauden Haur harren solasen zuhurtziari.

Hogoi eta hamar urthetaraino, Jesus Jauna bizi izan zen pobre; bizi izan zen othoitzean eta lanean.

§ 11

JESU-CHRISTO GURE JAUNAREN BIZITZE PUBLICOA

11. *Zer adinetan Jesus Jaunac hasi zuen bere bizitze publicoa, eta zombat dembora iraun zuen bizitze harrec?*

Jesus Jaunac bere bizitze publicoa hasi zuen hogoi eta hamar bat urthetan, eta bizitze harrec iraun zuen hiru urthe, Salbatzailea hil artio.

12. *Zer egin zuen Jesus Jaunac hogoi eta hamar urthetan?*

Hogoi eta hamar urthetan, Jesus Jaunac Jondoni Joani Baptistaren bathaioa errezebitu zuen

Jourdaingo ibaian ; gero sartu zen mortuan ; han baruric egon zen berrogoi egun eta gauez, eta debruac tentatu zuen.

ICTORIOA

Jesu Christoren bathaioa

Jondoni Joani Baptista, santa Elisabethen semea, baza-bilan Jourdain hegico escaaldetan, ziolarie Salbatzailea sortua zela. Eta jendea osteca heldu zen harren ganat, ibai hartaco urean penitentziazco bathaioaren errezebitzeco. Jesus ere Nazarethetic ethorri zitzaion Jondoni Joaniri. Sainduac ezagutu zuen, eta oihuz hasi zen : « Huna Jain-
« coaren bildotcha, huna mundue bekhatuen khentzailea. »



Eta gero Jesusi buruz : « Zer, er-
« ran zion, ene
« ganat heldu
« zare! Bathaia
« zaitzadan nahi
« duzu, zu, ni
« bathaiatu be-
« har nindukezu-
« na! » Jesusec ihardetsi zion, hala behar zela. Eta Salbatzailea uretic ilkhitzea-
rekin, zerua ide-

ki zen, eta Izpiritu Saindua jautzi zen haren buruaren gainera, uso baten itchuran. Eta dembora berean, zeruticaco boz bat aditu zen, zioena : « Hau da nere seme guziz mai-
« tea, hunekin da osoki nere bihotza. »

Zeruticaco boz hura zen Aita eternalaren boza ; horrela Trinitate Saindu guzia seinale zen Salbatzailearen bathaioan. Aita Jaincoa, mintzo zena ; Seme Jaincoa, bathaioa errezebitu zuena ; Izpiritu Saindu Jaincoa, usoaren itchuran jautsi zena.

13. *Zer egin zuen Jesu-Christoc mortutic atheratu ondoan ?*

Mortutic atheratu ondoan, Jesu-Christoc hautatu zituen bere hamabi apostoluac, eta hasi zen Ebanjelioaren predikatzen. *Ebanjelioa*, hitz horrec erran nahi du *Berri-Ona*. Jesusec goraki zion

(eta hori zen *Berri-Ona*) Jaincoaren Semea zela, zela Mesias edo Salbatzaile Jaincoac agindua, munduaren hastetic iguricatu eta profetec hambat aldiz aiphatua ; zion ethorria zela gizon guzien salbatzeco.

14. *Nola Jainco Semeac frogatu zuen egiazki Jaincoaren semea zela, eta munduaren Salbatzailea?*

Jesus Jaunac, Jaincoaren Semea eta munduaren Salbatzailea zela, frogatu zuen : 1^{ic} Iracaspenic garbienac eta ederrenac, Jaincoaren ganic baizic ethor ez zitazken iracaspnac emanaz, eta berac, iracaspn hekien arabera, gauza guzietan saindutasunic miragarriena iracutsiz ; 2^{ic} profeten erran guziac bethez ; 3^{ic} miracuiluz leher eginez. Comparazionera ; bortz ogiekin bortz mila gizon baino gehiago hazi zituen ; bere nahi choilaz eriac sendatu zituen, sendatu itsuac, elkhorrac, mutuac ; hilac phiztu zituen, eta azke-nean phiztu zuen bere burua.

Beraz bi hitzez : Jesusec garbiki zion Jaincoaren Semea zela, zerutic lurrera gizonen salbatzeco jautsia, eta egiaz mintzo zela frogatzeco, miracuiluac egiten zituen, comparazionera hilac pizten (1).

(1) Miracuilua da creatura guzien ahalaz gaineco gauza bat, gauza bat Jaincoaren indarrac baizic egin ez dezakena. Miracuiluac batzuetan Jaincoac egiten ditu ber-b rac, nihar bitartecorac gabe ; eta bertze batzuetan egiten ditu creaturen, eta guziz sainduen bidez, heieri hartacotz behar duten indar berezia emanaz. — Ebanjelio sainduan icusten dugu nola, bertze ascoren artean, hiru hil piztu zituen Jesus Jaunac.

1^a Behin, Naimgo hirichean sartzera zohalaric, Jesusec buruz buru egin zuen haucu handi batekin. Ehorztera zaramaten alharguntsa baten seme bakharra. Ama gaichoa han zen, nigarrez urtua Jesus Jaunac, urricalduric, erraiten dio : « Ez zazula nigarrie egin. » Gero cutchatic hur-

ICHTORIOA

Jesusen Transfigurazionea edo itchuraz cambiatzea

Egun batez Salbatzaileac hartu zituen hiru apostolu, eta



berekin mendi handi baten gainerat iganarazi. Han, othoitzean hasi zen, eta othoitzean zagozaric, bertze bat duri bilhacatu zen. Haren begihartea egin zen guzkia bezen listirant, haren oinecoa elhura bezen churi. Dembora be-

biltzen da, eta ukhitzen du. Hil garraiatzaileac gelditzen dire, eta Jesusec hitz hauc adiarazten ditu : « Gizon gaztea, « manatzen dautzut, altcha zaite. » Eta hila altchatzen da eta mintzatzen hasten, eta Jesusec bihurtzen dio bere amari.

2^a Bertze behin, Jaire deitzen zen Sinagogaco aintzindari bat ahuspez eman zen Jesusen oinetan; eta bere alaba, hamabi urtetaco nechca bat, hil urrana zuelacotz, othoizten zuen zohakion etchera, haurraren sendatzera. Salbatzailea berehala abiatu zen. Bidean zohatzilaric, Jairen zerbitzariac ethorri zitzaizcon, ziotela : « Zure alaba hil « izan da. Zer balio du Nausiaren, Jesusen unaraztea? » Bainan Jesusec erran zion : « Ez izi; choilki izan zazu sinhestea. »

Etcherat heldu zirenean, han causitu zuten jende multzu bat intzinaca eta marrascaz. Jesusec erraiten diote : « Zertaco holaco a saldaturac eta nigarrac? Nechca hori ez da hila, lo dago. » Gero bertze guziac ilkiaraziric, choilki aita amekin eta berekin ekharri zituen hiru dizipuluekin, sartzen da hila etzina dagon barnean. Escutic hartzen du, eta erraiten dio : « Nechca, chuti zaite. » Eta haurra, pizturic, harat hunat badabila.

3^a Bertze aldi batez, Jesus Jourdaingo ur bazterrean zelaric, Mariac eta haren ahizpa Marthac gaztigatu zioten, maite zuena eri zela. Hura zen Lazaro, Mariaren eta Martharen anaia, Jesusen adichkide mina. Hiru anaia arreba horiec Bethaniaco hirichean bizi ziren; eta Bethania Jesus orduan zen lecutic urrun da, arras urrun. Jesus bizkitartean ez zen oraino bi egun hartan mugitu. Gero erran

rean, betbetan agertu ziren bi gizon, Jesusekin solasean zagozila; hec ziren Moïse eta Elia. Eta zeruticaco boz batec zion: « Hau da nere Seme guziz maitea, hunen erra-
« nac adi zatzue. » Hitz horiec entzutearekin, apostoluac ahuspez erori ziren. Bainan Jesusec hurbilduric ukitu ziotuen, eta erran zioten: « Chuti zaitezte, ez beldurric izan. » Orduan begiac altchatu zituzten, eta berehala bazter guzietarat hedatu; bainan ez zuten nihor, Jesus beraz bertzeric, icusi.

Jesusen orduco distiradura pare gabea, ez zen bizkitartean haren Jaincotasunaren casic pin lar bat baizic; Jesusec, gutiz gehienetan, bere Jaincotasuna gordetzen zuen, gizonen ez izitzeco.

15. *Nola predicatzen zuen Jesus Jaunac Ebanjelioa?*

Jesus Jaunac bere Ebanjelioa predicatzen zuen bere hitzez, eta bere obrez edo egintzez. Bazabilan Palestinaco hirietan eta herrietan barna. Besta handi egunetaco, noiz eta ere jende guzia Jeru-

zioten dizipulueri: « Itzul gaiten Judeara; Lazaro gure adichkidea loharcatua da, eta atzartzera nohaco. — Bainan, ihardesten diote dizipuluec, baldin lo badago, sendatuco da. » Ez zitzaioten gogoratu heriotzeco loaz mintzo zela Jesus. Salbatzaileac erraiten diote beraz orduan garbiki: « Lazaro hila da, eta zuen gatic, zuen sinhestea hazcar dadien amoreagatic, atsegin dut ez han gertaturic. Bainan orai gazen Lazaroen gana. » Jesus Bethaniara heldu zeneco, bazuen jadanic lau egun Lazaro hobian zela. Nausia han zela jakitearekin, Martha biderat athera zitzaiion, eta erran zion: « Jauna, zu hemen izan bazine, ez zen ene anaia hilen. » Jesusec ihardesten dio: « Zure anaia pizturen da. » Mariac ere murrascas gauza bera erraiten dio Jesusi: « Jauna, zu hemen izan bazine, ez zen nere anaia hilen. » Jesusec orduan galdetzen du: « Non emana duzue? — Zato icustera », diote ihardesten. Jesus bera nigarrez zagon, eta Juduec zioten: « Zombat maite zuen! » Hobia harroca zilo bat zen, lezettiki bat iduri, eta harri batec hesten zion sartzea. « Khen zazue harria, » dio Jesusec. Harria khentzen dute, eta Jesusec, bere Aita zerucoari othoitz khartsu bat egin ondoan, boz hazcar batekin erraiten du: « Lazaro, ilki zaite hobitic. » Eta betbetan hila jeikitzen da, gorphutz guzia oihalez lotua, begitarte hil mihiseaz estalua. « Deslot zazue, dio Jesusec, eta utz ibiltzera. » Hori icustearekin, han ziren jende gehienec sinhetsi zuten Jesus Jaunaren baithan.

salemerat biltzen baitzen, hiri hartarat bazohan Salbatzailea ere, eta Temploan adiarazten zituen bere iracaspenac. Batzuetan bazter-herri zombaitetara gaten zen, eta nora nahi jendea osteca jarraitzen zitzaion, haren iracaspenac entzun beharrez. Maiz bere iracaspenac emaiten zituen *parabolen* bidez. Parabolac dire etsemplu, edo comparantza, edo hobeki alegiazco ichtorio salbagarri batzu. Jesus Jaunac bere dizipulueri icasi zioten othoitz eder hau : « *Gure Aita zeruetan zarena, erabil bedi sainduki zure izena, ethor bedi zure erresuma, egin bedi zure borondatea zeruan bezala lurrean ere. Egiguzu egunean gure eguneco ogia, barkha diezagutzu gure zorrac, guc gure ganat zordun direneri barkhatzen diozcaten gun bezala, eta ez gaizatzula utz tentamendutan erortzera, bainan begira gaitzatzu gaitzetic. Halabiz.* »

16. Zer bizitze zaraman Jesus Jaunac?

Jesus Jaunac zaraman bizitzeric sainduena, bizitze bat bertute guziez berregindua. Eztia zen eta bihotzez humila; pazientziarekin jasaiten zituen bai bere pobrezia, bai gizonen sorjeskeriac; guzientzat ona zen, urricalmenduz bethea combatitu nahi zuten bekhatorosentzat, eta hala hala garratza beren bekhatuan gogortuac zagotzinentzat. Gauza guzietan ez zuen bere Aita Jaincoaren ohorea baizic bilhatzen, eta maiz gau osoac iragaiten zituen othoitzean.

ICHTORIA

Jesus eta haur ttikiac

Behin Jesus Jaunari ereman ziozcaten haur multchu bat; ttiki ttikiac ere baziren beren amen besoetan, eta amec

Salbatzaileari galdetzen zioten, othoi haur ttiki hec uki zezan bere escu sacratuez, eta benedica. Dizipuluac, icustearekin haur-



rac Jesusen gannat hurbiltzen, gibelatzen eta urruntzen hasi ziren frango idorki. Bainan Jesusec ez zioten hori ongi hartu, eta erran zioten: «Utz atzue haur ttikiac nere gannat ethortzerat, eta ez atzuela urrun;

«ezen horie bezalacoentzat da zeruco erresuma.» Gero besareatu zituen haur dohatsu hec, eta escuac heien buaruaren gainean ezarriric, benedicatu zituen.

17. Erran diezaguzu zer predica egin zuen Jesus Jaunac mendi baten gainean?

Egun batez, icusiric jende oste handi bat ondotic zarraikiola, Jesus Jauna igan zen mendi baten gainerat, eta han jende guzia haren inguruan bildu zenean, mintzatu zen eta erran zuen :

Dohatsu gogoz pobre direnac, zeren hekiena baita Jaincoaren erresuma.

Dohatsu ezti direnac, zeren lurraz jabetuco baitire.

Dohatsu nigarrez dagotzinac, zeren contsolatuac izanen baitire.

Dohatsu justiziaren gosea eta egarria dutenac, zeren aseac izanen baitire.

Dohatsu urricalmendutsu direnac, zeren berec urricalmendua ardietsico baitute.

Dohatsu bihotza garbi dutenac, zeren Jaincoa icusico baitute.

Dohatsu bakea maite dutenac, zeren Jaincoaren haurrac deituac izanen baitire.

Dohatsu justiziaren gatic pertsecuzionea pairatzen dutenac, zeren hekiena baita zeruco erresuma.

ICHTORIOA

Haur prodigoaren (1) parabola, edo alegiazco ichtorioa

Erran dugu jadanic, maiz parabolen bidez Jesus Jaunac argitzen zituela bihotzac. Huna parabola hetaric bat, iracusten dauena zombatetaraino Jaincoac maite dituen urrikitzen diren bekhatorosac.

Gizon batec bazituen bi seme. Gaztenac galdegin zion aitari heldu zitzaion on loriotasuna, eta hura harturic ganzen etchetie urrun, hainitz urrun, eta zituen guziac laguntzarrekin garbitu zituen. Halaco beharrac jo zuen, non bortchatua izan baitzen muthil jartzera nausi gogor eta zicoitz baten azpico; eta nausiac igorri zuen cherri zain. Maiz goserie zagon, eta nahico zuen ase bederen azienda beltzen janariaz; bainan nihore ez zion emaiten. Azkenecotz bere baitan sarturic, erraten du : « Zembat sehiec « ene aitaren etchean ba lute jateco ausarki ! itzulico maiz



(1) *Prodigoa* deitzen da, bere ontasunac behar gabe, erhokerian edo ergelkerian, chahutzen dituen.

« nere aitaren gana, eta barkhamendu galdeginen diot. » Heldu da beraz bere aitaren etcherat; bainan, chedea zuen bezala belhaunico emaiteco astiric utzi gabe, aitac bere besoetan hartu zuen eta besarcatu; gero bazcari handi bat eginarazi zuen, ziolaric : « Bozcaria gaiten; ezen nere « semea galdua zen, eta huna non atzemana den. » Seme zaharrena bizkitartean, beti aitarekin etchean prestu egon zena, damuztatua zen, heia harri baino besta gehiago egin behar zion bada aitac macur ibili zen anaiari. Eta aitac erran zion : « Ene semea, zu beti nerekin zaitut, eta nic « ditudan guziac zureac dire; bainan zuzen da egin deza- « gun bozcariozco aphairu bat; bai egiazki : ezen zure « anaia galdua zen, eta huna non atzemana den. »

Haur prodigoa da bekhatorosa, Jaincoaren ganic ur-
runtzen dena, eta berritz Jaincoaren ganat bere hutsen
ondotit itzultzen dena; aita familiacoa da Jaincoa bera,
urrikitzen den bekhatorosa bozcarioekin errezebitzen
duena; Seme zaharrena da giristino on eta leiala, be-
khatorosa gal-bidetarie atheratzen icusteac loiatu be-
har duena; azkenecotz, bekhatoros urrikituarentzat
egina den janari aberats eta nasaia da *Gorphutz Sain-
dua*.

18. *Zer egin zuen Jesus Jaunac bere iracaspe-
nac, bera zerurat igan ondoan, munduari ezagu-
tarazteco?*

Beti, menderen mende, bere iracaspénac mun-
duari ezagutarazteco, Jesus Jaunac egin edo esta-
blitu zuen *Eliza*.

19. *Nola Jesus Jaunac egin edo establitu zuen
Eliza?*

Jesus Jaunac, Judu parrasta bat combertitu zue-
nean, hetarie hamabi hautatu zituen eta egin
Apostolu. Berekin, lecuco bezala, hiru urthez
ibili zituen izan zen toki guzietan; eta bere ira-
caspenen gainean emaiten ziozcaten chehetasun
bereziac. Erraiten zioten : « Zuec zarete mundua-
« ren argia; egun batez, zuec beharco diozca-
« tzuete gizoneri goraki erran, nic orai zueri
« aphaletic erraiten dauzkitzuetanac. » Gero eman
zioten buruzagi bat, zerurat igaiten zenean, bere

ordeco lur huntan utzi behar zuena; buruzagitzat hartu zuen *Simon* eta izendatu zuen *Petri* (1), erraiten ziolarie : « *Petri (Harri)* haiz, eta harri « horren gainean jarrico diat nere Eliza, eta ifer- « nuco indarrac ez zaizeoc seculan nausituco. « Alha zatzic nere bildotchac, alha nere ardiac », erran nahi da : Izan hadi nere artalde osoaren artzaina; ttikiena nola handiena, fededun choilena nola Elizaco aintzindari, aphez edo aphezpicuena. Hiri zagoc guzien manatzeta, hiri guziac argitzea eta iracaspen garbiez haztea. Ordutic beretic Eliza egina zen; ordutic baziren fededunac edo dizipuluac, Jesu-Christoren baithan sinhestea zutenac; baziren hamabi Apostolu, fededuneri behar ziren iracaspenen emaiteco; bazen guzien buruzagi bat, Petri. Bizkitartean, Petric eta bertze Apostoluec ez zuten *Salbatore* (2) egunean baizic beren Nausi Jaincoaren ganic hartu, mundu guzian Ebanjelioaren predikatzeo, eta ahalaz mundu guziaren combertitzeo manamendua.

20. Zoin dire hamabi Apostoluen izenac?

Hamabi Apostoluac dire : *Simon-Petri*, eta *Andres* haren anaia. *Jacobe lehena* eta *Joanes*; *Jacobe bigarrena* eta *Juda*; *Philipe*, *Bartholome*, *Thomas*, *Mathiu*, *Simon Khanaangoa*, eta *Judas Izcariota*, Jesus saldu zuena.

ICHTORIA

Jesusec Apostoluac deitzen ditu eta berechten

Apostolu guziac casic arraintzale pobre batzu ziren. Egun batez, Galileaco itsas hegian zabilalaric, Jesusec bi urasca edo chalupa icusi zituen leihorrari hurbil. Hetaric

(1) Izen horrec toki hetaco mintzairan erran nahi du *Harria*.

(2) Jesus Jauna zerurat izan zen eguna.

batean ziren Simon, eta Andres haren anaia; arraintzan hari ziren itsasoan. Jesusec erran zioten : « Zatozte nerekin, eginen zaituztet gizon arraintzale. » Bigarren chalupan baziren bertze bi anaia, Jacobe eta Joanes, beren aitarekin; hauc beren saren antolatzen hari ziren. Jesus sartu zen Petriren chalupan, eta handie mintzatu ur hegirat bildua zen jendeari. Mintzatzetic gelditu zenean, Jacobe eta Joanes ere deitu zituen. Biec berehala utzi zituzten beren sareac, utzi zuten beren aita chalupan; eta lauac, Simon-Petri, Andres, Jacobe eta Joanes, beren chalupac leihorrerat ekharri ondoan, zituzten guziac utziric, jarraiki zitzaizcon Jesusi.

21. *Juduec ezagutzaric iracutsi othe zioten Jesusi, hekien artean egiten zuen ongi handiarentzat?*

Ez Juduec ez zioten Jesusi ezagutzaric iracutsi hekien artean egiten zuen ongi handiarentzat; aitzitic, egin ahal gaizki guzia egin nahi zioten, bereziki *Escribauec* eta *Farisauec*. *Escribauec* legea iracasten zioten Judueri; bainan Salbatzaileac ezagutarazten eta frogatzen zuen, zombat guti argituac ziren berac, eta zoin fede tzarrecoac. *Farisauac*, berec ziotenaz, bertzeac baino hobeki jarraikitzen ziren legeari; bainan gehienac faltso batzu ziren, urguiluz hampatuac eta zicoitz errabiatuac; jendea enganatzen zuten beren erlisione itchuraz. Jesusen iracaspennac hastio zituzten, zeren baitzion ez zirela maitatu behar mundu huntaco aberastasunac, atseginac eta bertze gainerateco ontasunac. Etsai herratsu hec maiz laidoztatu zuten Salbatzailea, harricatu ere zuten, eta azkenecotz gogoari eman zioten behar zutela hilarazi.

ICHTORIOA

Jesus Jaunaren Jerusalemen sartzea

Aphez nausieac eta Farisauec biltzar bat egin zuten Jesusez mintzatzeco, eta han zioten : Gizon horrec miracuilu hainitz egiten du; aintzina hola segitzerat uzten badugu,

guziec harren baithan sinheste hartuco dute. Egun hartaric harat, ez zuten gehiago gogoan izan gauza bat bakar harra baizic : Jesusen hilaraztea. Eta horra zergatic Salbatzailea, bertze escualde batera, *Ephrem* deitzen zen hiri batera gan zen eta han bere dizipuluekin egon. Bada aphez nausiec eta Farisauec manatu zuten, Jesus non zen zakiten guziec sala zezaten eta jakinaraz ; uste zuten hola harra pa. Gaizeac, nahiz gaichtoac ! Bainan, mundu hunen uzteco dembora hurbildu zitzaionean, Jesus bera gan zen Jerusa-



lemerat. Bidean *Jericoco* itsua eta bertze bi itsu sendatu zituen. Jerusalemen sartu zen astaina baten gainean, profeten erranen arabera, eta populu guzia lasterca biderat athera zitzaion, ziolaric oihuz : « Ho-

sanna ! Benedicatu izan bedi Jaunaren izenean heldu dena ! » Eta Jesusec orduan ezagutarazi zioten, handic laster funditua eta suntsitua izanen zela Jerusalemeco hiria ; zombait egunez gero agerian bere iracaspénac eman ziozcan populuari ; bainan ez zitzaion nihor lotzerat atrebitu. Arte hortan tratuan hari zen Judas aphez nausiekin ; hitz eman zioten, hogoi eta hamar diru pus kentzat salduco ziotela, eta escuetarat emanen bere nausi Jaincoa.

22. Zer egin zuen Jesu-Christo gure Jaunac hiltzeco bezperan ?

Gauza guziez jakintsun zen Jesus Jaunac, bazakien Juduec hilarazi behar zutela. Bainan lurra utzi baino lehen, nahi izan zuen *Gorphutz-Sainduco* sacramendua establitu. Ortzegunarekin zen, arrats aphalean ; Jesus Jauna bere dizipuluekin gan zen *Bazco bildotcharen* jatera, erran nahi da Juduen Bazcoaren egitera. Mahainean zirelaric, hartu zuen ogia, benedicatu zuen, eta eman zioten Apostolueri, ziolaric : « Har zazue eta jan ;

« hau da nere gorphutza. » Hartu zuen gero arnoa calitzan (1), eta erran : « Har zazue eta edan; hau



« da nere odola : hau egizue ene orhoitzapene-
« tan. »

ICHTORIOA

Jesusec aintzinetik adiarazten du Judasec salduco duela.

Jesus Jauna, bere apostoluekin azken afariaren egiten hari zelaric, betbetan lotsatu zen eta asaldatu, eta erran zioten : « Egiazki, egiazki, zuetaric bat bada, nere etsaien « escuetarat emanen nauena; gauza hori aintzinetik daut-
« zuet ezagutarazten, amoreagatic eta, gertatzen denean,
« jakin dezazuen nor naizen. » Joanesez galdegin zion :
« Nor da hura Jauna? » Jesusec ihardetsi zion : « Nori
« ere emanen baitiot ogi bustia, eta hura da. » Eta ogia bustiric, eman zion Judasi, erranez : « Egin gogo duzuna,
« egizu ahalic lasterrena. » Eta Judas ilki zen, Jesus bere etsaien escuetarat emaiteco. Gaua zen.

**23. Erran diezaguzu Jesus Jaunaren Pasio-
nea (2).**

Bere apostoluekin azken afaria egin ondoan,

(1) Edateco untzia.

(2) Jesus Jaunac pairatu zituenac.

Jesus Jauna ilkhi zen hekiekin eta gan *Olibetaco* (1) mendi hegalean aurkhitzen zen baratze batetara; toki hartan othoitz egitea laket zuen. Han, icusirie



zer oinazeac behar zituén jasan, eta gizonec zombat bekhatu eginen zuten, lazduraz eta antsiaz erori zen hagoniaric izi-

garrienean. Odolezco izerdi bat jauzi zitzaion gorphutz guztic, eta ahuspez emanic, bere Aita zerucoari othoitz hau egin zion : « Ene Aita, « izurrite hau urrun bedi nere ganic, egin ahal « baditake. Bizkitartean, egin bedi zure nahia eta « ez nerea. » Haimbertzenarekin, aingeru bat zerutic jautsi zitzaion, contsolatzeco eta hazcartzeco. Handic laster Judas agertu zen, gizon tropa handi baten aintzinean; gizon hec makilekin eta ezpatekin ziren. Jesus hartu zuten eta ereman *Annas, Caifas aphez handiaren* aitari-arreba zenaren aintzinera. Annasec igorri zuen Caifasen ganat, eta Caifasec hiltzera condenatu zuen, gezurrezco lecucotasunen gainean. Apostolu guziec ihes egin zuten, eta Jesusec erran bezala, Petric hiru aldiz ukhatu zuen. Caifasen etchetic Jesus Jauna ganarazi zuten *Pontzio Pilatusen* aintzine-ra. Hunec orduan manatzen zuen Judeaco escual-

(2) *Oliba* deitzen da bai olioa emaiten duen fruitua, bai fruitu hura dakharken arbola.

dean Erromanoen conduco Pilatusec icusi zuen Jesusec ez zuela deusetan ere hobenic, eta libratu



nahico zuen : bainan beldur zen hori Juduec gaizki har zezaten. Egin zuen guzia beraz, izan zen escuen garbitzea, iracusteco garbi nahi zuela Jesusen odoletic. Salba-

tzailea, Pilatusen manuz, azotez zehatu zuten; gero buruan elhorrizco khorro bat ezarriric, zer nahi laido egin zioten, thuca, joca, escarnioca. Nahiago izan zuten Jesus baino *Barrabas*, heriotzeac egina zen ohoin bat, libratu. Azkenecotz Pilatusec ere Jesus hiltzera condenatu zuen. Eremanarazi zuen, bere gurutzea bizcarrean, *Golgotha* edo *Calbarioa* deitua den mendiaren gainera



Han Jesus bi ohoinen artean gurutzeficatu zuten, erran nahi da escuac eta zangoac itzatu ziozcatela gurutze bati. Eta halaric ere Jesus othoitzean hari zen bere etsai eta

hiltzailentzat, ziolaric : « Ene Aita, barkha zozute, ezen ez dakite zer hari diren. » Jesus hiltzearekin, iguzkia goibeldu zen, lurra ikharatu, hobiak ideki ziren, hilak piztu. Ortziralearekin zen, arratsaldeko hiru orenetako heinean. Jesus jadanik hila zelarik, soldadu batek lantza (1) batez bihotza zilatu zion; gero, Salbatzailearen gorputza, hil mihisean estalirik, ezarri zuten hobian; eta Jesusen etsaiek eman zituzten soldaduak hobi harren zain, orhoitzen zirelacetz hitzeman zuela hirugarren egunean piztea.

ICTORIA

Maria gurutzearen oinetan

Andre-dena Maria, Jesusen Ama, bere Semea jarraiki zitzaion gurutzearen ondoraino. Han zagon, Jesus azken hatsetara hari zelarik, Jondoni Joani Apostoluarekin, bihotza erdiratua, baina chutiek. Hil baino lehen, Jesusek behatu zion bere Amari, eta erran zion amultsuki, Jondoni Joaniz mintzo zelarik : « Huna zure Semea. » Erran zion gero Jondoni Joaniri, mintzo zelarik Mariak : « Huna zure Ama. »

Gurutzearen ondoan, Jondoni Joani giristino guzien ordain bezala zen; beraz Andre-dena Mariak guziak bere haurtzat hartu gaitu, eta guc behar dugu Maria amatzat atchiki, eta ama bat bezala maitatu.

24. Zombat egunez Jesus egon zen hobian?

Jesus Jauna hobian egon zen hiru egunez, erran nahi da ortzirale arratsetik eta igande goizerraino; gero piztu zen bizitze berri baten hasteco, Jesusen *bizitze loriosa* deitzen duguna, eta bizitze harrec menderen mende iraunen du.

(1) Burdin zorrotz bat haga baten puntan.

§ III

JESU-CHRISTO GURE JAUNAREN BIZITZE LORIOSA

25. *Zoin dire Jesus Jaunaren bizitze lorioseco gertacaririe miragarrienac?*

Jesus Jaunaren bizitze lorioseco gertacaririe miragarrienac dire : Salbatzailearen *Piztea* eta haren *Zerurat Igaitea*.

26. *Conda diezaguzu Jesus Jaunaren Piztea.*

Bi egun hartan hobian zen Jesusen gorphutza. Hirugarren egunaren hastean, Salbatzaileac, bere indar choilaz, berritz batetaratu zituen bere arima eta gorphutza, eta lorios ilki zen hobitic. Aingeru batec, zerutic ethorririe, irauli zuen hobico harria, eta jarri zen harri hai ren gainean. Aingeru harren distiradura icustearekin, ikharatu ziren han, hobien zain, zagotzin soldaduac; erdi hilac lurre-



rat erori ziren, eta gero, bere baitaratu zirenean, gan ziren ihesi.

ICHTORIOA

Jesus Jauna agertzen zaiote emazte Saindueri

Bazco igande goizean, argi urratzean, zombait emazte saindu gan ziren Jesus Jaunaren ehorts lecurat. Ez baitziren guti harritu, icusiric hobico harria amildua, eta harri harren gainean jarria aingeru bat, iguzkia bezen distirant! Aingeruac erran zioten : « Ez zaitez tela izi; badakit guru-
« tzeficatuia izan den Jesus Nazaretacoa bilhatzen duzuela.
« Bainan zertaco hilen artean bilha bizi dena? Ez da he-
« men; piztu da, berac erran zuen bezala. Zohazte laster
« dizipulueri eta bereziki Petri erraitera, Jesus hilen
« artetic jeiki dela. » Eta emazte hec lorietan dizipuluen ganat zohatzilaric, huna non betbetan Jesus agertzen zaioten, eta erraiten diote : « Agur darotzuet. » Berehala emazte saindu hec ahuspez ezartzen dire, eta Jesusen oin sacratuac besarcatzen dituztelaric, adoratzten dute.

27. Jesus Jauna zerurat igan zen-a piztu ondoan berehala?

Ez, Jesus Jauna ez zen zerurat igan piztu ondoan berehala. Lurraren gainean egon zen oraino berrogoi egun, bere dizipulueri agertzeco, Apostoluac hobeki argitzeco, eta hauki egiazki piztu zela garbiki eta nasaiki frogatzeco.

28. Zer egin zuen Jesus Jaunac berrogoi egun hetan?

Berrogoi egun^{*} hetan Jesus Jaunac egin edo establitu zuen penitentziazco sacramendua, noiz eta ere erran baitzioten Apostolueri : « Errezebi
« zazue Izpiritu Saindua. Bekhatuac barkhatuac
« edo khenduac izanen zaizcote, zuec barkhatzen
« edo khentzen diozcatzueteneri; eta aldiz atchi-
« kiac edo utziac, zuec atchikitzen edo uzten
« diozcatzueteneri. » Hau ere erran zioten : « Zom-
« bait egunen buruan Izpiritu Saindua jautsico
« da zuen baitara; emanen dautzuate beharco

« duzuen indarra nere lecuco izaiteco, nere ize-
« naren hedatzeco bazter guzietan. »

ICHTORIOA

San Thomasen fede escasa

Thomas, hamabi Apostoluetaric bat, ez zen han bertze-kin, Jesus agertu zitzaiotenean. Lagunec erran zioten : « Guc icusi dugu Nausia. » Bainan ez zuen sinhetsi nahi. « Ez, ez, zion Thomasec, non ez ditudan nere begiz itzec « egin ziloac icusten, non ez dudan erhia ezartzen itzen « tokian eta escua sartzen haren sahetseco zaurian, ez dut « sinhetsico. » Handic zortzi egunen buruan, dizipuluac toki hartan berean bilduac ziren, eta Thomas ere heiekin. Atheac hetsiac zagotzilaric, Jesus agertzen zaiote beren erdian, eta erraiten diote : « Bakea dela zuenkin. » Gero bere zauriac Thomasi iracusten diozca, dioelarie : « Ekhar- « ac hunat hire erhia, eta icus zatzic nere escuac. Hurbil « hadi oraino, ema-ac hire escua nere sahetsean, eta ez « hadiela izan gehiago sinhets gogorra, bainan bai fede « bizicoa. » Thomasec ihardetsi zion : « O ene Jauna eta « ene Jaincoa. » Erran zion Jesusec : « Thomas, sinhetsi « due icusi naucalacotz; dohatsu icusi gabe sinhesten du- « tenac. »

29. Conda diezaguzu Jesus Jaunaren Zerurat Igaitea.

Piztu zenetic berrogoi egunen buruan, Jesus Jaunac bere dizipuluac ereman zituen Olibetaco mendiaren gainerat. Han erran zioten Aposto- lueri : « Bothere osoa emana izan zait zeruan eta « lurraren gainean. Bcthere harren ariaz, igor- « tzen zaituztet neroni nere Aitac igorri nauen « bezala; zohazte beraz, nazione guzieri iracats « zozuete Ebanjelioa; bathaia zatzue Aitaren eta « Semearen eta Izpiritu - Sainduaren izenean ; « iracats zozuete nic eman dauzkitzuetan mana- « mendu guzien begiratzen. Sinhetsico duena « eta bathaiatua izanen dena, salbatuco da; sin- « hesten ez duena aldiz, galduco. Eta ni zuen-

« kin izanen naiz beti, azken mendetaraino. »
 Gero escuac altchaturic, benedicatu zituen. Eta benedicatzen zituelaric, bere indar choilaz, lurra



utziric zerurat airetan abiatu zen, eta gan. Han, zeruan, Jaincoaren escuineco aldean jarria dago; handic ethorrico da azken egunean bizien eta hilen jujatzerat.

30. *Zer erran nahi dute Jesus Jaunac, zerurat igaiteco heinean, bere Apostolueri adiarazi ziozcaten solas horiec?*

Hitz hauc : *Nere Aitac igorri nauen bezala, igortzen zaituztet, erran nahi dute : Salbatzaileac, Apostolueri eta hekien ondoco zuzeneri, eman diotela berac bere Aitaren ganic zuen predica-tzeko eta iracasteco cargu eta dretcho bera.*

Hitz hauc : *Nazione guzieri iracats zozuete Ebanjelioa, erran nahi dute; Apostoluec bazutela*

gizon guzieri, nazione guzieri Ebanjelioaren prediatzeco zuzena eta egimbidea, eta zuzen eta egimbide berac dituztela Apostoluen ondocoec.

Hitz hauc : *Sinhesten ez duena condenatua izanen da*, erran nahi dute norbeitec ez baditu onhartu nahi Apostoluen eta hekien ondocoen iracaspénac, ez dela hura zeruan sartuco.

Azkenecotz hitz hauc : *Eta neroni zuenkin izanen naiz beti, azken mendetaraino*, erran nahi dute : Jesus Jauna beti bere Elizarekin dela, beti bere Eliza argitzen eta gidatzen duela, eta hala eginen duela munduaren acabantzaraino.



BIGARREN ZATIA

Elizac pertsecuzioneac garhaitzen ditu

34^{garren} URTHETIC ET'A 314^{garren} URTHERAINO
(280 urtheren heina)

1. *Zer egin zuten Apostoluec Jesus Jauna zerurat igan ondoan?*

Jesus Jauna zerurat igan ondoan, Apostoluac bildu ziren berritz azken afaria Salbatzailearekin egin zuten barne bererat; Ama Birjina berenkin zuten. Han, othoitzi khartsuenean, iguricatu zuten Jesusec agindu Izpiritu Saindua. Han oraino, Jondoni Petric liburu sainduen arabera hala behar zela frogaturic, hamabigarren apostolu bat hautatu zuten Judas traidorearen orde; hautatua izan zen san Mathias.

ICTORIOA

Izpiritu Sainduaren jaustea

Hamar egun hartan, Apostoluac erran den barnean bilduac zagotzin. Mendecoste egunean goizeco bederatzi oreren gainera, harrabots handi batec, haize hazcar bat iduri, iharrotzi zuen hec ziren etchea. Izpiritu Saindua



agertu zen suzcomihi batzuen itchuran, eta jautsi apostolu baticotcharen buaruaren gainera. Ordutic heien izpirituan ez zen ilhunberic gelditu, eta argi bethean icusi zituzten Jesus Jaunaren iracaspengue.

ziac. Izpiritu Sainduac bertzalde mintzaira guziac iracatsi ziozcaten, eta bihotzean piztu zioten izigarrico khar eta lehia bat, Ebanjelioaren mundu guzian predicatzeco. Egun hartan baziren Jerusalemen alderdi guzietaric ethorriricaco Juduac. Jende oste handi bat bildu zen Apostoluen ingurur-
rat. Eta Jondoni Petri, chutic bere hameca lagunekin, mintzatzen abiatu zen, ziolaric : « Judeaco gizonac, eta
« zuec, Jerusalemen zaudezten guziac, adi zatzue ongi
« nere hitzac. Egun gertatzen dena, profetec aspaldi erran
« zuten gertaturen zela. Jesus Nazarethacoac zer-nahi
« icusgarri eta miracuilu egin du zuen artean, eta zuec hil-
« arazi duzue. Bainan Jaincoac piztu du, eta gu, haren
« pizteaz lecuco gare. » Jondoni Petri bere erdaran mintzo
zen, eta bizkitartean guziec, nore bere mintzairan, zer
zion aditzen zuten. Harritua, choratua, jendea Apostolueri
galdeca zagon : « Zer egin behar dugu ? » Eta Jondoni Petric
ihardetzi zioten : « Egizue penitentzia, eta zuetaric bat-
« bedera bathaiatua izan bedi Jesu-Christoren izenean,
« bere bekhatuen barkhamenduaren ardiesteco. Bada, egun
« hartan, hiru mila arima bathaiatuac izan ziren. »

2. Judu guziac itzuli ziren-a Jesu-Christoren erlisionerat?



Judu hainitz conbertitu zen; bainan gehiago izan zen Apostoluen hitza arbuiatu zuenic; eta hauc giristinoac egin ahala pertsecutatu zituzten. Jondoni *Echtebe* diacrea harrica hil zuten. Jondoni *Echtebe* izan zen lehenbizico martira, erran nahi da, harrec lehen lehenic nahiago izan zuela bere bizia galdu, ezenez Jesu-Christoren erlisioneari ukho egin.

ICTORIOA

Jondoni Paulo conbertitzen da

Jondoni *Echtebe* hiltzen hari zutelaric, haren hiltzailen arropac atchikitzen zituen *Saul* Farisauac. Saulec herra bat handia bazuen Jesu-Christoren baithan sinhestea zuten

guzientzat. Aphez handiaren manuz, *Damaseco* hirirat gan beharra zen, hango giristino guziac preso alchaturic *Jerusalem* erat ekhartzeco. Abiatu zen beraz lagun multzu batekin; baina bidean zohalaric, betbetan zeruticaco argi batec inguratu zuen. Lurrerat erori zen, eta entzun zuen boz bat, zioena : « Saul, Saul, zertaco pertsecutatzen nauc? — Jauna, nor zare zu? » dio *Saulec* — Ni nauc hic persecutatzen ducan Jesus, » ihardesten du bozac. Ikhara daldaran, *Saulec* dio : « Jauna, zer nahi duzu egin deza- » dan? Chuti hadi, dio bozac, eta oha *Damaserat* : han « jakinen duc zer egin. » Chutitu zen Saul; baina itsutua zen, eta lagunec escutic ereman zuten *Damaserat*. Han hiru egun egon zen, ez jan ez edan gabe. Jaincoac igorri zion orduan *Ananias* bere zerbitzaria. Ananiasec escuzukitu zueneco, begiac ideki zitzaizeon Sauli, eta bathaia-tu izan zen. Handic harat, *Saulec*, *Paulo* izen berritzat harturic, giristino legea lehen higuin zuen bezen maite izan zuen; pare gabeco lehia iracutsi zuen Jesus Jaunaren eza-gutza eta amodioa bazter guzietan hedatzeco. Juduac bizkitartean ez ziren gelditzen giristinoen pertsecutatzetic. *Paulo* *Jerusalem* erat ethorri zen *Jondoni* *Petriren* ganat, eta ordutic hamabiren orde, Apostoluac izan ziren hama-hiru, Ebanjelioaren nazione guzietan predicatzeco. Jesus Jauna zerurat igan eta zombait demboraren buruan, Apostoluac elgarretaric berechi ziren, Ebanjelioaren mundu guzian barraiatzeco.

3. Zer egin zuten Apostoluec, elgarren ganic berechi edo urrundu baino lehen?

Bazter guzietan Ebanjelioaren predicatzeco elgarren ganic berechi edo urrundu baino lehen, Apostoluec egin zuten *Simbola* edo *Seinalea*, erran nahi da othoitz bat, hamabi articulu edo pondutan, erlisioneco egia premiatsuenac dakartzkena. Othoitz hura deitzen da bai *Apostoluen Seinalea*, bai *fedearen Seinalea* : apostoluen Seinalea, Apostoluec egina delacotz; fedearen seinalea, hartaric ezagun delacotz bat bederac baduenez egiazco fedea. Ezen hartan direnac sinhesten ez dituen, ez da giristinoa. Huna othoitz hura :

1. Sinhesten dut Jainco Aita bothere guzia

duenaren baithan, zeruaren eta lurraren creatzai-lean;

2. Eta Jesu-Christo haren Seme bakhar gure Jauna baithan;

3. Zoin contzebitu baitzen Izpiritu Sainduaren bertutez, sortu zen Maria Birjina ganic;

4. Pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuaren azpian, gurutzeficatu zuten, hil zen eta ehortzi zuten;

5. Jautsi zen ifernuetarat; hirugarren egunean jeiki zen biziric hilen artetic;

6. Igan zen zeruetarat, non jarria baitago Jainco Aita guziz botheretsuaren escuinean;

7. Handic ethorrico da bizien eta hilen jujatze-rat;

8. Sinhesten dut Izpiritu Sainduaren baithan;

9. Eliza catolico Sainduan, Sainduen partalier-tasunean;

10. Bekhatuen barkhamenduan;

11. Haragiaren piztean;

12. Betiere iraunen duen bizitzean.

ICHTORIOA

Ama Birjinaren heriotzea

Bere Seme Jesus zerurat iganez geroztic, Ama Birjina bizi izan zena raino hogoi eta bi urtheren heina, Jondoni



Joani Apostoluaren etchean; Jeru-salemen hil zen. Mariac ez zuen bekhatu orisinalic izan, eta behi-nere ez zuen huts den mendrenaz bere arimaco garbitasuna histu; horren gatic haren gorphutza ez zen hobian usteltzen hasi ere. Ber-zalde ez zen hobian luzaz egon. Maria hil eta laster, haren arima eta gorphutza batetaratatu ziren, eta aingeruec, atseginezco eta laudo-riozco cantu errepikaz, beren er-regina ereman zuten zeru gorene-

tara. Andre-dena Mariaren, arima eta gorphutz, zerurat altchatzea ez da fedezco articulu bat, bainan gauza segura da, Elizac iracasten daucuna; eta Elizac gertacari miragarri horren orhoitzapena eginarazten daucu Andredena Maria aboztucoaren bestan, hilabete harren hamabortzean.

4. Zer erlisione zuten Apostoluec conbertitu behar zituzten nazionec?

Apostoluec conbertitu behar zituzten nazionec, bereziki bi aiphatuenec, *Grekec* eta *Erromanoec*, ez zuten egiazco Jaincoa ezagutzen. Egiazco Jaincoaren orde, adoratzen zituzten berec asmaturicaco eta eginicaco jainco faltso batzu, harriz, zurez, zilharrez edo urhez eginac; hekieri ziozcaten beren sacrificioac escaintzen. Beren erlisioneco bestetan, ez zuten maizenic itsuskeriaric eta tzarkeriaric baizic egiten.

5. Zer egin zuten Apostoluec nazione heien conbertitzeco?

Nazione heien conbertitzeco, Apostoluec egin zuten Jesus Jaunari berari egiten icusi ziotena, Jesusec bertzalde egiteco manatu ziotena. Gan ziren nazione guziac jotzeco gisan, nor bere esqualderat, eta, Izpiritu Sainduac argituric, predicatzen ibili ziren egun toki batean, bihar bertze batean, jendearen beharraren arabera. Hiri batetarie urrundu gabe, eliza bat han egiten edo establitzen zuten; erran nahi da hiri hartan aphezpicu bat eta aphezac uzten zituztela, giristinoac Jainco legean argitzeco eta jarraicarazteco. Giristinoen artean zerbeit macur edo aharra altchatzen zenean, Apostoluec ardura letrac edo epichtolac igortzen ziozcaten, behar ziren argien eta chehetasunen emaiteco, eta elgar maitatu behar zutela orhoitarazteco. Chede beraz,

lehenbizico giristinoen argitzeco, Jesus hil eta urthe multchu baten buruan, lau Ebanjelioac iscribatu zituzten, san Mathiu eta Jondoni Joani Apostoluec, san Lukec eta san Markec. Bertzalde san Lukec Elizaren hastapenac ezagutarazi derauzkigu izen hau : *Apostoluen egintzac*, dakhar-ken liburu Sainduan.

6. *Erran diezaguzu hitz laburrez zer egin zuen Jondoni Petri, Apostoluen buruzagiac?*

Juduec ez zuten nihor Jondoni Petri apostolua bezembat pertsecutatu. Herodes erregeac preso altcharazi zuen, eta jadanic haren hil eguna berech'a zen eta hartua; bainan aingeru batec libratu zuen. Jerusalemen Eliza establitu ondoan, han berean bertze Apostoluekin, eta heien buruzagi bezala, egin zuen lehenbizico *Contzilioa* (1); gero *Antiochen* establitu zuen Eliza. Hiri hartan lehembizico aldicotz, Jesu-Christoren erlisioneari



jarraikitzen zirenac izendatu zituzten *giristinoac* (2). Azkenecotz, 42^{garren} urthean, Erromarat ethorri zen. Erroma zen orduan munduco hiri nausia. Han Jondoni Petric fincatu zuen bere Alki Saindua, erran nahi da han bere egoitza hartu zuela beticotz. Handic munduco giristino guzieri manatzzen zioten; handic misionestac, Ebanjelioaren prediciariac, igortzen ziozcaten na-

(1) Elizaco buruzagien bilcura.

(2) L'lo Christinoac, Christauac; erran nahi da Christoren haurrac.

ziona guzieri. Han martirioa jasan zuen Jondoni Paulorekin.

ICTORIOA

Jondoni Petriren eta Jondoni Pauloren martirioa

Salbatzailearen sortzetik 64^{garren} urthean, bazen jadanik hainitz giristino Erroman. Egun multchu bat iraun zuen su batec hiriaren erdia suntsitu zuen. Erromaco emperadore zen orduan odol egarri zen gizon bat, *Neron*. Erran



den su hori Neronec giristinoen gain eman zuen, eta hasi zen pertsecutatzen. Norc erran zombat hilarazi zuen! Hiru urtheren buruan, Jondoni Petri eta Jondoni Paulo hartuac izan ziren eta preso ezarriac. Hiruetan hogoi eta zazpian, presondegitic athera zituzten eta hiltzerat ereman. Hiritic campora zirenean, elgarren ganic urrundu baino lehen, elgar samurki besarcatu zuten. Paulorilephoa moztu zioten. Petri gurutzeficatu izan zen. Bainan, sobra ohore zitzaio-lacotz Jesus bere Nausia bezala hiltzea, galdegin zuen gurutzefica zezaten buruz behiti, eta hala egin zuten.

7. Geroztic nola deitu zituzten, bai Erroman Jondoni Petriren ondoco izan zirenac, bai bertze Apostoluen ondocoac?

Geroztic, Erroman Jondoni Petriren ondoco izan zirenac deitu zituzten *Aita Sainduac*. Jondoni Petri Apostoluen buruzagia zen bezala, *Aita Sainduac* dire *Eliza guziaren buruzagiac*, *giristino guzien aitac* eta *argitzaileac*. Bertze apostoluen ondocoac deitzen dire *aphezpicuac*. Aphezpicuec ez dute *Aita Sainduac* bezala, arimeri buruz, *Eliza guzian* manatzen; bainan aphezpicu *bacotchac* manatzen du, *diosesa* deitua den, *Elizaren parte* batean. *Aita Sainduac* emaiten dio aphezpicu ba-

cotchari bere *diosesa*; eta, beti eta gauza guzietan, aphezpicuac Aita Sainduaren azpico eta escuco dire.

ICHTORIOA

Jerusalemeren funditzea

Jondoni Petri hil eta laster, funditua izan zen Jerusaleme-co hiria. Hiruetan hogoi eta hamarrean, *Titus*, Erromaco emperadorearen semea, ethorri zen hiri horren setiatzera. Nola Juduec ez baitzituzten hirico atheac ideki nahi, Titusec bere baithan egin zuen, gosearen bidez amor emanarazico ziotela. Hambatetarainoco gosetea izan zen hiri barnean, non oinetacoac eta harmetaco larru uhalac jaten baitzituzten. Ama batec bere semea hil zuen eta er-
reric jan! Halaric ere Juduac gogor egon ziren sei hilabetez. Bainen azkenean Erromaco tropac sartu ziren hirian, eta han oraino carriketan, guduac, gudu izigarri batec iraun zuen bortz egunez. Titusec Temploa osoric utzi nahico zuen; bainen soldadu batec ileti piztu bat artiki zuen harat norapeit, eta zen guzia suntsitu zen inguruc etche-kin. Bertzalde hiri gehiena erre zen. Hola bethe baitzen Jesus Jaunaren aspaldico hitza! Ezen Salbatzaileac nigarrez errana zuen, funditua izanen zela Jerusaleme-co hiria, eta Temploco harri bat ez zela bertzearen gamean geldituc. Desmasia hortaric lecora, Juduac norat-norat bar-raiatu ziren, eta, geroztic, Jesus Jainco Jauna hil zuen populu hura munduaren lau bazterretan hedatua da: bainen seculan gehiago ezin bildu izan da nazione baten berritz egiteco, eta bizkitartean ez da osoki suntsitzen. Bizi da beti, Jesu-Christo gure Jaunaren Jaincotasunaren lecuco bezala.

8. Zembat demboraz pertsecutatu zituzten giristinoac?

Giristinoac pertsecutatu zituzten hiru ehun urthez. Apostolu guziac martir hil ziren; Jesu-Christoren dizipulu guziec, lehenbizico Aita Sainduac eta lehenbizico aphezpicuec, nahiago izan zuten beren bizia galdu, ezenez eta beren fedea ukhatu. Alderdi guzietan, edo-zoin adinetaco, edo-zoin ethorkitaco, edo zoin ofiziotaco martirez leher izan zen: denetarat, hamabietaric hamabortz milihunetaraco arte hori.

•
ICHTORIOA

Zenbat pairatu zuten lehen giristinoec

Zer-nahi egin eta asmatu zuten giristinoeri jazartzeco. Beren herrico lurra galarazten zioten, khentzen ziozcaten beren ontasunac, hilarazten zituzten oinazeric ikharagarrienen erdian. Bai zer-nahi on zen giristino gaicnoen contra : Hinlachac, hetan loturic eta bortchaturic zapartarazteco; burdinazco orraze batzu, haragian chirtchicatzeco; sua, suan gorritu crisailac, olio irakitua, berun urtua. Batzu bestieri janarazten ziozcaten; bertze batzu biziric larrutzen zituzten edo erretzen; erhotic khentzen ziozcaten begiac, hortzac, behatzac. Giristinoec gorde behar zuten mezaren entzuteco, eta gaineraco bertze zeremonietan aurkhitzeco. Biltzen ziren, elo oihanetan, edo zombait etchentan, edo maizenic lurpean. Lurpean ezen egin zituzten zilo edo barne handi batzu, hirietaco carricac edo plazac iduri, han beren hilac, bereziki martirac ehartzeco, han beren bilcuren atchikitzeo. Lurpeco barne hec deitzen dire *Catacombac*. Catacombaric aiphatuenac dire Erromacoac Hautan bereziki causitu dituzte aldareac, cofesa-lecuac, meza-
ren erraiteco eta comuniatzerat emaiteco gauzac, hitz battez, aphezec eta fede lun choilec behar dituzteñ guziac. Bertzalde, Catacombetaco paretetan diren pintadurec garbiki iracusten dute, orduco Eliza oraico Eliza ber-bera zela, orduan oraico sacramendu berac zirela; ezen pintadura hetan aurkhitzen dire sacramendu guzien seinaleric ederrenac eta ukigarrienac.

9. Zergatic horrela pertsecutatzen zituzten giristinoac?

Giristinoac, Ebanjelioco manamendueri jarraikiz, garbitasunean bizi ziren; urrun zagotzin paganoen josteta lohi eta ahalkegarrietaric. Hekien bizitzeac condenatzen zuen beraz paganoen bizitzea, eta horren gatic hauc gezurrez erraiten zuten, giristinoec gizon guziac higuin zituztela; eta giristinoeri calte egin nahiz, hedatzen zuten bertze asco gezur tzar eta canore gabeco. Bertzalde, giristinoec ez zituzten emperadoren nahi zuzen contracoac onhartzen eta bethetzen; bereziki, nihola ere giristinoac ezin bil zituzten jainco faltsoen adoratzerac, eta hekieri sacrificioric egitera.

Emperadoreac, hekientzat ez baitzen beren bu-
ruaz bertze Jaincoric, khechatzen ziren, hasarre-
tzen eta errabiatzen; eta egin ahalac egiten zituz-
ten heien nahiari oldartzen ziren giristino atrebitu
hec suntsitu beharrez. Bertzalde oraino, debruac
ez zezaken jasan, haimbertze jende Jesus Jaunari
eta haren Elizari jarraiki zadin; eta, nahiz giris-
tinoec ez zuten bazter guzietan ongiric baizic
egiten, Satan, etsai amarrutsuac, paganoac ekhar-
tzen zituen heien pertsecutatzera.

10. *Jesus Jaunac ez zuen-a aintzinetic erran,
pertsecuzione horiec guziac izanen zirela?*

Bai Jesus Jauna pertsecuzione horietaz, eta
Elizac, munduac diraueno, jasan beharco dituen
bertze guziez mintzo zen, noiz eta ere baitzioten
bere Apostolueri eta dizipulueri : « Igortzen zai-
« tuztet bildotchac otsoen artera bezala. Ni per-
« tsecutatu nauten bezala, zuec ere gizonec per-
« tsecutatuco zaituzte. Gaizki ekharrico eta ibilico
« zaituzte nere izenaren gatic; eta zuec hilaraziz,
« usteco diote Jaincoari atsegin eman. » Bainan,
elhe garratz horien ondotic, Salbatzaileac erran
zuen : « Ez beldurric izan; mundua garhaitu dut,
« eta ez zaituztet escutic utzico. »

11. *Zer ondorio ekharri dute, zer argi eman
daucute pertsecuzioneec?*

Pertsecuzioneec garbiki iracutsi dute giristinoen
erlisioneac Jaincoaren ganicacoa dela; eta hori bi
gisaz. Lehembizicoric : norc, Jaincoaz campo,
emaiten ahal zioten martireri haimbertze oinaze,
tantitu gabe, eta gehiago dena, lorietan jasaiteco
indarra? Bigarrenecoric : nola hambat etsaiecc
alderdi guzietaric, trufatzen, belzten, jotzen, le-

hertzen zuten demboran, nola iraun, nola bereziki, egin den bezala, hazcartu behar zuen eta hedatu giristinoen erlisioneac, Jesu-Christoren erlisio-neac, ez balu Jesu Christoc berac, erran nahi dut Jaincoac, biziric atchiki eta indartu?

ICTORIO

Martir aiphatuenac

Izan ziren segidan hamar pertsecuzione, guziac Erromaco emperadorec manatuac. Apostoluen eta leben dizipuluen ondotic, martir aiphatuenac izan ziren : *Inazio*, *Antiocheco aphezpicua*, Erroman bestiec biziric jan zutena; *san Saturnino*, *Frantzia Tolosaco aphezpicua*, burua leher-tua izan zuena eta gorphutza zaticatua; *san Denis*, *Pariseco aphezpicua*, zoinari burua picatu baitzioten; *san Policarpo*, *Jondoni Joani e* *l* *izipulua*, biziric erre zutena; *san Pothin*,



Frantzia Liongo lehembizico aphezpicua, azote ukhaldica hilarazi zutena; *santa Blandina* esclabo (1) gazte bat, giristino lagunac harritu zituen bere ezin cordocatuzeo indar sainduaz; *san Irene*, *san Pothinen* ondotic *Liongo aphezpicu* izan zena, eta bertze heme-retzi mila giristinorekin hilarazi zutena; *san Chipirine*, *Africa Cartagoco aphezpicua*, lephoa moztua izan zuena; *Jondoni Laurendi*, Erromaco lehenbi-zico diacrea (2). Hau lehenic izigarriki azotatu zuten, odol-purrustan zariola, eta gero su arin baten gainean crisaila batean ezarri, emeki emeki erre zadin. Jondoni Laurendi ez zuen errencuratzeco hitz bat ere athera, eta azken atseraino othoitzean haritu zen bere burregoentzat. Azkenean aiphatu behar ditugu

(1) Esclaboac zirela, gero gazte batzu, bertzen azpico zirenac, baina nola? Osoki eza zer gertatuaco jendeac izan ez balietz beza a, azienden pare. Halaco haintz bala gero African.

(2) Diacreac ziren aphezpicuec hautatzen eta consecratzen zituzten gizon batzu, comuniatzera emaitzeco Eliza o ontasunez arta hartzeco, jende beharraren laguntzeco, eta catichimaren egiteco.

Tebaco lesioneco (1) *soldaduac*. Soldadu haukien aintzindaria zen *san Maurizio*. Nola ez baitzuten beren giristino fedea ukhatu nahi, emperadoreac hamarretarie bati lephoa motzarazi zioten; gero, ustez izituco zituen, bertze hamarretarie bat hilarazi zuen; bainan icusirie beti hitz eta urhats beretan gogor zaudela, azkenecotz guziac garbiarazi zituen.

12. *Norc geldiarazi zituen giristinoen contraco pertsecuzioneac?*

Giristinoen contraco pertsecuzioneac geldiarazi zituen *Constantin* emperadoreac. Berac bathaioa errezebitu zuen *san Silbestre Aita Sainduaren* ganic. Osoki libro utzi zuen *Eliza*; gehiago dena, sustengatu zuen, eta handie harat giristinoac agerian jarraiki ahal izan ziren beren erlisioneari.

ICHTORIOA

Constantin emperadorearen conbertsionea

Gerla zuen *Constantin* emperadoreac, eta bere tropekin bazohan etsaiari buruz. Betbetan, airetan, iguzkia baino gorago, gurutze distirant bat agertu zitzaion, hitz haukiekin: « Hunekin garhaituco du etsaia. » Gurutzea eta hitz horiec, emperadoreac bezala, icusi zituzten haren tropa guziec, eta ez ziren guti harritu. Biharamunean *Constantinec* gurutzea ezarrarazi zuen bere banderen gainean, eta gero borthizki jocatu zitzaion etsaiari. Chahutu eta lehertu zuen; eta ezaguturic *Christori* esker baizic ez zuela bere etsaia hala garhaitu, guzien jakinean giristino egin zen, eta, harren aintzineco emperadorec bezala erlisioneac persecutatzece orde zaindu zuen eta handizki lagundu (313).

(1) *Lesioneac* Erromaco tropetan ziren, goretan *erresimenduac* bezala, bainan hainitzez handiagoac. Lesione bacotchean bazen 6,600 gizonen ingurua.



HIRUGARREN ZATIA

Elizac garhaitzen ditu hereticoac

314^{garren} URTHETIC ETA 450^{garren} URTHERAINO

(137 urthe)

1. *Nola baliatu zen Eliza Constantinec eman zion libertateaz?*

Constantinec eman zion libertateaz Eliza baliatu zen, Ebanjelioaren agerian goraki predikatze, eta paganoen conbertitzeco. Ospitaleac egin zituen eri pobrentzat, chaharrentzat, eta umechurtchentzat. Ordu artio gizonac gizona higuin zuen; ordu artio, ongi errana izan den bezala, gizona gizonarentzat otso zen. Elizac bihotzetan piztu zuen elgarrentzateco amodio miragarri bat. Horra nola zen Eliza mendecatzen pairarazi ziozcaten pertsecuzione izigarriez : Jesu-Christo bezala, ongia gaizkiarentzat bihurtuz.

ICTORIOA

Nola bizi ziren bai paganoac bai giristinoac

Paganoec ez zituzten jende beharrac eta haurrac batere laguntzen. Aitzitic, hekien legen arabera, haur herbail eta gaizki-eginac hil behar ziren. Hechec ez baitzuten jende eria, ezindua, irabaz bideric emaiten ez zuena urricari! holacoac nola nahi bazterrerat uzten zituzten. Escualde guzietan, hamarretaric bederatziac esclabo ziren. Esclaboac mercatuetan erosten ziren; abreac bezala beren nautieci lanean harrarazten zituzten, eta gero, zahartu eta ezindu zirenean, zocorat artikitzen den gutieneco artaric eman gabe.

Jesu-Christoren erlisioneac aldiz iracusten zuen gizon guziaz anaia direla, zeruco Aita beraren haur direlacotz; iracusten zuen elgar maitatu behar dugula, eta ez diotegula bertzeri egin behar, bertzec guri egitea nahi ez ginukenic. Erlisione miragarri horri jarraikiz, lehenbizico giristinoec berehala amodio, caritate handi bat iracutsi zuten pobren eta esclaboen aldera; emeki emeki esclaboac hainitzez gu-

titu ziren, eta frango lecutan ez zen gehiago bihirie gelditu; jende beharra, giristinoeri esker, lagundua eta artatua izan zen.

2. *Eliza luzez utzi zuten-a bakean?*

Ez, Eliza ez zuten luzez bakean utzi; pertsecuzioneac gelditu orduco, etsai berri batzu agertu zitzaizcon.

3. *Zer etsai izan zuen bada Elizac pertsecuzionen ondotic?*

Elizac pertsecuzionen ondotic izan zituen etsaiac ziren : *hereticoac* eta *chismaticoac*. *Hereticoac* sinhesten eta iracasten zituzten Jesu-Christoren iracaspenen contraco gauza batzu; eta aldiz ez zituzten nihola ere sinhetsi nahi Jaincoac Elizari erran diozcan, eta Elizac fedezco articulu bezala iracasten dituen egia batzu. *Chismaticoac* ere Elizatic campo, Elizaren contra emaiten ziren, Elizaren zuzenezco buruzagieri obeditu nahi ez ziotelacotz.

ICTORIOA

Lehen hereticoac

Elizac, erlisioneeco gauzetan, ez dezake hala ez denie, ez sinhets, ez iracats. Jaincoari hortaz eskerrac diotzogula! Bertzenaz zer bilhacatu behar ziren Jesu-Christoren iracaspenac, haimbertze hereticoen solas macurren eta gezurren erdian? *Ariusec* zion Jesu-Christo ez zela Jainco, baina bakharric gizon handi bat. *Eutichesec* ihardesten zion : Jesus ez da gizon ez handi ez ttiki; Jesus Jainco da, eta bakharric Jainco. Bertze batec, *Nestoriusec*, zaasan Jesu-Christoren baithan badirela bi presuna, Jaincoarena eta gizonarena. Bertze asco gauzetan ez ziren hereticoac chuchenago mintzo, eta ez zuten hobeki elgar aditzen. *Macedoniusec* arabera, Izpiritu Saindua ez da Trinitate Sainduco hirugarren presuna, baina choilki aingeru bat. Bertze batec zion Izpiritu Saindua dela choilki Aitaren ganicacoa, eta ez Semearen ganicacoa ere. Zombeitec iracasten zuten debrua, Jaincoa bezala, betidanicacoa dela eta beti iraun beharra; bertze zonbeitec zioten gure arima Jainco dela,

eta ez dela bekhatu orisinalic (1). Hitz batez, hereticoec bazabilcaten zer nahi solas macur, zer nahi zorokeria asmatzen zuten. Beharrie, agindu zuen bezala, Jesu-Christo beti bere Elizarekin baitzen eta baita, Elizaren sinhestea, Elizaren iracaspenna beti garbi eta chuchun atchikitzeo!

4. *Nola jazarri zitzaioten Eliza hereticoeri eta chismaticoeri?*

Eliza hereticoeri eta chismaticoeri jazarri zitzaioten, eta garhaitu zituen, Jesu-Christoren iracaspennac gero-eta hobeki argitan ezarriz; iracaspenn hec goraki eta ahal bezembat indarrekin adiaraziz, bai bere *Aiten* liburuen bidez, bai bere Aita Sainduen eta Contzilio ecumenicoen sententzien (2) bidez.

5. *Nor deitzen ditutzu Elizaco Aitac?*

Elizaco Aitac dire gizon saindu eta jakintsun batzu, Elizaren lehen mendetan Jesu-Christoren erlisionearen alderdia, bai hitzez, bai iscribuz, hazcarki atchiki dutenac; heki esker hainitz arimetan piztu zen fedea; Elizari beraz eman zioten hainitz haur edo ume, eta horra zertaco deituac diren *Elizaco Aitac*.

ICTORIA

Zortzi doctor handiac

Elizaco zortzi Aita aiphatuenac deitzen dire oraino Elizaco zortzi *Doctor* eta *Iracasle* handiac, zeren giristino legea garbiki, nasaiki eta miragarriki iracatsi baitute. Hec dire: *san Athanasio*, Aletsandriaco aphezpicua, behin baino gehiagotan erresumatic campo igorria izan zena, egiazco fedearentzat zuen ezin hautsizco atchikimenduaren gatic. Athanasioaren izena, naski harree egina delacotz, ekhartzen du fedezco egien bilduma eder batec.

San Gregorio. Nazianzeo Seme, Constantinopleco aphez-

(1) Sortzean ekhartzen dugun bekhatua, Adamen bekhatuaren gatic.

(2) Gauza baten gainean sententzia emaita da, gauza hura hala dela edo hula dela garbiki eta segurki erraitea.

picu izan zena. Izendatu zuten *theologoa* (1), haren iracaspénac osoki ederrac eta segurac zirelacotz.

San Basilio, Cesareaco aphezpicua, jakitate handico gizona, ezin gehiago ona eta samurra pobren aldera, bainan pertsecutatzailei buruz burdina bezen gogorra.

Jondoni Joani Chrisostomo, erran nahi da, *urhezco ahotuna* deitua izan dena, choragarriki mintzo zelacotz.

San Ambrosio, Milaneco archapezpicu, Theodosio emperadorea *escumicuz* jo zuena, erran nahi da, Elizarekilaco batasunetie khendu, haitz bati adar bat picatuz khentzen zaion bezala; eta hori, zeren Theodosioe Thesalonicaco hirian zazpi mila arima zuzeniek gabe hilarazi baitzituen.

San Jerome, apheza, liburu Sainduac latinerat itzuli zituena.

San Agustin, Africa Hiponaco aphezpicua, hainitz liburu eder eta hedadura handicoac utzi dauzkiguna.

San Gregorio Handia, aita Saindua. Hunec asco populu ekharri zituen giristino egitera. Bertzalde, san Gregoriori esker, Erromaco hiria eta Italia guzia goseteac ez zituen chahutu; hari esker oraino *Barbaroac* (2) ez ziren Italiac eta Erromaco hiriaz beraz jabetu.

6. *Erraguzu zer ziren Contzilio ecumenicoac?*

Jadanie errana izan da, Contzilioac direla Elizaco buruzagieci egiten dituzten bilcúra batzu, erlisioneco gauzen gaineac elgar aditzeco, eta behar diren argiac emaiteco. Contzilio bat *ecumenicoa* da, Contzilio hartarat Aita Sainduac munduco aphezpicu guziac deitzen dituenecan, eta Contzilio harren iracaspénac bere baiac fincatzen dituenecan. Contzilio ecumenico bat mintzo denecan, giristino izan nahi duenac behar ditu harrec erranac sinhetsi, harrec manatuac egin.

ICHTORIOA

Lehenbizico Contzilioac

Apostoluec Jerusalemen, Jondoni Petri buruzagi, egin

(1) Theologoac dire erlisionecari behatzen zaizcon gauzetan, heien argitzeco eta chehatzeco, Jaincoac Elizaren bidez eman dauzkign iracaspenez baliatuz, lanean hari diren gizonac. Richtan da, hortan ere, bertze gauzetan bezala, badirela izpiritu batzu bertzeac baino erneagoac eta chorrotchagoac.

(2) Urruntchago icusico da zer ziren Barbaroac.

zuten Contzilioaren ondotic, huna zoin izan ziren lehenbizico *Contzilio ecumenicoac*.

— *Niceaco Contzilioa*, hiru ehun eta hogoi eta bortzean (325). Contzilio harrec *condenatu zituen Ariusen iracaspenac*.

— *Constantinopleco Contzilioa*, hiru ehun eta laueta hogoi eta batean (381). Contzilio harrec *condenatu zituen Macedoniusen iracaspenac*.

— *Ephesaco Contzilioa*, lau ehun eta hogoi eta hamecan (431). Contzilio harrec *condenatu zituen Nestoriusen eta Pelaioren* (1) *iracaspenac*.

— *Khalcedoneco Contzilioa*, lau ehun eta berrogoi eta hamecan (451). Contzilio harrec *condenatu zituen Eutichesen iracaspenac*.

7. *Elizac zertaco horrela condenatzen zituen fedearen contraco iracaspen guziac?*

Elizac fedearen contraco iracaspen guziac condenatzen zituen, lehenbizicoric, Jesu-Christoc bere hitza oso eta garbi begiratzea manatu ziolacotz, eta bigarrenecoric, arimac hereticoen gezurren bidez galtzerat ez uzteco.

8. *Hereticoec eta Chismaticoec ez othe diote bada Elizari calteric baizic egin?*

Ez, hereticoec eta chismaticoec alderdi onic ere izan dute Elizarentzat. Nola gaichtagin hec hari baitziren Ebanjelioan ez zirenac han causitu beharrez, fededunec ere arta gehiago ekhartzen zuten Ebanjelioaren ongi ezagutzeco. Elizac bertzalde garbikiago chehatzen zituen eta iracasten hereticoec ukhatu edo macurtu nahi zituzten egia; horrela fedea argitu eta fincatu zen arimetan, eta Ebanjelioaren ezagutza lasterrago eta segurkiago hedatu zen jenden artean. Hereticoec beraz Elizaren lana errechu bezala dute; ezen Elizaren lehenbizico lana edo egitecoa da, munduan Jesu-Christoren iracaspenen hedatzea. Eta nola per-

(1) Pelaioc zion, haurrec ez dutela sortzean Adamen bekhatuaren ondorio tzarrie batera ekhartzen, eta gizonac, bere indar choilaz, graziaren laguntza berezia gabe, zerua irabazten ahal duela.

tsecuzioneec iracutsi baitzuten giristinoen erlisionea Jaincoaren ganicacoa zela; halaber hereticoec jendea ekharri zuten icustera, zombat ederrac eta segurac ziren giristino legearen iracaspennac.

9. *Noiz agertu ziren lehenbizico FRAIDEAC?*

Lehenbizico hereticoen dembora bertuan, hirugarren mendean, agertu ziren lehenbizico *fraideac*. Orduan, erran dena, nahi zuenac erlisionea agerian eta bakean segi zezaken. Munduan sobra galbide atzematen zuten, eta Jesu-Christori hurbilagodanic jarraiki nahi ziren giristinoac, gaten ziren bazter toki batzuetara, mortura, han, bakhartasunean, hirietaric eta gizonen builatic urrun, zerua segurkiago irabazteco. Hec izan ziren lehenbizico *fraideac*. Hetaric gehienic izan zen Ejiptoan, San Antonio fraide guzien nausiaren ondotic, eta harren azpico. Frantzian aldiz *Jondoni Martin*, Turseco aphezpicuac, egin zituen lehen bi comentuac, laugarren mendean.

ICHTORIOA

San Antonio



San Antonio, Ejiptoarra, aitoren seme zen. Hogoi urthetan mortuan bizitzera gan zen, zituen guziac bere arrebari eta pobreri emanic. Bakharric bizi izan zen, lehenic itsaso gorriari hurbil diren mendietan, eta gero Thebaidaco eremu zabal eta ichiletan. Egoitzatzat harroca zilo bat zuen; ohetzat ihizco chareta bat; jan edantzat ogi puchca bat eta ur gazitu chorta bat; eta hauc ere ez zituen ukitzen iguzkia sartu ondoan baizic. Bainen betiereco bakhartasun hori, eta gorphutzeco gozotasun guzien escasia hori baino hainitzez dorpheago zitzaizcon bere arimaco antsiac eta hersturac. Beti munduco orhoitzapen galgarriez har-

tua eta unatua, beti debruaz borthizki tentatua, bere buruarekin borroca bezala lehertua hari zen; eta gudu hortan garhaitua izanen zen, ez balitz othoitzari eta penitentziari khartsuki jarraiki, eta Jaincoaren grazia berezi batec ez balu haren bihotza hazcartu eta sustatu. Ez zen erori; aitzitue, hogoi eta hamabortz urthetaco, hamabortz urthez ihardoki ondoan, osoki nausitu zitzaion etsai gaichtoari; handie harat Satanec ez zauca gehiago Antonioren lilluratzeco esperantzari. Antonio mortuan bizi izan zen lauetan hogoi eta bortz urthez, Jaincoa adoratzan eta zerbitzatzan zuelarie. Giristinoac milaca jarraiki zitzaizcon, hura bezala bizitzeco.



LAUGARREN ZATIA

Elizac populuac argitzen ditu eta bide chuchenetan sarrarazten

450^{garren} URTHETIC ETA 1500^{garren} UR'THERAINO
(1050 urthe)

1. *Zertan zen Eliza bortzgarren mendean, Constantin emperadoreac libertatea eman zionetic ehun urtheren buruan?*

Bortzgarren mendean, Constantinec Elizari libertatea eman eta ehun urtheren buruco, munduaren lau bazterretan hedatua zen Ebanjelioa, eta Erromanoen azpico jende guzia giristino egina zen. Ez zen gehiago hereticoric edo paganoric *Barbaroac* (1) baizic.

2. *Nola conbertitu edo giristino bilhacatu ziren Barbaroac?*

Bortzgarren mendean, Barbaroac jabetu ziren Erromaco emperadorearen azpico ziren toki guziez. Toki hetan baziren jadanic aphezac eta aphezpicuac. Bertzalde, Aita Sainduac eta aphezpicuec igorriric, asco misionest khartsu gan ziren Barbaroen escualdetan Ebanjelioaren predikatzerat, eta maiz eta ardura misionestec miracuiluac egiten zituzten. Nazione hez-gaitz hec miresten

(1) Erromanoec *barbaroac* deitzen zituzten Erromaco emperadorearen azpico ez ziren nazione guziac. Hitzcuntza horrec erran nahi du *arrotza*. *Barbaroa* edo *arrotza*, Erromanoentzat biac bat ziren. Bizkitartean, nola Erromaco lurretariac campo jendea ez baitzen hain argitua eta escolatua, *Barbaroac*, erran behar balinbada, populu erdi basa batzu ziren, eta gutiz gehienac paganoac, hala nola *Fran-tesac* eta *Angelesac*.

zituzten giristinoen bertuteac, eta berac giristino egiten ziren.

3. *Non bizi ziren horrela conbertitu ziren Barbaroac?*

Horrela conbertitu ziren Barbaroac bizi ziren European; eta hetarie atheratuac, eta emeki emeki eginac dire, egungo egunean European icusten ditugun nazioneac.

ICTORIOA

Clobis erregea conbertitzen da

Lehen lehenic, barbaro guzien artean, catholico egin ziren *Frantsesac*. *Clobis*, Frantsesen erregeac, emaztetzat hartu zuen printzesa catholico bat, *Clotilda* deitzen zena. Maiz eta ardura, Clotilda sainduac bere senharrari egin ahalac egiten ziozcan jainco faltsoac utzarazi nahiz; baina Clobise ez zuen holacoric aditzen; gertacari miragarri batec conbertitu heharra zen; huna nola.

Alemanac, *Rhin* deitzen den ur handiaz alde huntarat ethorriric, Frantsesen lurretan hedatzeco heinean ziren. Clobis lehen bai lehen badohacote bere tropekin, eta bi har-madec elgar jotzen dute *Tolbiackeco* zelhaian. Joite bat izan zen izigarria, eta Frantsesac gibelerat hasi ziren. Clobise orduan, bere emaztearen erranez orhoituric, othoitz hau egiten du gora gora: « Jesu-Christo, Clotildaren Jaincoa, eman diezadazu etsaiaren garhaitzeco indarra, eta zure baithan sinhetsico dut. »

Haimbertzenarekin Frantsesac berritz ere suhartzen dire; Alemanac chehacatzen dituzte, erregea hiltzen diote, eta gelditzen diren hondarrac ihesi igortzen dituzte ur handiaz bertze aldera. Clobise bere hitza atchiki zuen. Ethorri zen Reimseco hirirat; *san Remi* hiri hartaco aphezpicuarekin icasi zituen behar zirenac, eta gero, bere soldaduetarie hiru milarekin, bathaioa errezebitu zuen san Remiren escutic. Clobis izan zen beraz catholico egin zen barbaro aintzindari lehen lehena; eta horra zertaco, ordutic eta beti, Frantziac garhaiatu izan duen izen lorios hau: *Elizaren lehen umea, Elizaren alaba zaharrena*.

4. *Zer ongi egin zioten Elizac conbertitu zituen nazione barbaroeri?*

Hasteco, Elizac nazione barbaroeri eman zioten fedea, ontasun guzietan baliosena. Bertzalde, nola

erdi basac eta jite sorjesecoac baitziren; nola zernahi tzarkeriari eta lohikeriari emanac bizi baitziren, emeki emeki argituz, escolatuz, saindutuz, Elizac ekharri zituen eztitasunaren, garbitasunaren, justiziaren eta caritatearen maitatzera, eta araberan bizitzera; hitz batez, Elizac Barbaroen artean landatu zituen populuen zoriona dakharreten bertute guziac.

ICHTORIOA

Nola Aita Sainduac escualde batzuen nausi edo errege egin ziren

Erran bezala, Frantzia zen nazione guzietan lehen lehena conbertitu; hala hala ez da izan nazioneric Eliza Frantziac bezenbat maitatu eta lagundu duenic. *Lombardac* (1) Italiacz jabetu nahiz abiatu zirenean, Frantziari, *Pepin* Frantsesen erregeari, helegin zion Aita Sainduac. Bi aldiz *Pepin* bere tropekin *Alpesez* (2) bertze aldera gan zen, eta *Lombardac* leherturic, hogoi eta bi hiriz jabetu zen; hiri hec, guzien jakinean, Aita Sainduari eman ziozcan edo, hobeki erraiteco, bihurtu.

Gerochago, *Charlemagne* Frantziaco emperadore handiac emaitza hori erreberritu zuen; bai eta lur eta hiri gehiago ere eman ziozcan Aita Sainduari.

Horra nola Aita Sainduac egin ziren escualde batzuen nausi edo errege. Ez da munduan Aita Sainduaren nausitasuna eta erregetasuna baino zuzenagoric; eta nihon populua, jende chehea bereziki, ez da Aita Sainduaren lurretan bezenbat egiazco zorionez gozatu. Bertzalde gauza ona eta beharra da, Jaincoaren nahiaren araberaco gauza, Aita Saindua nihoren azpico edo meneco izan ez dadin. Libroki, nihoren beldurric gabe, eta nihorc debecatu edo trabatu gabe, behar zaiote Aita Saindua mintzatu bere haurrerri, mundu guzico giristinoeri. Horren gatic erran diteke Aita Sainduen erresuma giristino guzien, Eliza guziaren ontasuna dela; eta giristino guzien intresa eta dretchoa da, Aita Saindua errege izan dadin, Aita Sainduac bere lurrac izan detzan.

1870^{ean}, Aita Sainduari ebatsi ziozcaten bere lur guziac, eta geroztic Aita Saindua preso bezala dago bere Erromaco egoitzan, eta egoitza harren athetaraino badohazco etsaiac trufatzera eta mehatchatzera.

(1) Barbaro tzar batzu.

(2) *Alpesac* mendi handi batzu dire, Frantziaren eta Italiaren artean.

Giristino on guziec Jaincoari galdegin behar diote khar-tsuki Aita Saindua, ahalic lasterrena, bere lurren, Elizaco ontasunen nausi eta errege, zuzen den bezala, utz dezaten, Aita Sainduar beraz bihur dezoten zuzen contra hartu dioten bere erresuma.

5. *Zoin gizonec bereziki conbertitu, escolatu, eta bide chuchenetan ezarri zituzten Europaco nazioneac?*

Europaco nazioneac conbertitu, escolatu eta bide chuchenetan ezarri zituzten gizonac, izan ziren bereziki *fraideac*. Fraideac bizkitartean ez ziren beren baitharic lan horri lotu eta jarraiki. Fraideac gaten ziren Aita Sainduac eta aphezpicuec igortzen zituzten tokietarat, eta beti Elizaco buruzagien erranac egiten zituzten. Baziren asco fraide mota, asco fraide ordena edo familia (1).



6. *Zoin ziren orduan, eta zoin dire oraino fraide ordena aiphatuenac?*

Orduco fraide ordena aiphatuenac, egungo egunean oraino irauten dutenac, dire : *Benedictanoac*, *San Benedicto* edo *Benoatec* establituac ; *Frantziscanoac*, *San Frantzesec* establituac ; *Dominicanoac*, *San Dominikec* edo *Domingoc* establituac.

(1) Erregela beraren azpico diren, eta, maizenic, arropa bera duten fraidec eta serorec egiten dute *fraide* edo *serora ordena bat*, familia bat.

7. *Nola bizi ziren fraide hec?*

Fraidec beren bizia penitentzia garratzenetan zaramaten. Beti hari ziren edo othoitzean, edo esculanen, edo Ebanjelioaren predikatzen. Fraidec eginac dire Europaco laborantza lur gehienac; lehenago ez zen oihanic, larrerie eta ihiztokirie baizic; fraidec lurra atheratu dituzte, ondu, gizendu, eta lehenago iherie eta lapharrie baizic icusten ez zen tokietan, biltzen da, fraideri esker, zer-nahi bihi eta fruitu. Dembora hetan nihor gutic liburutan zakien, nihor gutic escola pichca bat bilhatzen zuen. Fraideac aldiz beren etchetan, beren comentuetan, liburutan lehia handiarekin hari ziren; jende chehea ere asco lecutan urririe escolatzen zuten, eta fraideri esker ez dire galdu aspaldico zaharrec eginicaco liburu eder aiphatu batzu. Fraidec bertzalde pobreac eta eriac artatzen zituzten caritaterie samurrenarekin.

ICHTORIOA

Mahometanoac

Zortzigarren mendean, herstura ikharagarri batean gertatu ziren Eliza eta populu giristinoac. *Siriaco, Palestinaco* eta *Ejiptoco* escualdez, *Africaco* itsas hegi guziaz, eta *Espainia osoaz* jabetu ondoan, *Araba Mahometanoac* (1) *Espainia* Frantziatic berechten duten mendiez (2) alde huntarat ethorri ziren, eta Frantzian hedatzera zohatzen. Mahometanoec, beren ustez, gauza ona, zerua merezi zuen gauza egiten zuten, giristino guzien ahalaz hiltzea, eta jendea beren gezurrezco erlisioneari bortchaz eta biziaren penan jarraicaraztea. Bainan Frantsesec hazcarki ihardoki zioten, eta *Charles Martel* (3), Frantsesen aintzindariac, funditu

(1) *Mahometanoac* dire *Mahometen* erlisione gezurrezco eta zikhinari jarraitzen direnac; hala nola *Arabac* eta *Turcoac*. Mahomet, gizon tzar eta lizuna, seigarren mendearen acabantzan agertu zen.

(2) Mendi hec deitzen dire *Pireneac*.

(3) *Martel*, erran nahi da, *martilua* edo *mailua*. Izen hori eman zioten Frantsesen aintzindariari zeren, martiluarekin edo mailuarekin harriac chehatzen eta porroscatzen diren bezala, chehatu eta porroscatu baitzituen etsaiac.

zituen *Poitiersco* hiriari hurbil. Hainitz eta hainitz hilac gelditu ziren, eta bertzeac izituric ihesi gan. Handic hogoi eta zazpi urtheren buruan, Pepin erregeac osoki hutsarazi zioten Frantziaco lurra.

8. *Nola deitzen dire Elizac populueri haimbertze ongi eta laguntza egin zioten dembora hec?*

Elizac populueri haimbertze ongi eta laguntza egin zioten dembora hec deitzen dire *arteco mendeac* (1).

ICHTORIA

Grecac (2) chismatico egiten dire

Bederatzigarren mendearen azkenera, chismatico egin ziren Grecac. Aita Sainduac ez zuen onhetsi nahi izan Constantinopleco (3) aphezpicutzat Photius apheza. Hau orduan abiatu zen, bai eta ez ziola Aita Sainduari obediencia batere zor; eta haren alde jarri ziren, bai Constantinopleco emperadorearen azpico zen jende guzia, bai Rusiano populu ttikia, orai nazione handi bat bilhacatua dena. Photius bere iracaspén macurrekin condenatu zuen contzilio ecumenico batec; bainan ez zen bide chuchenerat itzuli, eta Greken Eliza gelditu zen Erromaco Elizatic berechia, arbola bati picatzen zaion adarra iduri. Photiusec bertzalde ez zuen sinhetsi nahi Trinitate Sainduan, Elizac iracasten duen bezala, Izpiritu Saindua bardin Semearen ganic heldu dela, nola Aitaren ganic. Zombait demboraren buruan, Grekec nahi izan zuten Erromaco Elizarekin baketu eta batasunean sartu, ziotelariac: Elizaren iracaspén guziac onhartuco zituztela, eta obedituco ziotela Elizaco buruzagi zuzeneri; hori hitzeman ere zuten goraki Frantzia Liongo Contzilioan, hamahirugarren mendean. Bainan laster beren hitzac ahanzi zituzten, eta egungo egunean oraino Grecac chismatico eta heretico dire.

(1) Ordu arterainoco demborac deitzen dire *mende zaharrac*; dembora hec, erran den bezala, *arteco mendeac*; eta gerozticacoac *mende berriac*; *arteco mendeac* hasi ziren 474^{garren} urthean, eta acabatu 453^{garren} urthean.

(2) *Grecac* dire iguzki aldeco nazione batzu. *Chismaticoac* deitzen dire Elizaco buruzagi zuzeneri, guziz Aita Sainduari, obeditu nahi ez diotenac.

(3) Constantinople da orai Turkiaco hiri nausia.

9. *Zoin izan dire arteco mendetaco sainduric aiphatuenac?*

Arteco mendetaco sainduric aiphatuenac izan dire :

San Remi, Frantzia Reimseco archapezpica; harrec bathaiatu zituen Clobis erregea, eta harrekin giristino egin ziren lehen Frantsesac;

San Gregorio zazpigarrena, Aita Saindua; hau Alemaniaco emperadoreari bortizki jazarri zitzaion, Elizaren libertatea begiratzeco;

San Urbain bigarrena, Aita Saindua; hau ere, san Gregorio bezala, guducatu zen Elizaren libertatea zaintzeco. Bertzalde san Urbaini esker egin zen lehenbizico gurutzadea (1);

San Bruno; harrec establitu zuen *Chartrosen* (2) ordena hertsia;

San Bernat, fraidea eta hainitz fraiden Aita; san Bernatec establitu zuen *Frantzia Citauc* commentu famatua; san Bernatec bere suzco predicuez eginarazi zuen bigarren gurutzadea;

San Luis, *Frantziaco erregea*; hunec egin zituen zazpigarren eta zortzigarren gurutzadeac;

San Thomas, Italia *Akinacoa*; hau da Elizac izan duen Theologoric jakintsunena.

ICHTORIOA

Gurutzadeac

Toki sainduac, nola Jerusalemeco hiria eta Jesu-Christoren hil-hobia, Turco Mahometanoen escuetarat eroriac

(1) *Gurutzadea*, erran nahi da, gerla saindua. Gerla horietarat gaten ziren guziec gurutzearen seinale bat agerian bazacarcaten sorbaldaren gainean; horra zertaco gerla horiec deituac diren *gurutzadeac*, erran nahi da *gurutzadunen gerlac*.

(2) Chartrosac dire beti ichiltasunic handienez bizi diren fraide batzu.

ziren. Aspalditxe giristinoak Jerusalemera beilan gaten ziren, Salbatzailea bizi eta hil izan zen tokietan belhaunicaturik, othoitzik khartsuenen egiteko. Bainan Turcoek trufatzen zituzten, laidoztatzen, jotzen, eta batzuetan hiltzen ere bai. Hori gehiago ezin jasana zen.

Hamecagarren mendearen azkenera, Urbain bigarrena, Aita Saindu Frantsesa, Frantziarat ethorri zen; contzilio bat bildu zuen Clermoneko hirian; eta han, haimbertze



kharrekin mintzatu zen, hain ongi iracutsi zuen zombat pairatzeko zuten giristinoek Jerusalemen, eta zoin gaizki ziren Turcoen menean Jesu-Christo bizi eta hil izan zen tokia, non han ziren guziak, eta baziren milaka, chutitu baitziren oihuca ziotelarik: « *Jaincoac nahi du! Jaincoac nahi du!* » Eta hitzeman zuten ganen zirela Jerusalemeko Mahometanoen escuetarik libratzera. Gerla saindu hortan soldadu izan nahi zuten guzieri, Aita Sainduak sorbaldan lotu zioten oihal gorrizko gurutze bat. Horren gatic soldadu hec deituak izan dire *gurutzedunak*, eta gerla hec *gurutzadeak*.

Gurutzedunak beraz gerla Saindura gan ziren *Godefroa de Bouillon* aintzindari; eta hiru urtheren buruan, hartu zuten Jerusalemeko hiria.

Izan ziren bertze zazpi gurutzade, bat bertzearen ondotic. Azkenecoan hil izan zen san Luis, Frantziako erregea. Arteko mendetan ez da egina izan gurutzadeak baino gauza ederragoric eta baliosagoric.



BORTZGARREN ZATIA

Zer egin duen Elizac azken mende hautan

1500^{garren} URTHETIC ET'A 1890^{garren} URTHERAINO

(390 Urthe)

1. *Zoin izan dire, azken mende hautan, Elizaren ichtorioco gertacariric handienac?*

Elizaren ichtorioco gertacariric handienac, azken mende hautan, izan dire :

Protestanten heresia (1), eta Trentaco Contzilioa:

Misione catholicoen hedatzea;

Frantziaco Erreboluzionea;

Baticaneco (2) Contzilioa, 1869^{an}.

2. *Erraguzu Protestanten heresiaren gainean dakizuna.*

Hamaseigarren mendean, *Luther* deitzen zen fraide arnegatu bat hasi zen Elizaren iracaspenen contraco gauza batzuen predicatzen. Aita Sainduac condenatu zuen; bainan *Luther* ez zen bide onera bihurtu; aitzitic erlisione guzia desegin beharrez abiatu zen, ukhatzen zituelaric erlisioneco egia gutiz gehienac. Ukhatzen zuen Aita Saindua eta aphezpicuac Elizaren buruzagi zuzenac direla; ukhatzen zituen sacramendu gehienac; ukhatzen zuen badela Purgatorioa, eta obra onen bidez zerua irabaz ditakela. Zion, ez diogutela

(1) Heresia da Elizac iracasten duen fedezco gauza baten ukhatzera thematzea.

(2) *Baticana* deitzen da Erroman Aita Saindua dagon jauregia. Jauregi hau josia bezala da Jondoni Petriren Eliza handi, eder, pare gabecoari. Eliza hartan egiten ziren 1869^{co} Contzilioa bilcurac.

ohore berezirik zor, ez saindueri, ez eta ere Andre-
dena Mariari. Nola gizonaren jaidura tzar guziac
lausengatzen baitzituen, frango jende, guziz Ale-
manian, jarraiki zen Lutheren iracaspén gezur-
rezcoeri. Suisan, bertze heretico nausi batec,
Calbinec, gezur berac hedatu zituen, eta bertze
asco gainetic.

3. *Nola jazarri zitzaion Eliza Protestanten heresiari?*

Protestanten heresiari jazartzeco, Aita Sain-
duac Contzilio ecumenico bat bildu zuen Autrichia
Trentaco hirian. Trentaco contzilioac garbiki eta
goraki condenatu eta herraustu zituen Lutheren,
Calbinen, eta bertze protestanten iracaspén gal-
garriac.

ICTORIOA

Misione catholicoac

Protestanten heresiac, ondicotz, calte handia egin zuen
Europán. Elizatic berechi zituen, Elizari khendu eta ebatsi
ziozcan Angleterra, Alemania gehiena, eta Suisa. Bainan,
Jaincoari eta bere misionesteri esker, Elizac alde batetic
galtzen zuena bertze aldetic irabazten zuen. Escualderic
urrunenetan, salbaien eta paganoen artean, miragarriki
hedatuz zohan Jesu-Christoren ezagutza eta amodioa.

Dominicanoec Indietan predicatzen zuten Ebanjelioa, eta
Trentaco Contzilioa bildu zenean, Indietan bazen hiruetan
hogoi mila giristino baino gehiago.

San Frantses Zabierecoac, *Escual-herrico semeac*, gurutze-
fica escuan bi mila lekho baino gehiago curritu zituen, eta
zer-nahi jende conbertitu zuen, bereziki Japoneco erresu-
man. *Christobal Colombec* Americac atzeman zituen hama-
bortzgarren men learen acabantzan; harren ondotic laster
gan ziren harat *Frantziscanoac*, eta haukien hitza adituz,
Americanoac milihunca giristino egin ziren.

Jesuistec fedearen argia ereman zuten Bresilerat eta Chi-
narat.

Eta heltzen ziren bazter guzietan, misionest catholicoec
populuac giristino legera bilduz, bide segur eta gozo ba-
tzuetan bezala ezartzen zituzten. Misionesteri esker, po-
pulu hec egiazki urus ziren.

4. *Zoin izan dire dembora hetan, eta ondoco bi mendetan, Elizaco sainduric aiphatuenac?*

Asco Saindu eman ziozcan Jaincoac Elizari, protestanten heresiari ihardokitzeco; aiphatuenac dire :

San Inazio Loyolacoa, Espainia escual-herrico semea; Inazioc establitu da Jesuisten (1) ordena;

San Frantses Zabierecoa, hau ere Escualduna; hunec Ebanjelioa predicatori zuen Indietan eta Japoneco erresuman;

Santa Teresa, espainola, Carmeliten ordena erreberritu eta hobeki moldatu zuena;

San Frantses Salesecoa, Suisa Genebaco aphezpicua; hunec zer-nahi protestant conbertitu zuen; eta bertzalde utzi ditu debozionezko liburu batzu hainitz onac eta ederrac;

San Bizente de Paulo, Frantzian, *Akitzeco* ondoan sortua. Hunec establituac dire *Lazariztac* deitzen diren aphez misionest batzu; hunec oraino



establitu zituen *ospitalac* serorac, gerrarat soldaduen artatzeco gaten diren Serorac. San Bizentec bertzalde zer-nahi asmatu zuen eta egin jende beharren, ume-churtchen, chaharren, ezinduen (eta galbidetan zabiltzaren laguntzeco, hazteco, familiatzeco,

bekhatuaren ligatic atheratzeco, eta salbatzeco.

(1) *Jesui ta. erran nahi da, Jesusena. Jesuisten ordena deitzen da Jesusen Compañia.*

Joani Batista de la Salle dohatsua; hunec establituac dire haurrac hain ongi altchatzen dituzten *escola giristinoetaco Frerac, Baionan, Hasparnen, Dona Palen, Ustaritzen, Maulen*, eta bertze asco lecutan icusten ditugun *Frerac*.

5. *Zer pertsecuzione jasan behar izan zuen Elizac Frantzian, iragan mendean?*

Iragan mendearen acabantzan, 1789^{an}, hasi zen *Erreboluzionea*. Oro nahasi zituen Frantzian. Erregeren orde bertze gobernamentu bat ezarri, erregeari, Luis hamaseigarrenari, lephoa moztu zion. Bainan erregeac baino ere higuinago zituen Eliza gizonac. Elizari, erlisioneari, nahico zioken *Erreboluzioneac* lephoa moztu; erlisionea nahico zuken Frantzian osoki hil eta suntsitu. Aphezpicu, aphez eta fraide ahal guziaz hil zituzten; bertze Frantziatic ihes egin behar izan zuten; elizac hetsi zituzten; Elizaco ontasunac ebatsi eta saldu, eta ez zen gehiago ez meza emaiterik, ez bertze zeremonia egiterik haizu. Hamar urthe iraun zuen pertsecuzione izigarri harrec. Hamar urtheren buruan *Napoleon* lehenac, laster emperadore behar zenac, Aita Saindu *Pio zazpigarrenarekin*, antolamendu bat egin zuen, *Concordata* deitzen dena. Antolamendu harri esker elizac ideki ziren, eta lehen bezala Frantsesac librok jarraiki ahal izan ziren beren erlisione sainduari.

6. *Nola harri da beti Eliza arimen conbertitzen eta salbatzen?*

Giristino tokietan, Elizac arimac argitzen, conbertitzen eta salbatzen ditu aphezpicuen, aphezen eta fraiden bidez: hauc Jaincoaren hitza adiarazten dute; hauc, sacramenduac emanaz, arimac

Jaincoaren graziaz hazten eta hazcartzen dituzte. Giristino ez diren tokietarat, Elizac misionestac igortzen ditu. Beti izan dire, eta beti badire, eta orai seculan baino gehiago, misionest khartsuac, edo zoin zocotara, paganoen eta salbaien erdira, deusen beldurric gabe gogotic dohatzinac, Ebanjelioaren predicatzeco, Jesu-Christori arimen irabazteco; hec, atseGINEKIN zer-nahi gaitz eta nahi-gabe, gosea, erretzeco beroa, hormatzeco hotza, eritasunac eta heriotzea bera, arimen salbatzeco jasaiten dituzte. Bazter guzietan Elizac escolac idekitzen ditu; bazter guzietan, zer-nahi caritatezco asmuen bidez, haurrac, eriac, chaharrac, beren ariman eta gorphutzean gerizatzen, artatzen eta sendatzen ditu. Azkenean, fedearen osoric eta garbiric atchikitzeco, eta gure demboretaco erran eta iracaspén macur eta galgarrien condenatzeco, contzilio ecumenico bat bildu izan du Erroman, 1869^{an}, Abendoaren zortzian.

7. Nola deitzen da Contzilio hori? Zoin Aita Sainduc bilarazi zuen? Eta zer iracaspén handi daucu bereziki eman?

Azken contzilioa, Erroman 1869^{an} bildu zena, deitzen da *Baticaneco Contzilioa*.

Contzilio hori bilarazi zuen Aita Saindu Pio bederatzigarrenac.

Contzilio horrec, garbiki eta fedezco articulu bezala, iracatsi daucu, Aita Sainduac ez dezakela hala ez denic iracats; Aita Sainduaren hitza segurki egia dela.

Bai, *Aita Saindua mintzo denean Aita Saindu bezala, erran nahi da Eliza guziaren buruzagi bezala, eta erlisioneari behatzen zaion zerbeit iracasten duenean, Eliza guzia, catholico guziac*

iracaspén harren onhartzerat eta sinhesterat her-tchatzen eta bortchatzen dituelaric, orduan, choilki orduan, bainan orduan beti, Aita Saindua egiaz mintzo da; orduan Aita Sainduac ez dezake hala ez denie erran edo iracats. Hori, diot berritz ere, Baticaneco Contziliotic hunat, fedezco articulua da, Jainco bat badela bezen hazcarki sinhetsi behar duguna; hori sinhetsi nahi ez duena ez da catholicoa, Elizatic campo da (1).

8. Nor da Pio bederatzigarrenaren ondoco Aita Saindua, orai Eliza guziaren buruzagi, giristino guzien Artzain eta Argitzaile dena?

Pio bederatzigarrenaren ondoco Aita Saindua, orai Eliza guziaren buruzagi, giristino guzien Artzain eta Argitzaile dena, da Leon hamahirugarrena. Leon hamahirugarrena Aita Saindu-tzat hautatu zuen cardinalen bilcurac edo Conclabac (2), 1878^{an}, otsailaren 20^{ean}.

(1) Bai hala da. Aita Saindua mintzo denean : 1^{ic} erlisioneco gauzez; 2^{ic} Eliza guziaren buruzagi bezala; 3^{ic} diolaric giristino guziec, giristino egon nahi badute, behar dutela baitezpada haren iracaspéna onhartu eta sinhetsi; orduan Aita Saindua ez ditakela macur mintza, eta haren iracaspénac beti egia direla, hori fedezco articulua da; eta horren ukhatzera thematzen dena, ez da gehiago giristino.

Bainan hortaraino heldu gabe, gauza segura da, Aita Saindua mintzo denean ere choilki : 1^{ic} erlisioneco gauzez; 2^{ic} Elizaren buruzagi bezala; orduan ere, beti egiaz mintzo dela, eta haren iracaspénetan ez ditakela izan macurric. Diot hori gauza segura dela, bainan ez fedezco articulua. Beraz hori ukhaturic ere, giristino egon litake, bainan giristino tzar, horren ukhatzea bekhatu baita.

(2) Cardinalec hautatzen dute Aita Saindua. Hartaracotzat egiten duten bilcura deitzen da Conclaba, erran nahi da, gakhostatua edo gakhos emana. Cardinaleac ezen, Aita Sainduaren hautatzeco, gakhos hesten dire barne batean; eta barne hartaric ez dire ilkitzen, Aita Saindua hautatu dutenean baizic.

9. *Eliza lur huntan izan othe ditake behinere bake osoan ?*

Ez, Eliza ez ditake lur huntan bake osoaz goza. Jesu-Christo gure Jaunac errana da, hura bera pertsecutatu duten bezala, haren Eliza ere mende guzietan pertsecutaturen dutela.

10. *Zoin dire egungo egunean Elizaren etsairic gaichtoenac ?*

Egungo egunean Elizaren etsairic gaichtoenac dire *framazonac*, eta hauc iduri bertze bilcura edo zoizetate galgarri batzu, beren lan tzarra mai-zenic gordeca egiten dutenac, eta Aita sainduac asco aldiz condenatu dituztenac. Framazonac eta erran delaco bertze zoizetate horietaco jendeac, Leon hamahirugarrenac berritz ere escumicuz jo ditu, erran nahi da, Elizatic campo artiki; eta Aita Sainduac giristino guzieri manatzen diote zoizetate edo bilcura horietaric, edo zoin izen ekhar dezaten, atzartasunic handienarekin urrun dadien.

11. *Eliza harico othe da luzez oraino arimen salbatzen ?*

Eliza arimen salbatzen harico da munduac irauten dueno; eta deusec, ez eta pertsecuzione izigarrienec ere, ez diote khenduco arimen salbatzeco lehia eta ahala; ezen Jesu-Christoc Elizari hitzeman dio ifernuco indarrac, erran nahi da gaichtaginac, ez zaizcola nausituco, eta bera harrekin izanen dela menderen mende.

Egizu Testament berrico ichtorioaren bilduma laburzki.

Jesu-Christo gure Jauna, Jaincoac Adami agin-

dua, profetec haimbertzetan aiphatua, eta munduac lau mila urthez iguricatu, Bethlemen sortu zen Maria Birjina ganic; hogoi eta hamahiru urthez bizi izan zen Juduen artean; Ebanjelioa predicatu zuen, egin zuen zer-nahi miracuilu, eta gizonaz goragoco bertuteac iracutzi zituen bere solas eta urlats guzietan. Judu eskergabec gurutzeficatu zuten, bainan piztu zen hirugarren egunean. Jesus Jauna gizon guzien salbatzeco ethorria zen, eta gizon guziec zeruco bidea ezagut eta har zezaten amoreagatic, establitu zuen Eliza. Bere dizipuluac artean hautatu zituen hamabi Apostolu, eta eman zioten buruzagi bat, Jondoni Petri, lehenbizico Aita Saindua izan zena. Zerurat igan baino lehen, Jesus Jaunac Apostolueri manatu zioten Ebanjelioa predica zezaten mundu guzian, eta harren baithan sinhetsico zutenac bathaia zetzaten. Apostoluac hedatu ziren lurraren lau bazterretara, eta jende hainitz conbertitu zuten. Hiru ehun urthez giristinoac pertsecutatuac izan ziren, Jesu-Christo bera egina izan zen bezala; bainan nahiz milihunca hiltzen zituzten, beti emendatzen hari ziren. Azkenean Constantin emperadoreac libertatea eman zion Elizari, eta Eliza ordutic agerian haritu zen arimen salbatzen, arimaco eta gorphutzeco zerbait beharretan ziren guziac laguntzen zituelaric, etsai guziac garhaitzen, eta bereziki heresiatic; heresieri ihardokitzen zioten, heresiatic ezeztatzen zituen bere doctoren jakitatearen eta bere Contzilioen iracaspén guziz seguren bidez. Elizac conbertitu zituen European egoiterat ethorri ziren nazione barbaroac, eta arteco mende guzietan haritu zen nazione heien argitzen, escolatzen eta saindutzen. Protestanten heresia agertu zenean,

Aita Sainduac Contzilio bat bildu zuen Trentan, eta protestanten gezurreri buruz, Trentaco Contzilioac argitan eman zituen eta iracatsi egia-rie premiatsuenac. Orduan ere agertu ziren, alde ba-tetic misionest khartsuz leher, Indietan, Japoneco erresuman eta Ameriketari jendea osteca conber-titu zutenac; eta bertze aldetic saindu handi eta predicari (1) famatu batzu, Eliza bere edertasun eta ontasun pare gabecoan hobeki ezagutarazi eta maitarazi zutenac. Beti, gezurrari buruz, egiaren hedatzeco, egiaren osoric eta garbiric atchiki-tzeco, Elizac misionestac igortzen ditu giristino ez diren tokietarat; giristino tokietan fedea hazten du eta hazcartzen, aphezpicuen, aphezen eta frai-den bidez. Azkeneco urthe hautan, Pio bedera-tzigarrenac egin du Baticaneco Contzilio ecume-nicoa; eta Contzilio harrec fedezco articulu bezala iracatsi daucu, Aita Saindua, erlisioneeco gauzetan, beti egiaz mintzo dela, ez ditakela macur mintza. Guzien buruan, Eliza frango pertsecutatu dute, frango pertsecutatuco dute oraino; bainan Eliza, Jesusec hitzeman diolacotz, segur da iraunen duela munduaren acabantzaraino, eta munduaren acabantzaraino harico dela beti arimen conberti-tzen eta salbatzen.

LAUDATUA IZAN BEDI JESU-CHRISTO GURE JAUNA!

(1) Frantzian, predicariric famatuenac izan ziren, hama-zazpigarren mendean, *Bossuet*, *Fenelon*, *Massillon*, aphez-picuac, eta *Burdalu*, jesuista.


AURKIBIDEA

ESCUAL HERRICO HAURRERI	5
Erlisionearen ichtorioa. (Zer den eta non causitzen den).....	7
TESTAMENT ZAHARRA.....	9
<i>Lehen zatia.</i> — Munduaren hastetic eta Jaincoac Abraham bere populuaren aintzindaritzat hautatu zuen arteraino (2000 urtheren heina).....	10
<i>Bigarren zatia.</i> — Jaincoac Abraham bere populuaren aintzindaritzat hautatu zuenetic, eta populu hura Ejiptoco lurretaric athera zen arteraino (500 urtheren heina).....	20
<i>Hirugarren zatia.</i> — Jaincoaren populua Ejiptoco lurretaric athera zenetic, eta erregeac buruzagitizat izan zituen arteraino (420 urtheren heina).....	29
<i>Laugarren zatia.</i> — Jaincoaren populuac erregeac buruzagitizat izan zituenetic eta Jesu - Christoren sortzeraino (1080 urtheren heina).....	38
TESTAMENT BERRIA.....	54
<i>Lehen zatia.</i> — Jesu-Christo gure Jaunaren bizia eta Elizaren hastapena (33 urthe).....	55
§ I. Jesusen bizitze gordea.....	55
§ II. Jesusen bizitze publicoa.....	61
§ III. Jesusen bizitze loriosa.....	77
<i>Bigarren zatia.</i> — Elizac pertsecuzioneac garhaitzen ditu. 34 ^{garren} urthetic eta 314 ^{garren} urtheraino (280 urthe).....	82

<i>Hirugarren zatia.</i> — Elizac garhaitzen ditu hereticoac. 314 ^{garren} urthetic eta 450 ^{garren} urtheraino (137 urthe)	94
<i>Laugarren zatia.</i> — Elizac populuac argitzen ditu eta bide chuchenetan sarrarazten. 450 ^{garren} urthetic eta 1500 ^{garren} urtheraino (1050 urthe).	101
<i>Bortzgarren zatia.</i> — Zer egin duen Elizac azken mende hautan. 1500 ^{garren} urthetic eta 1890 ^{garren} ur- theraino (390 urthe).	109

Laudatua izan bedi Jesu-Christo gure Jauna!





BAYONAN

LASSERRE, liburu egilearen baithan

Gambetta carrican, 20.

ESCUARAZCO LIBURUAC

- | | |
|--|---|
| <i>Eletzionelaco catichima: precioa</i> 05 c. | <i>San Francesen hirugarren ordenaco, edo Tierzeren Escu-
liburua. Yau Apezpicua-
ren baimenarekin impri-
matua</i> 50 c. |
| <i>Sainduen Bizitzea. Aita Ba-
zilio Jeannateguy, bene-
dictanoac, argitarat eina-
na</i> 1 l. 80 | <i>Sacramendu Sainduaren li-
burua, edo Sacramendu
Sainduari eta Mariari Bi-
sitac, autora san Ligo-
rio</i> 75 c. |
| <i>Zer izan diren eta zer diren
oraino Framazonak mun-
duan</i> 50 c. | <i>Testament Zaharreco eta Ber-
rico istorioa, frances li-
buru aphezpicuec ophetsia
den baten gainean escua-
raz eguina, Etcheberry
apezac; bigarren molda-
ldia</i> 1 l. 75 |
| <i>Lehenagoko Eskualdunak zer
ziren</i> 70 c. | <i>Bi Mihiren Gramatika, uskara
eta francesa egina, J.-B.
Aronu, eskolen ikhous-
leak</i> 2 l. |
| <i>Aphezen dretchoac eta eginbi-
deac eletzionetan, escuaraz
egina Diharassarry aphe-
zac</i> 05 c. | <i>Fableac edo aleguiac Lafonte-
netaric berechiz hartuac,
eta Goyhetche apheac,
francesetie escoarara ber-
xutan icukiac</i> 1 l. 50 |
| <i>Bokazioneu edo Jaincoaren
deia, J.-P. Arbelbide aphe-
zac eguina</i> 2 l. 50 | <i>Exercicio ispirituala ttipia.</i> |
| <i>Erlijione Sainduko Egien bil-
duma, urthean lauetan,
Baionako diosesa guziko
elizetan, Jaun Aphezpi-
kuaren manuz irakurtzen
dena</i> 40 c. | <i>Exercicio ispirituala handia.</i> |
| <i>Giristinoa indulgencien gai-
nean argitua, liburutto bat,
precioa</i> 30 c. | |